ARGITARA ALTXOR AHAZTUA:

Patricio Echeverría SA (PESA) lantegiaren argazkiak. 1918 - 1993

Aceros Bellota enpresako argazkilariei buruzko oharrak

LUZ PARA UN TESORO OLVIDADO:

Fotografías de Patricio Echeverría S.A. (P.E.S.A.). 1918 - 1993

Notas sobre los fotógrafos de Aceros Bellota

Gorka Salmerón Murgiondo

Algunos creen que una venta queda consumada en cuanto se vende la mercancía y se cobra. Están en un error. Una venta sólo queda consumada cuando se vende la mercancía, se cobra y se hace volver al cliente, lo cual se consigue sirviendo artículos de primera calidad.

Marca de Fábrica

BELLOTA

Las herramientas garantizadas "BELLOTA" no tienen rival.

49875 JESÚS ALVAREZ BILBAO.

Testuak / Textos: © Mª José Rodríguez Molina, Gorka Salmerón Murgiondo.

Argazkiak, argazkilariak / Fotografías, fotógrafos:
© Ignacio Aguirre Montegui, Photito, Manuel Mondragón Balseca, L. Vilella, Valentín Sierra González, Inocencio Fadrique Platón, Marín Material Fotográfico, Marín Fotógrafo, Lucio Vergara Machicote, Willy Koch Schöneweiss, José García Garrabella - Manipel, Luis García Garrabella - Ediciones Luker, Imprenta Industrial, Juan Miguel Pando Barrero, Trabajos Aéreos y Fotogramétricos (T.A.F.), Santi Gabiria Lubiano, José Luis Ramírez Ortiz, Jesús Mari Andueza Ugarte, Javier Larrea Roa, José Luis López de Zubiria, José Vierbücher Llopis - Foto Luz, Gorka Salmerón Murgiondo.

Argazkiak, agiritegi eta bildumak / Fotografías, archivos y colecciones:
Gorka Salmerón Murgiondo (GSM), Corporación Patricio Echeverría S.A.(CPESA), Tomás Zurián Ugarte (TZU), Burdinola (BUR), Alejandra Ortiz Castañares (AOC), Mª José Rodríguez Molina (MJRM), Willy Koch Louvelly (WKL), Ángel Murua Iñurritegi - Lucio Vergararen Familia (LVF), Fototeca del Instituto del Patrimonio Cultural de España (IPCE). Arxiu Nacional de Catalunya (ANC), Pedro Gabiria Lubiano - Santi Gabiriaren Familia (SGF), Socorro Ibarreta - Jesus Mari Andueza Ugarteren Familia (JMAF), José Luis Ramírez Ortiz (JLRO) Javier Sánchez Portas (JSP), Pako Vierbücher Fernández - Foto Luz (PVF), Javier Larrea Roa (JLRR), José Luis López de Zubiria (JLLZ), Koldo Mitxelena Kulturunea (KMK), todocoleccion.net (tc.net), Iñaki Beldarrain Solatxi - "Patricio Echeverría Elorza; Su tiempo, su obra y trayectoria vital" liburuko argazkia / *fotografía del libro* (IBS).

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación:
Luis Ros López - Impel, Gorka Salmerón Murgiondo.

Argazkien digitalizazioa / Digitalización de las fotografías: Gorka Salmerón Murgiondo.

Itzulpena euskarara / Traducciones al euskera: Iñaki Bastarrika Izagirre.

Argazkien deskripzioa eta datak / Descripción y datación de las fotografías:
Iñaki Beldarrain Solatxi, Tomás Echeverría Guereta.

Jabetza intelektualari buruzko aholkularitza / Asesoramiento sobre propiedad intelectual:
Jorge Alcorta López.

Inprimaketa / Impresión: Gertu, Oñati (Gipuzkoa).

Argitalpena / Publicación:
Burdinola, Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea.
Asociación de Amigos del Museo del Hierro de Legazpi, Burdinola.

Babesleak / Patrocinadores:
Legazpiko Udala. / Ayuntamiento de Legazpi.
Gipuzkoako Foru Aldundia./ Diputación Foral de Gipuzkoa.

Laguntzaileak / Colaboradores:
- Photomuseum Argazki & Zinema Museoa. Zarautz (Gipuzkoa).
- Fototeca del Instituto del Patrimonio Cultural de España (I.P.C.E.). Ministerio de Educación Cultura y Deporte. Madrid.
- Arxiu Nacional de Catalunya. Sant Cugat del Vallès (Barcelona).

I.S.B.N.: 978-84-921889-8-7
Lege gordailua / Depósito legal: SS-1159-2016

Edizioa / Edición: 400 ale. / 400 ejemplares. Legazpi (Gipuzkoa). 2016.

Roberto Oria San Juani,
altxorraren mapagatik.

A Roberto Oria San Juan,
por el mapa del tesoro.

ESKERRAK - *AGRADECIMIENTOS*:

"Gabinete de Detectives Photito" ikerketa kideei, beren laguntza gabe historia hau ez baitzen posible izango:

Alejandra Ortiz Castañares, Florencia (Italia) - Mª José Rodríguez Molina, Valencia.

A mis compañeras de investigación del "Gabinete de Detectives Photito",
sin las cuales esta historia no hubiera sido posible.

LAGUNTZAILEAK / *COLABORADORES*:

Roberto Oria San Juan, Alejandra Ortiz Castañares, Mª José Rodríguez Molina, Edorta Kortadi Olano, Xabier Arcelus Domínguez, Juan Antonio García Marcos, Tomás Zurián Ugarte, Pedro Gabiria Lubiano, Javier Larrea Roa, José Luis López de Zubiria "Pepelu", José Valderrey de Lera, Merche Sierra Garín, Fernando Martín Suquía, Alberto Bayod Camarero, José María Maldonado Moya, Iñaki Beldarrain Solatxi, Tomás Echeverría Guereta, Pedro Gabiria Lubiano, Ricardo Vierbücher Fernández, Pako Vierbücher Fernández, Ángel Murua Iñurritegi, Willy Koch Louvelly, Antón Hurtado, Anuntxi Andueza Ugarte, José Luis Ramírez Ortiz, José Ronco Hernández, Agurtzane Aramendi Arteaga "Foto Estudio F8", Gotzon Aranburu Aranburu "Buru", Fortu Ruiz de Eguilaz Lope, Conchi Murgiondo Mutiloa, Kontxi Otegui Arrizabalaga, Jesús R. Rocandio, Juantxo Egaña Sevilla, Maddi Elorza Insausti, Jose Luis Ugarte Garrido, Jorge Alcorta López, Iñaki Bastarrika Izagirre, Luis Ros López, Manuel Salmerón Ferrón.

Martxel Altuna Azpiazu - Conchi López Monteagudo (Photomuseum), Susana López de Castro Soto - Benigno Hermosilla Majuelo (Archivo Municipal de Logroño), Sagrario Arrizabalaga Marín (Irungo Udal Artxiboa), Almudena Toribio Rey (Bilboko Udal Artxiboa), Xabier López de Munain Ruiz de Larrea - Iñaki Elorza Aiastui (Legazpiko Udal Artxiboa), Amaia Auzmendi Izarrola (Donostiako Udal Artxiboa), Koldo Argandoña Ochandorena (Urretxuko Udal Artxiboa), Antonio Prada Santamaría (Zumarragako Udal Artxiboa), Ana Otegi Atorrasagasti (Gipuzkoako Artxibo Orokorra), Óscar Muñoz Sánchez (Fototeca del Instituto del Patrimonio Cultural de España), Imma Navarro Molleví - Conxi Petit Cibiriain (Archivo Nacional de Cataluña), Patricia Alonso Salinas (Archivo Municipal de Zaragoza), Tere Thomson Llisterri (Archivo Municipal de Alcañiz), Javier Berasaluce Bajo (Gasteizko Udal Artxiboa), Clara Barbier Zabaleta (Pasaiako Udal Artxiboa), Txema Oderiz Azkona (Iruñako Udal Artxiboa), Nekane Larrea (Asociación de Artes Gráficas de Bizkaia), Marina Blesa Baeza (T.A.F. Helicópteros S.L.), Beatriz Arsuaga Elizalde (Manipel), Raimundo Amutxastegi Elosua (Debako Udal Artxiboa), Marisa Zuazo Rosado (Paisajes Españoles S.A.), Frantxis López de Landatxe (Gipuzkoako Foru Aldundia), Amaia Iraeta - Juantxo Irigoyen - Juanjo Salegi - Miren Larrañaga (Corporación Patricio Echeverría S.A.), San Telmo Museoko Artxiboa, Burdinola, Legazpiko Udala, Gertu.

Erregistro Zibilak / *Registros Civiles*:
Legazpi (Gipuzkoa), Deba (Gipuzkoa), Logroño, Berberana (Burgos), Irun (Gipuzkoa), Alcañiz (Teruel), Torrelaguna (Madrid), Huesca, Las Peñas de Riglos (Huesca), Donostia, Zaragoza, Tolosa (Gipuzkoa), Madrid, Castellote (Teruel), Alcazarén (Valladolid), Zumarraga (Gipuzkoa), Urretxu (Gipuzkoa), Mendavia (Nafarroa), Barcelona, Iruña, Bilbo.

Etxekoak, ostutako denboragatik/ *Los de casa, por el tiempo arrebatado:*
Susi, Lexuri, Amets.

Burugogorrentzat egokia

Patricio Echeverríak 1918tik hirurogeiko hamarkada erdialdera arte agindutako argazkiei esker, Legazpiko PESA altzairu-enpresako argazki-fondo aberats bat daukagu gaur, eta, horren bitartez, fabrikaren itzalean hazi zen herri baten bilakaera industriala ikus dezakegu. Badira apartak diren irudi batzuk, Photito, Willy Koch, Bilboko Imprenta Industrial edota Pando etxeek eginak. Fondo hori, gainera, aberastu egin da Gorka Salmerón Murgiondok 1990eko hamarkadatik aurrera egin zituen argazkiekin, gogoz egin ere, baina bertako izateak ematen duen zuztarraren indarrez, eta hala itxi du PESA konpainiaren bizi-zikloa.

Agiri fotografikoek balio dokumental, historiko eta patrimoniala izan ohi dute. Horiek errespetatzea gure iragana errespetatzea da, baita gure oraina eta gure atzetik etorriko direnena ere. Material hori guztia bildu eta Zarauzko Photomuseum-en egon da ikusgai; orain, «Burdinola» Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkarteari esker, eta bertako ondarea berreskuratu, kontserbatu eta zabaltzeko egiten duen esku-hartzeari esker, argitalpen bihurtu da. Abentura horren egilea Gorka Salmerón bera izan da. Fondoaren aberastasuna erakusteaz gain, argazkien egileen biografiak osatzeko lan nekeza hartu du bere gain, eta erronka hori ez da batere erraza. Askotan esana da irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, eta hartan zegoen Patricio Echeverría, bere altzairuak ezagutarazi eta saldu nahi izan zituenean; besterik da, baina, irudiak enkargatu zitzaizkien egileei buruz mila hitz esatea.

Ondarea kontserbatzeko, den erakoa dela, sentiberatasuna behar da. Altxorrak ikertu eta aurkitzeko, jakin-mina behar da. Preziatzeko, ezagutza behar da. Edozein lan burutzeko, egoskorra izan behar da. Hasten den edozein ikerketatan, beti egon behar da erne arrasto faltsuen aurrean; San Tomas bezala izan behar da, eta beste batzuek lehenago baieztatutakoa zalantzan jarri, eta are geuk esaten duguna bera ere. Nahitaezkoa da, zehatzak izan nahi badugu, iturburuetara jotzea, aurkitzeko zain dauden agiriz betetako artxiboetara. Iraun egin behar da, eta ez da amore eman behar tunel ilunen bat edo irteerarik gabeko kale esturen bat aurkituz gero. Tira egiteko, hari bat bilatu behar da. Eta hausnartzera geratu; ez zutabe hauskorren gainean eraikitako teoriak jaurti, baizik eta datu fidagarriekin muturrak lotu. Ekintzak behar bezala berreraikitzeko, gertaeren hari kronologikoa segitu behar dugu, garapenean akatsik ez egiteko.

Betekizun horiek bete egiten ditu Gorka Salmerónek, sentibera baita argazki-altxor honen kaltetzeaz eta jakitun hura kontserbatzearen premiaz; gainera, bikain hasi da ikerketa-lanetan. Datuak biltzen aritu da, Patricio Echeverría SA (PESA)-ko instalazioak erretratatu zituzten argazkilari-firma komertzial askori buruz, eta usnaka izen komertzialekin sinatutako lanetan, zeinaren atzean beti dagoen izen bat, bizitza bat. Bere ahaleginean, nabari da aitorpen bat egin nahi diela egile ezezagun horiei, berdindu nahi izan dituen argazkilari horien memoria berreskuratzeko, baina frogatu du haiek adina dela bera ere. Ikertutako argazkilarien artean, horra hor «Photito», argazkirik zaharrenak egin zituena, eta, Gorkak berak aitortu bezala, bereziki lotu duena, itsutuki tarte batzuetan, eta gutako batzuk katigatu dituena. Photito desafio bat izan da; benetako Photito versus Salmerón. Etxe komertzial horren atzean, misterioa zegoen; «gai horrek intrigatuta nauka», esaten zuen Gorkak etengabe 2015eko abuztuan. Asko ziren kezka eragiten zioten loturarik ezak… Arrastoa segitu genion Photito-ri, eta, serio bezain irriz, detektibeek ohi duten bilaketa hasi genuen. Eta hala eratu zen Gabinete de Detectives Photito (GDP), zenbait sukurtsal dituena: Legazpin –aldi batez egoitza Errioxan zuela edo batetik bestera, unitate mugikorra, aldirietako tranbia batetik transmititzen Gipuzkoa Sakonean–, Valentzian eta Florentzian, Alejandra Ortiz Castañares ordezkari dela. Gorkak lortua zuen, trebetasun harrigarriz, ikerketa talde bat eratzea distantzian, eta gizarte-sare mugatu bat, datu-trukean eta hausnarketan oinarritua, Photito iheskorraren atzean nor zegoen jakin ahal izateko.

Ikusi dut, ikusi, nola joan den Gorka ikerketaren labirintoan sartzen, nola aurkitzen zuen bere iturburuen garrantzia, nola kontsultatzen zituen agiriak artxiboan, lotzen muturrak, harremanetan jartzen datuak, hipotesiak baztertzen zituen ziurtasunez baieztatzerik ezean, nola heltzen zen irteerarik gabeko kale estura, eta atzera egiten zuen beste bide baten bila… Nola jartzen zituen zalantzan bere baiezta-

penak. Zenbat eta informazio gehiago bildu, eta ikerketa kiribildu, orduan eta argazkilari berri gehiago agertzen ziren ikertzekoen zerrendara. Historia amaiezina zen, eta etengabe egon behar zen atzeraka etorriz hausnarrean. Eta, hala ere, liluragarria iruditzen zitzaion. Gorkak erakutsi du arrastoak ondo baino hobeto jarraitzen dituen ehiza-zakurra dela. Harrigarria da batzuekin eta besteekin aritzeko duen trebetasuna, isildu gabe, irakasle-ukituarekin, han-hemengo informazioa lotzekoa, kutsatzekoa, konpartitzekoa, eskertzekoa, gozatzekoa. Atseginez ikusi dut ez duela beldurrik izan artxiboetan eskuak zikintzeko, denboraren iragateak dakarren orbain-hautsarekin. Utzi du besteek gida dezaten, eta men egin dio artxibozainen esanari… Apala, baina anbiziotsua. Bere kabuz egiaztatu du, eta ahogozatu, agiriak hor daudela, nork aurkituko zain, eta segi eta segi egiten duten haiek bakarrik jasotzen dutela aurkikuntzaren uzta. Bera, burugogor; beti burugogor.

Gorkak zuzendu duen proiektu honen emaitza aldaketa baten ondorena da, hazkunde batena, zeren bera, argazki-historialari izan aurretik, argazkilari aditua zen, koloreen alkimista, eta urteak dira altzairuaren goria argazkiko zuri bihurtzen hasi zela, paisaiak berrasmatzen eta estetikaren ahala aldarrikatzen, eta begirada hezten, ezarritako arau eta iritzietatik libratu arte. Teknika fotografikoen ezagutzaile da, eta haren magiaren ezagutzaile, istanta iraunarazi egiten baitu, eta unean unekoa betikotu.

Baina egia da, baita ere, ume izan zela argazkilari baino lehen, eta bere historia fabrika baten egunerokoak markaturiko herri batena dela; Patricio Echeverríarenak, hain zuzen. Ume horren begiratua makina horien arimak gatibatu du. Denbora iragan den arren, txinpartak sortu dira euren artean, eta argazkilari inplikatu bihurtu dute: beharra du irudietan adierazteko, espazio bihurturiko denbora, eta irudi horiek partekatzekoa. PESAri buruz berak egindako argazkiak behatuz, zalantza sortzen da, nork nor menderatzen duen, gizonak makina ala makinak gizona. Hain sendo agertzen dira makinak, hain indartsu, handi eta, aldi berean, hain esaneko, non nekez kentzen zaien begia gainetik. David eta Goliat; gizona eta makina, elkarrekin bizitzera kondenatuta. Aurretik izan zituen argazkilarien argazkiak batzuk, benetako artelan begiratzen dituzten begiak, argazkilaritzan aditua den batenak, jaio eta hazi zen lekuko historiarekiko begirunea duen batenak, debozioarenak.

Gorka 1969ko uztailaren 19an jaitsi zen ilargitik, Legazpin lurreratzeko, eta hurrengo egunean Armstrong ilargira igo zen, urrats handi bat emanez… Pentsa liteke astroak alde izan dituela, bide honetan behinik behin. Eta baliteke bera eta ni orbita berean jarritakoak izatea, 69ko «kintoak» baikara. Eta badira beste jakingarri gehiago ere: 2015eko abuztuaren 19an, 1839an dagerrotipoa Parisen aurkeztu zen egun berean, «Gabinete de Detectives Photito» eratu zen, Fuenmayor-eko Mahatsaren Ama Birjinaren begiradapean... Halabehar horrek gozatzen ditu gertaerak.

Legazpiar honek argazkiak egiten ditu, edo beste batzuenak berreskuratzen, bai baitaki, eta sentitzen baitu, horrela berreskuratu egiten duela bere historia, bere jaioterriarena, Legazpirena. Nahiz eta bere abizenak, Salmerón hitzak, ereintzatik kanpo hazten den garia esan nahi duen, zilborreste batek lotzen du, hausturarik gabe, bere jatorrira. Txalogarria da zein erraz lotu zaion argazkigintzaren historiari, eta txalogarria, halaber, gure herrietako memoria grafikoa berreskuratzeko duen interesa eta argazki-ondarearekiko duen errespetua. Hori guztia, abantaila batekin: teknika fotografikoak eta prozesu kimikoak ezagutzetik abiatzen dela. Gorkaren kasuan eta antzerakoetan, artxiboetan lan egiten dugun teknikariok nahitaez erakartzen eta kutsatzen gaituzte besteen ikerketek, berak gaiari heldu dion kemen eta jakin-min biziarekin. Irakatsiz ikastea bizitzako plazer handietako bat da. Nik ere irabazi dut lan honekin.

Esan nion ikerketak arrisku erakargarriak zeuzkala; ohartarazi nuen argazkiaren historiak mira sortzen duela eta bizio bihurtuko zitzaiola, baina ez du ezertarako balio izan, indartu egin baitzaio jakin-mina, eta bizitu gogoa. Ikasle aurreratu bihurtu da, ikerketa historikoan ongi ari daitekeena, barru-barrutik lan egiten baitu, baina buru onarekin. Fotohistorialari terminoa ez zaio handi geratzen, eta ez dio utzi, horregatik, argazkilari izateari. Legazpiko historia grafikoa berreraikitzeko asmoarekin, eta dokumentu-balio handia duen fondo fotografikoa zabaltzeko asmoarekin, Euskadiko argazkigintzaren historia, denon ondarea, aberasten lagundu du.

Photito hasi zen, eta Salmerón Murgiondok bukatzen du, PESAko argazkilari sagako azkenak; batzuek enkarguz, azkenak afizioz eta debozioz. Gorka ume hark, Patricio Echeverría fabrika barrutik ezagutu nahi zuen hark, aitonak han egin baitzion lan, ezin zuen buruan pasatu, handik urteetara, bere helduaroan, jakin-mina berdin izanik, proiektu hau hartuko zuela esku artean, ahalegin, ilusio eta originaltasunez beterikoa. Bera adibide bat da, burugogor izan behar dela norberaren proiektuarekin, hori baita aurrera ateratzeko modu bakarra. Hemen dago Gorka «Salmerón Burugogorrak» ~~l~~etra larriz idatz dagigun–begirune handiz burutu duenaren froga. Goza ezazue.

María José Rodríguez Molina

"Fotohistorialaria - Valentziako Diputazioko Argazki Artxibategi eta Artxibategi Orokorreko teknikaria"

Atxurtegia. / ***Forja de Herramientas.*** **ca. 1930.** Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

APTO PARA OBSTINADOS

Gracias a las fotografías que Patricio Echeverría encargó desde 1918 hasta mediados de los años sesenta, hoy contamos con un rico fondo fotográfico de la empresa de aceros P.E.S.A. de Legazpi, a través del cual podemos contemplar la evolución industrial de un pueblo que creció a la sombra de la fábrica. Hay algunas imágenes excepcionales, como las de Photito, Willy Koch, la Imprenta Industrial de Bilbao o las de Pando. Pero, además, este fondo se enriquece con las fotografías que realizó Gorka Salmerón Murgiondo a partir de los años noventa, por voluntad propia, aunque movido por la fuerza del arraigo, cerrando con ellas el ciclo vital de la compañía P.E.S.A.

Los documentos fotográficos se caracterizan por su valor documental, histórico y patrimonial. Respetarlos es respetar nuestro pasado, pero también nuestro presente y el futuro de los que nos sucederán. Todo este material se ha recuperado y se ha mostrado en una exposición en el Photomuseum de Zarautz; ahora, gracias a la Asociación de Amigos del Museo del Hierro de Legazpi "Burdinola" y su implicación en la recuperación, conservación y difusión del patrimonio local, toma forma de publicación. El artífice de esta aventura ha sido el propio Gorka Salmerón, que además de querer mostrar la riqueza del fondo, se ha embarcado en la ardua tarea de recomponer las biografías de los autores de las fotos y recuperar así su memoria; un reto nada fácil. Que una imagen vale más que mil palabras es un dicho harto conocido, y así lo pensó Patricio Echeverría cuando quiso publicitar y vender sus aceros; pero decir mil palabras sobre los autores a los que se encargó las imágenes es harina de otro costal.

Para conservar el patrimonio, sea de la índole que sea, hay que tener sensibilidad. Para investigar y descubrir tesoros, hay que tener curiosidad. Para apreciar, hay que tener conocimiento. Para culminar cualquier cosa, hay que tener obstinación. En cualquier investigación que se aborde siempre hay que estar alerta ante las posibles pistas falsas, hay que ser como santo Tomás y dudar de lo que otros han afirmado antes, e incluso de nuestras propias afirmaciones. Es imprescindible, si queremos rigurosidad, recurrir a las fuentes primarias, a los archivos repletos de documentos que están a la espera de ser descubiertos. Hay que ser constantes, no desalentarse ante túneles oscuros o callejones sin salida. Hay que buscar un hilo del que tirar. Y detenerse a reflexionar, no lanzar teorías sostenidas sobre frágiles pilares, sino atar cabos con datos fiables. Para reconstruir correctamente los hechos debemos seguir el hilo cronológico de los acontecimientos para no cometer errores en su desarrollo.

Tales premisas se cumplen en la persona de Gorka Salmerón, sensible al deterioro de este tesoro fotográfico y consciente de la urgencia de su conservación, que además se ha iniciado de manera sobresaliente en las lides de la investigación. Ha estado recabando datos sobre muchos de los fotógrafos y firmas comerciales que retrataron las instalaciones de Patricio Echeverría S.A. (P.E.S.A.) intentando reconstruir sus andanzas y biografías, rastreando los trabajos firmados con nombres comerciales, detrás de los cuales siempre se encuentra un nombre propio, una vida. En su afán se detecta el intento de hacer un reconocimiento de esos autores desconocidos, por recuperar la memoria de esos fotógrafos a los que quiso emular, pero con los que ha demostrado estar a su altura. Entre los fotógrafos investigados se encuentra "Photito", el que realizó las fotos más antiguas, y como el mismo Gorka confiesa, el que le ha atrapado especialmente, obsesivamente a ratos, pero también con el que nos ha enganchado a unos cuantos. Photito ha sido un desafío, un auténtico Photito versus *Salmerón. Detrás de esta firma comercial se escondía todo un misterio; "este asunto me tiene intrigado" -afirmaba Gorka de manera constante en agosto de 2015-. Había muchas inconexiones que le inquietaban... Le seguimos la pista a Photito, y entre chanzas y veras, iniciamos una búsqueda detectivesca que devino en la creación del Gabinete de Detectives Photito (GDP), con distintas sucursales: Legazpi (con sedes temporales en La Rioja o itinerantes, unidad móvil, transmitiendo desde un tranvía de cercanías de la Gipuzkoa Profunda), Valencia y Florencia, con Alejandra Ortiz Castañares como representante. Gorka había logrado crear con una habilidad asombrosa un activo grupo de investigación en la distancia y una red social limitada basada en el intercambio de datos y reflexiones con el fin de averiguar quién se escondía detrás del escurridizo Photito.*

He sido observadora de cómo Gorka se iba adentrando en el laberinto de la investigación, de cómo descubría la importancia de las fuentes primarias, consultaba documentos en archivos, ataba cabos, relacionaba datos, descartaba hipótesis por no poder constatarlas con

certezas, de cómo llegaba a un callejón sin salida y retrocedía para buscar otro camino... Se cuestionaba sus afirmaciones. Cuanta más información recababa más se complicaba y enredaba la investigación, y nuevos fotógrafos aparecían sumándose a la lista para averiguar. Era una historia interminable y había que estar recapitulando constantemente desde la reflexión, y sin embargo, le resultaba fascinante. Gorka ha demostrado ser un sabueso que sabe seguir perfectamente las pistas. Sorprende su habilidad para hablar con unos y con otros, su capacidad de comunicación con esa característica incontinencia verbal sazonada con un toque de docencia, de relacionar información de aquí y de allá, de contagiar, de compartir, de agradecer, de disfrutar. He visto con agrado que no ha temido ensuciarse las manos en los archivos, de ese polvo que no es más que la cicatriz del paso del tiempo. Se ha dejado orientar y ha sido dócil a las instrucciones de los archiveros... Modesto, pero ambicioso. Ha comprobado por sí mismo, y lo ha saboreado, que los documentos están esperando ser descubiertos, y sólo aquellos que perseveran recogen los frutos de su descubrimiento. Él, obstinado, siempre obstinado.

El resultado de este proyecto que ha dirigido Gorka es la plasmación de una transformación, de un crecimiento, porque él antes de ser historiador de la fotografía, era un fotógrafo experto, un alquimista de los colores, que desde hace lustros sabe convertir el color rojo vivo del acero en blanco fotográfico, que reinventa paisajes y que reivindica el poder de lo estético, que ha educado la mirada hasta emanciparla de las normas y los juicios establecidos. Conocedor de las técnicas fotográficas y de su magia que permite convertir el instante en algo perenne, lo efímero en algo eterno.

Pero también es cierto que antes que fotógrafo fue niño, y su propia historia es la de un pueblo marcada por el día a día de una fábrica, la de Patricio Echeverría. La mirada de ese niño ha seguido cautivada por el alma de esas máquinas a pesar del paso del tiempo, han surgido chispas -"txinpartak"- entre ellos y le han convertido en un fotógrafo implicado, que siente la necesidad de expresar con imágenes un tiempo convertido en espacio, y de compartirlas. Observando las fotos que él mismo realizó de P.E.S.A. surge la duda de quién domina a quién, el hombre a la máquina o la máquina al hombre. Se presentan tan sólidas, fuertes, volumétricas, y a la vez tan dóciles, que cuesta dejar de mirarlas. David y Goliat; hombre y máquina, condenados a vivir juntos. Los ojos con los que mira las fotos de los fotógrafos que le antecedieron, algunas verdaderas obras de arte, son los de un experto en fotografía, los del respeto por la historia del lugar donde nació y creció, los de la devoción.

Gorka bajó de la luna aterrizando en Legazpi el 19 de julio de 1969, y al día siguiente Armstrong subió a ella dando un gran paso…, no parece baladí pensar que por ello los astros le han sido favorables, al menos lo han sido en este camino. Puede que incluso nos hayan puesto en la misma órbita, ambos somos "quintos" del 69. Y seguimos sumando curiosidades: el 19 de agosto de 2015, fecha que coincide con la presentación del daguerrotipo en París en 1839, se creó el "Gabinete de Detectives Photito" bajo los auspicios de la Virgen de la Uva de Fuenmayor... toda una casualidad que endulza las historias.

Este legazpiarra, o bien hace fotos, o bien recupera las de otros, porque sabe y siente que de este modo recupera su propia historia, la de su pueblo natal, Legazpi. Aunque su apellido, Salmerón, significa trigo que crece fuera del sembrado, un cordón umbilical le une sin fisuras a sus orígenes. Es encomiable la facilidad con que se ha enganchado a la Historia de la fotografía, el interés que muestra por recuperar la memoria gráfica de nuestros pueblos y el respeto con el patrimonio fotográfico. Todo ello con la ventaja que tiene partir del conocimiento de las técnicas fotográficas y los procesos químicos. Gorka es uno de esos casos con los que los técnicos que trabajamos en los archivos somos incapaces de no sentirnos atraídos y contagiados con las investigaciones ajenas, con el ímpetu y la viveza curiosa con que la ha abordado él. Aprender enseñando es uno de los grandes placeres de la vida. Yo también he ganado con esta historia.

Le avisé de los peligros embaucadores de la investigación, le advertí de que la Historia de la fotografía creaba adicción y de que se convertiría en vicio, pero no ha servido nada más que para alimentar su curiosidad y acrecentar su tesón. Se ha convertido en un avezado aprendiz que promete en las lides de la investigación histórica, pues trabaja desde las tripas, pero con mucha cabeza; el término fotohistoriador ya no le queda grande, y no ha dejado de ser, ante todo, fotógrafo. Con la intención de reconstruir la historia gráfica de Legazpi y de divulgar un fondo fotográfico de gran valor documental, ha contribuido a enriquecer la Historia de la fotografía de Euskadi, un patrimonio de todos.

Inicia Photito, cierra Salmerón Murgiondo, el último de la saga de los fotógrafos de P.E.S.A., unos por encargo, el último por afición y devoción. Aquel Gorka niño que quería conocer desde dentro la fábrica de Patricio Echeverría, en la que trabajó su abuelo, no podía imaginar que años después, en su madurez, pero con la curiosidad intacta, abanderara este proyecto lleno de esfuerzo, de ilusión y de originalidad. Él es un ejemplo de que hay que ser obstinados con nuestro proyecto personal, es la única manera de que salga adelante. Aquí está la prueba del llevado a cabo por Gorka "El Obstinado Salmerón", con mayúscula, con mucho respeto. Disfrútenlo.

Mª José Rodríguez Molina

Fotohistoriadora - Técnico del Archivo General y Fotográfico de la Diputación de Valencia

Atxurtegia (Argazki argiztatua). / ***Forja de Herramientas (Fotografía iluminada).*** **ca. 1930.** Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

Atxurtegia. / ***Forja de Herramientas.*** **1925.** Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

ARGITARA ALTXOR AHAZTUA:

Patricio Echeverría SA (PESA) lantegiaren argazkiak. 1918 - 1993.
Aceros Bellota enpresako argazkilariei buruzko oharrak

(Garai hartako grafia gorde da testuan, aipatutako toponimo eta izenetan, salbu eta batean:
Legazpi izenean –lehenago Legazpia izendatua– gaurko terminoa erabili baita)

LUZ PARA UN TESORO OLVIDADO:

Fotografías de Patricio Echeverría S.A. (P.E.S.A.). 1918 - 1993.
Notas sobre los fotógrafos de Aceros Bellota

(Se ha respetado la grafía de la época en los topónimos y nombres citados en los textos, salvo en una excepción:
en el caso de Legazpi -denominado anteriormente Legazpia- se ha utilizado el término actual)

Sarrera

Jakin-minak hainbat lani ekitera eraman nau etengabe, guztiak ere gure ingurua ezagutzeko asmoz, hurbilenekotik hasita. Ez dago oso urrun joan beharrik galdu eta distrakzio bat topatzeko, jardunaren poderioz afizio bihurtuko dena. Jakin-min hori, burugogorkeriarekin batera, itsumen bihur

Introducción

La curiosidad me ha animado constantemente a emprender diferentes actividades, todas ellas orientadas a conocer nuestro entorno, comenzando por el más próximo. No hace falta ir muy lejos para extraviarse y encontrar una distracción que con la práctica acaba convirtiéndose en afición. Esa curiosidad, unida



Atxurtegia. / ***Forja de Herramientas.*** **1924.** Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

daiteke. Nire lehen argazkiak hamabost urte besterik ez nituela errebelatu nituen, eta, urte gutxi batzuen buruan, bizi naizen inguruko historia markatu duen fabrika barnera sartzea lortu nuen. Halaxe sortu zen "Leaxpi Industri Paisaiak" seriea, batik bat 1990 eta 1993 artean egina Patricio Echeverría SA enpresaren instalazioetan. Lan hori berrikusi eta zabaldu egin dut ondoren, osatuta eta beste alde batzuetatik begiratuta.

Bildumako lehen argazkiak 1993an erakutsi nituen Errenteriako Gaspar galerian eta Zaragozako Spectrum izenekoan. Orduantxe, hain zuzen, mustra horiek prestatzen eta erakusteko kopiak markoan jartzen ari nintzela, jakin nuen bazela argazki-altxor handi bat, urte asko lehenago egina, nik pentsatu baino hobeto jasotzen zuena, zer eta nik neure argazkiarekin xaloki hartu nahi nuen hura. Hainbat argazkilari pasatuak ziren handik hainbat garaitan. Aitortzen dut "Leaxpi Industri Paisaiak" –hasiera batean–, eta neure aurretik faktoria argazkitan jaso zuten etxe komertzialei izena jartzeko lana –oraindik orain–, zeregin itsugarri bihurtu zirela azkenerako. Denboraren joanarekin, gazte garaietako, hasierako urteetako berezko xalotasunaz eta ezjakintasunaz hausnartzen dugu. Distantziak ezartzen duen ikuspegi horretatik berriro begiratzen diot gaiari, neure aurretik aritu ziren argazkilarietan zentratuz, haien lana zabaltzeko asmoz. Urtetan ahaztua edo utzixea egon den altxor horrek argitara irten behar zuen eta partekatua izan, zirenak zirela jakin-mina, burugogorkeria eta itsumena, edo horiei eskerrak beharbada. Beste behin ere, historia hau esku artean hartzen dut, zeina hor egon den beharbada etengabe, "fabrika" bera bezala.

"Fábrica de Herramientas Patricio Echeverría". ca. 1925. Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (IBS).

PESAko argazkilari hauei buruzko oharrak barru-barrutik sortu dira, erraietatik bezala. Jakin badakit nire espezialitatea ez dela argazkilaritzaren historia, baina ondare hau dibulgatzeko beharrak animatzen nau honako ohar hauek idaztera, gaindituz ene beldurra, menderatzen ez ditudan lur labanetan edo toki ezezagunetan sartzekoa. Gaian sartuta dagoen argazkilariaren [1] hurbilketa da, agertoki bera korrituz; urteak lehenago zenbait argazkilarik bista bikainak hartu zituzten alde hori korrituz, hain zuzen.

a la obstinación, puede llegar a convertirse en obsesión. Revelé mis primeras fotografías con apenas quince años, y unos pocos años más tarde conseguiría acceder al interior de la fábrica que ha marcado la historia de la zona donde resido. De esta forma surgió la serie "Leaxpi Industri Paisaiak", desarrollada principalmente entre 1990 y 1993 en las instalaciones de la empresa Patricio Echeverría S.A. Este trabajo ha sido revisado y ampliado posteriormente, completándolo y abordándolo desde otras perspectivas.

En 1993 exponía las primeras fotografías de la colección simultáneamente en Galería Gaspar de Errenteria (Gipuzkoa) y en Galería Spectrum de Zaragoza. Fue precisamente entonces, preparando esas muestras y tras enmarcar las copias para ser expuestas, cuando descubrí que existía un gran tesoro fotográfico realizado muchos años antes, el cual recogía mejor de lo que pudiera imaginar aquello que pretendía captar ingenuamente con mis fotografías. Diversos fotógrafos habían pasado previamente por allí en distintas épocas. Confieso que "Leaxpi Industri Paisaiak" -en un principio-, y la tarea de intentar poner nombre a las firmas comerciales que fotografiaron la factoría antes que yo -recientemente-, acabaron convirtiéndose en ocupaciones obsesivas. El paso del tiempo se encarga de hacernos reflexionar sobre la ingenuidad y el desconocimiento propios de la juventud, de los inicios. Desde esa perspectiva que marca la distancia vuelvo a curiosear sobre el tema, centrándome en los fotógrafos que me precedieron, con el propósito de divulgar su trabajo. Ese tesoro olvidado o desatendido durante años tenía que salir a la luz y ser compartido, al margen de la curiosidad, la obstinación y la obsesión, o también gracias a ellos. Una vez más vuelvo a retomar esta historia, que quizás ha estado ahí constantemente, como "la fábrica".

Estas notas sobre los fotógrafos de P.E.S.A. surgen desde las tripas, como una expresión visceral. Soy consciente de que mi especialidad no es la historia de la fotografía, pero la necesidad de divulgar este patrimonio me anima a escribir los siguientes apuntes, venciendo el temor a sumergirme en arenas movedizas o territorios desconocidos que no domino. Se trata de la aproximación del fotógrafo implicado [1] en el tema, recorriendo el mismo escenario, ese espacio en el que años antes distintos fotógrafos tomaron vistas excelentes.

Sutegiak. / ***Fraguas.*** **1922.** Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

Esmerilak. / ***Esmeriles.*** **1921.** Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

PESAko argazkilariak

Patricio Echeverría SA enpresa izan da Gipuzkoako Legazpi udalerria garatzeko ardatz motorra XX. mendean. Legazpiren historia, Euskadiko beste eskualde askorena bezalaxe, burdinaren tradizioari eta kulturari lotuta dago. Inguru honetan burdina landu izan da mendeetan. Milaka urteko tradizio horrek hiru aldi ditu: lehenik eta behin, garai batean, olagizonek mendian lan egiten zuten haizeoletan; hurrengo aldian, gurpil hidraulikoa asmatzeaz

Los fotógrafos de P.E.S.A.

Patricio Echeverría S.A. ha sido el eje motor del desarrollo de Legazpi (Gipuzkoa) en el siglo XX. La historia de Legazpi, al igual que la del resto de muchas comarcas de Euskadi, está unida a la tradición y a la cultura del hierro. En la región se ha elaborado hierro durante siglos. Esta tradición milenaria se divide en tres épocas: antiguamente los ferrones trabajaban en los montes, en "haizeolas" o ferrerías de aire. En la siguiente fase, gra-

Erreminten erakusgaiak (Argazki argiztatua). / ***Muestrarios de herramientas (Fotografía iluminada)***. Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

geroztik, "zeharroletan" edo urak eragindako burdinoletan lan egitera igaro ziren, Urola ibaiaren ertzean; hirugarren eta azken aldia, berriz, Patricio Echeverríaren faktoriari dagokiona da [2], 1908an hasi eta 1992an zenbait enpresatan banatu zen arte. PESAko instalazio zaharretako fundizioan, azken galda edo kolada 2008ko azaroan egin zen [3]. Geroztik ez da berriro burdinarik urtu Legazpiko faktoria horretan.

Enpresak hamabi langileko plantilla zuen XX. mende hasieran, eta 1970eko hamarkada bukaeran 3.500 enplegatu izatera heldu zen: udalerriko lanpostu industrialen % 78, alegia [4]. Inguruko hiri-garapen osoa "fabrika"ren mende egon da, joan den mendeko ia bukaera arte iraun duen sistema ia feudal moduko batean.

"Bellota" publizitatea. / ***Publicidad "Bellota".*** **1932.** (CPESA).

"Bellota" markako altzairu finak, PESAk eskuz eginak, sona handikoak izan dira beren kalitateagatik. Patricio Echeverría Elorzak, produktu bikainak eskaintzeko asmoari leial izanik, argazkilaririk onenen zerbitzuak kontratatu zituen zenbait hamarkadatan, bere erremintak iragartzeko eta saltzeko. Irudi horiek haren erreminta katalogoetan erreproduzitu ziren –batzuetan argiztatu edo ukitu ondoren– eta formatu handiko kopiak erakutsi ziren, Echeverriak bere produktuak erakusten zituen azoketako estandetan. Enkarguz egindako argazki-bilduma honen bitartez, ibilbide bat egin daiteke 1918tik –enpresa fundatu eta hamar urtera– 1960ko hamarkada pasatxora arte, izena herrialdean hazten eta zabaltzen den heinean.

Ugari dira aldi horretan PESAren instalazioak erretratatu zituzten argazkilariak. Batzuk izen ezagunak dira, eta ez da zaila izan haien lanari buruzko dokumentazioa jasotzea. Esaterako, hori gertatzen da jatorri alemaniarreko Willy Koch donostiarrarekin, Pando madrildarrarekin, Bartzelonako TAF enpresa aeronautikoarekin edo Donostian finkatutako Pascual Marín tuterarrarekin. Pando artxiboa Espainiako Ondare Kulturalaren Institutuak (IPCE, gaztelaniazko siglen arabera) zaintzen du; TAF artxiboa, Kataluniako Artxibo Nazionalak, eta, azkenik, Marínen funtsa, Kutxa Fototekak. Erakunde horiek arduratzen dira haien lanak zabaltzeaz eta

cias a la invención de la rueda hidráulica, pasaron a trabajar en "zeharrolas" o ferrerías de agua, a orillas del río Urola. El tercer y último periodo corresponde a la factoría de Patricio Echeverría [2], que desarrolló su actividad desde 1908 hasta desmembrarse en diversas empresas en 1992. La última colada realizada en la fundición de las antiguas instalaciones de P.E.S.A. tuvo lugar en noviembre de 2008 [3]. Desde entonces no se ha vuelto a fundir hierro en esos talleres.

La empresa, que contaba con una plantilla de 12 hombres a comienzos del siglo XX, llegó a tener unos 3.500 empleados a finales de la década de los 70: el 78 % de los puestos industriales del municipio [4]. Todo el desarrollo urbanístico de la zona ha dependido de "la fábrica", en una especie de sistema casi feudal que se mantuvo hasta finales del pasado siglo.

Los aceros finos de la marca "Bellota" manufacturados por P.E.S.A. han sido reconocidos por su calidad. Patricio Echeverría Elorza, manteniéndose fiel a la premisa de ofrecer productos excelentes, contrató los servicios de los mejores fotógrafos durante varias décadas para publicitar y vender sus herramientas. Estas imágenes fueron reproducidas en sus catálogos de herra-

Legazpi. © Lucio Vergara Machicote. (LVF).

ezagutarazteaz. Erakusketak egin dira eta erreseinak publikatu Koch [5] eta Marín [6] argazkilarien lanaz, baina apenas idatzi da ezer beste egileei buruz, aipatutakoen mailakoak izan arren. Funts honi buruz egindako ikerketak zenbait emaitza eman ditu. Batzuetan datu kontraesankorrak eskuratu dira, eta beste batzuetan, aldiz, ezusteko gozo eta argigarriak. Ez dago informazio xeherik argazki guztien egiletzari eta garaiari buruz. Jasotako dokumentazioa osatu gabe geratzen da, horrelako zereginetan ohikoa izaten den bezala. Ohar hauek balioko dute, beharbada, XX. mendean Legazpitik igaro ziren argazkilarien ibilbidean sakontzeko eta ikertzeko.

Egile esanguratsuek Legazpin hartutako lehendabiziko irudien serieak etxe oneko bi afizionatuk eginak ziren; XX. mende hasieran argazkilaritzan aritzeko sosak zituzten bi lagunek, hain zuzen. Ez ziren Legazpin bizi, baina senitartekoak zituzten bertan. Enrique Guinea gasteiztarra eta Ignacio Aguirre madrildarra maiz etorri ziren herrira bisitan.

Enrique Guinea sortzez gasteiztarra zen, baina ama jaiotzez Legazpiko Bikuña jauregikoa zuen [7]. Enrique Guinea Maquibar

mientas -en ocasiones tras ser iluminadas o retocadas-, y copias fotográficas de gran formato fueron exhibidas en los stands de las ferias donde Echeverría mostraba sus productos. A través de esta colección de fotografías realizadas por encargo se puede realizar un recorrido desde 1918 -diez años después de la fundación de la empresa- hasta pasados los años 60, en el que se observa el crecimiento y la expansión de la firma en el territorio.

Son numerosos los fotógrafos que retrataron las instalaciones de P.E.S.A. durante este periodo. Algunos son figuras reconocidas y no ha sido difícil recabar documentación sobre su actividad. Es el caso del donostiarra de origen alemán Willy Koch, del madrileño Pando, la empresa aeronáutica T.A.F. de Barcelona o el tudelano afincado en Donostia Pascual Marín. El Instituto del Patrimonio Cultural de España (I.P.C.E.) custodia el Archivo Pando, el Arxiu Nacional de Catalunya el Archivo T.A.F. y Kutxa Fototeka el fondo de Marín. Estas instituciones se encargan de divulgar y dar a conocer sus obras. Se han realizado exposiciones y publicado reseñas sobre la obra de Koch [5] y Marín [6], pero apenas se había escrito sobre los otros autores cuyos trabajos están a la altura de los citados anteriormente. La investigación realizada sobre este fondo ha proporcionado resultados diversos. En algunos casos se han obtenido datos contradictorios y a veces, sorpresas gratificantes y clarificadoras. No hay información detallada acerca de las fechas y autoría de todas las fotografías. La documentación recabada queda incompleta, como suele ser habitual en este tipo de tareas. Estos apuntes quizás puedan contribuir a seguir profundizando e investigando acerca de la trayectoria de los fotógrafos que pasaron por Legazpi a lo largo del siglo XX.

Las primeras series de imágenes de autores relevantes captadas en Legazpi corresponden a dos aficionados acomodados que podían permitirse practicar la fotografía a comienzos del siglo XX. No residían habitualmente en la localidad, pero tenían vínculos

1874ko uztailaren 16an jaio zen. Merkataritza ikasi zuen Bordelen, eta han ikasi zituen teknika fotografikoaren oinarriak. Juan anaiarekin batera, burdindegi eta aparatu sanitarioen saltoki bat izan zuen Gasteizen, eta argazkilaritza zuen afizio. Guineak argazki asko egin zituen Legazpin, oso landuak eta oso ederrak. Enrique Guinea funtsak 10.000 plaka baino gehiago eta ia 4.000 fotogramadun pelikula-erroilu ditu, eta Gasteizko Udal Artxiboan dago gordeta [8].

Ignacio Aguirre Montegik denboraldi luzeak ematen zituen Legazpin, udaletxearen aurrean dagoen egungo Correos eraikinean. Haren aita –Miguel Ignacio– Legazpiko Igeraldegarakoa baserrian jaio zen, eta Kubara alde egin behar izan zuen, baserria anaia zaharrenaren esku geratu baitzen. Kuban aberastu ondoren, ezkondu eta Madrilen jarri zen bizi izaten. Haren seme Ignacio –argazkilaria– Madrilen jaio zen 1861ean, eta bizimodu erosoa izan zuen aitaren fortunari esker. Gaztetan Bordelen lan egin zuen, eta uste dugu hiri hartantxe ikasi zuela argazkilaritza-teknika. Burdinola elkarteari esker berreskuratu eta digitalizatu nuen haren artxibo fotografikoa 2005ean: 400 bat plaka estereoskopiko eta ia 30 plaka 9 x 12 cm-koak, 1900 eta 1908 bitartekoak. Bere bidaietan, Aguirre hasi Tanger aldetik eta Rhin-era bitarte guztian ibili zen; penintsularen parte handi bat zeharkatu zuen, kaleak, haurrak, monumentuak, paisaiak, ilunabarrak eta bitxikeriak jasoz, 1900eko eklipsea, esaterako. Bere inguru atsegina erretratatu zuen –ahaideak eta lagunak–, bai eta gizarte-maila txiroenen bizimodua ere, begiratu urrun eta lotsatiz, baina duintasunez. Plaka gutxik iraun dute. Legazpi eta inguruko dozena bat argazki besterik ez ditu [9].

Ez da argazkilari profesionalik izan Legazpin 1949ra arte. Hala, Luis López Rodríguezek, Correoseko estafetako administratzaileak, bere gain hartu zuen liburu erabiliak saltzeko establezimendu bat garai hartako Santa Cruz kaleko 4. zenbakian, eta hantxe

familiares en Legazpi. El vitoriano Enrique Guinea y el madrileño Ignacio Aguirre visitaron la población con frecuencia.

Enrique Guinea era natural de Gasteiz, pero su madre era originaria del Palacio Bikuña de Legazpi [7]. Enrique Guinea Maquibar nació el 16 de Julio de 1874. Estudió comercio en Burdeos, donde aprendió los fundamentos de la técnica fotográfica. Junto con su hermano Juan regentó un comercio de ferretería y aparatos sanitarios en Gasteiz, compaginando esta actividad profesional con su afición a la fotografía. Guinea hizo numerosas fotografías, muy elaboradas y de gran belleza en Legazpi. El fondo de Enrique Guinea, compuesto por más de 10.000 placas y casi 4.000 fotogramas de película en rollo, se conserva en el Archivo Municipal de Gasteiz [8].

Ignacio Aguirre Montegui pasaba largas temporadas en su casa de Legazpi, actual edificio de Correos situado frente al ayuntamiento. Su padre -Miguel Ignacio- nació en el caserío Igeral-

Legazpi. ca. 1902. © Ignacio Aguirre Montegui. (BUR).

Carmen Aguirre, Ignacio Aguirre. ca. 1902.
© Ignacio Aguirre Montegui. (BUR).

Santurunea, Legazpi. ca. 1902. © Ignacio Aguirre Montegui. (BUR).

degarakoa de Legazpi, teniendo que emigrar a Cuba al quedar el caserío en manos de su hermano mayor. Tras enriquecerse en Cuba y casarse Miguel Ignacio se instaló en Madrid. Su hijo Ignacio -el fotógrafo- nació en Madrid en 1861, llevando una vida cómoda gracias a la fortuna de su padre. Trabajó de joven en Burdeos, ciudad en la que pudo aprender la técnica fotográfica.Gracias a la agrupación Burdinola recuperé y digitalicé su archivo fotográfico en 2005: unas 400 placas estereoscópicas y casi una treintena de placas de 9 x 12 cm datadas entre 1900 y 1908. En sus viajes Aguirre recorrió desde Tánger hasta el Rhin, atravesó gran parte de la península recogiendo imágenes de calles, niños, monumentos, paisajes, atardeceres y curiosidades como el eclipse de 1900. Fotografió su entorno apacible -familiares y amigos-, retratando el medio de vida de las clases sociales más pobres con una mirada distante y tímida, pero digna. Son pocas las placas que han perdurado. Apenas se conservan en torno a una docena de fotografías suyas de Legazpi y los alrededores [9].

No ha habido fotógrafos profesionales en Legazpi hasta 1949. Luis López Rodríguez, administrador de la estafeta de Correos, se hizo cargo de un establecimiento de venta de libros usados en el nº 4 de la calle Santa Cruz, donde instaló un estudio fotográfico. Su actividad duró unos pocos meses, hasta marzo de 1950, año en el que López marchó de Legazpi. Felipe Bueno retrató a las gentes de la comarca desde 1929 en Zumárraga y Urretxu durante varias décadas [10]. Tenemos constancia de otros profesionales que trabajaron en la zona previamente: Pedro Aramburu en Villarreal de Urrechua (1908) [11], Alfonso Olaechea en Zumárraga (1920) [12], y Vicente Aguirre en Villarreal de Urrechua (1921) [13]. Santiago Gabiria inauguró en el año 1954 el primer establecimiento fotográfico de Legazpi que perduró durante más de una década. Foto Gabiria recogió en imágenes la vida social y los cambios urbanísticos de la localidad

jarri zuen estudio fotografikoa. Haren jardunak hilabete bakar batzuk iraun zituen, 1950eko martxora arte, urte hartan alde egin baitzuen Lópezek Legazpitik. Felipe Buenok eskualdeko jendea erretratatu zuen 1929an hasi eta zenbait hamarkadatan, Zumarragan eta Urretxun [10]. Jakin badakigu beste profesional batzuk ere aritu zirela inguruan aurretik: Pedro Aramburu, Villarreal de Urrechuan (1908) [11], Alfonso Olaechea Zumarragan (1920) [12], eta Vicente Aguirre, Villarreal de Urrechuan (1921) [13]. Santiago Gabiriak inauguratu zuen, 1954an, hamarkada bat baino gehiago iraun zuen Legazpiko lehen argazki-establezimendua. Foto Gabiriak iruditan jaso zituen 1967 arteko herriko bizitza soziala eta hirigintza-aldaketak, urte hartan transferitu baitzuen negozioa Jesús Mari Andueza Ugarteren eskuetara –Foto Andueza–. Aurreko bi hamarkadetan, Felipe Bueno inguruan lehiatzailerik gabe ibili zen. Eskualdeko merkataritza fotografikoa aldatu egin zen 1954an, Gabiria merkatuan sartzean. Antzeko zerbait gertatu zitzaion Santi Gabiriari 1955ean, José Vierbücher Llopis-ek Zumarragan Foto Luz estudioa ireki zuenean. Era berean, 1960an, Bienvenido Maestro Marcos hasi zen lanean Urretxun, Foto Maestro izenarekin. Bost argazkilari profesional aritu ziren lanean ia lau hamarkadatan (1929 - 1967) Urola Garaia eskualdean (Legazpi, Zumarraga eta Urretxu): Bueno, López, Gabiria, Vierbücher eta Maestro [14].

Palategia. / *Palas.* 1923. Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

Hasiera batetik bertatik, Patricio Echeverríak beste argazkilari batzuk bilatu zituen, beharbada espezializatuagoak edo izen handikoak, eta hala kontratatu zituen Donostia, Bilbo, Madril eta Bartzelonako profesionalak bere tailerrak argazkitan jasotzeko. Echeverríaren azken garaian hasi ziren herriko argazkilariak harentzat lanean; 1960ko hamarkadan, alegia.

hasta 1967, fecha en la que traspasó su negocio a Jesús Mari Andueza Ugarte -Foto Andueza-. En las dos décadas previas era Felipe Bueno quien ejercía sin competencia en la zona. El panorama del comercio fotográfico de la región cambió en 1954 con la irrupción de Gabiria en el mercado. Algo similar le ocurrió a Santi Gabiria en 1955, al abrir José Vierbücher Llopis el estudio Foto Luz en Zumárraga. A su vez en 1960 Bienvenido Maestro Marcos comenzó a trabajar en Urretxu con la firma Foto Maestro. Fueron cinco los fotógrafos profesionales que desarrollaron su actividad durante casi cuatro décadas (1929 - 1967) en la comarca de Urola Garaia (Legazpi, Zumárraga y Urretxu): Bueno, López, Gabiria, Vierbücher y Maestro [14].

Desde un principio Patricio Echeverría buscó a otros fotógrafos, quizás más especializados o de renombre, contratando a profesionales de San Sebastián, Bilbao, Madrid y Barcelona para fotografiar sus talleres. Es en su última época, en los años 60, cuando los fotógrafos locales comenzaron a trabajar para él.

Atxurtegia. / ***Forja de Herramientas.*** **1922.** Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

Atxurtegia. / ***Forja de Herramientas.*** **1922.** Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

Esmerilak. / ***Esmeriles.*** **1918.** Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

Lehendabiziko irudiak. 1918 - 1924

Funts honetako argazkirik zaharrena 1918an egina dago. Ez dago informaziorik Patricio Echeverríak agindu zituen lehen argazki-erreportajeen egileei buruz. Hogeita hamar kopia eta gehiago dira, batere izen edo zigilurik gabekoak, 1918 eta 1924 bitartean eginak. Horien artean aurkitzen dugu emakume langileak agertzen diren argazki bakarra: Kirtenen tailerrean ateratakoa da, 1923an datatua. Erabilitako formatu handiko kamerak, len-

Las primeras imágenes. 1918 - 1924

La fotografía más antigua de este fondo está realizada en 1918. No hay información alguna sobre la autoría de los primeros reportajes fotográficos que encargó Patricio. Son más de una treintena las copias sin firma ni sello alguno efectuadas entre 1918 y 1924. Entre ellas encontramos la única imagen en la que aparecen trabajadoras: se trata de una fotografía del Taller de Mangos datada en 1923. Las cámaras de gran formato utilizadas, junto

con la escasa luminosidad de las lentes y la baja sensibilidad de las emulsiones de la época condicionaban el resultado final: las fotografías son estáticas, se observa a los obreros ante las máquinas adoptando una actitud de pose. Las imágenes están elaboradas, construidas, en las antípodas del reportaje y la instantaneidad en la que estamos inmersos hoy en día. Las copias están realizadas en pequeño formato, 13 x 18 cm pero tienen gran calidad y belleza. Algunas de ellas se reprodujeron en los primeros catálogos de herramienta editados por la empresa. Como suele ser habitual en estas publicaciones no se menciona a los fotógrafos.

Kirten tailerra. / *Mangos*. 1923.
Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

teen argitasun eskasak eta garai hartako emultsioen sentikortasun txikiak mugatu egiten zuten azken emaitza: argazkiak estatikoak dira, langileak makinen aurrean ageri dira, pose-jarrerarekin. Irudiak landuta daude, eraikiak, erreportajetik oso urrun, gaur egun ohituak gauden bat-batekotasunetik aldendurik. Kopiak formatu txikian eginda daude, 13 x 18 cm-koak. Baina oso onak eta ederrak dira. Horietako batzuk enpresak editatutako lehen erreminta-katalogoetan erreproduzitu ziren. Halako argitalpenetan ohi den bezala, ez dira argazkilariak aipatzen.

Atxurtegia. / *Forja de Herramientas.* ca. 1921-1922. Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

Photito. Argitu gabeko kontua

Photito Legazpin. 1919 - 1922

Ia hogei argazki daude *Photito - San Sebastián* zigiluarekin, eta horietan enpresariaren pabiloiak, tailerrak, makineria, bulegoak eta erretratuak ageri dira. Oraingo honetan ez dira ikusten langileak lanean; faktoriako makinek dute protagonismo osoa. Fabrikako tokiak hutsik ageri dira, salbu eta zakur bat almazenean eserita, ateratzeko prest dauden kaxen ondoan, edota enkargatu baten irudia atzean. Bitxia da, patroiaren bi erretratu daude, trajea eta gorbata jantzita posatzen, 1919an datatuta. Bietan burumakur ageri da Patricio, kamerari zuzen begiratu gabe. Horietako batean zutik dago –buruan txapela duela, ohikoa

Photito. La incógnita sin resolver

Photito en Legazpi. 1919 - 1922

Hay casi una veintena de fotografías con el sello Photito - San Sebastián *en las que se muestran pabellones, talleres, maquinaria, oficinas y retratos del empresario. En esta ocasión no se observan operarios trabajando, son las máquinas de la factoría las que poseen todo el protagonismo. Los espacios fabriles se presentan vacíos, salvo un perro sentado en el almacén junto a las cajas preparadas para su expedición, o la figura de un encargado al fondo. Curiosamente hay dos retratos del patrón, posando trajeado y con corbata, datados en 1919. En ambos Patricio se muestra cabizbajo, sin mirar directamente a la cámara. En uno de ellos permanece de pie -con una txapela en la cabeza, indumentaria habitual de los trabajadores en la época- junto a un martillo, en el "Atxurtegi" o Taller de Forja de Herramientas. En el otro retrato -una imagen trepidada- se le observa sentado en su despacho, revisando unos papeles en actitud reflexiva.*

Echeverría utilizó la imagen fotográfica con distintas finalidades, explotando sus recursos, principalmente para vender los productos que fabricaba, pero también para documentar su vida familiar y social junto con los diversos homenajes y reconocimientos que recibió. Las instantáneas recogen el testimonio de su presencia y la transformación del inmenso emporio en continuo crecimiento que construyó a su alrededor. Patricio era muy consciente de las posibilidades que le brindaba la fotografía -otro artefacto más de su empresa-, en este caso como dispositivo generador de imágenes, medio que utilizó inteligentemente a través de los distintos fotógrafos contratados para realizar esa tarea.

Patricio Echeverría. 1919. © Photito. (GSM).

garaiko langileen janzkeran– mailu baten ondoan, Atxurtegian edo erremintak forjatzeko tailerrean. Beste erretratuan –irudi dardaratua– bere bulegoan eserita ageri da, paper batzuk gainbegiratzen, gogoetatsu.

Echeverríak irudi fotografikoaren baliabideak hainbat helbururekin erabili zituen, batik bat fabrikatzen zituen produktuak saltzeko, baina baita bere sendi eta gizarte-bizitza dokumentatzeko ere, edota jaso zituen omenaldi eta aitortza ugariak biltzeko. Argazkiok haren presentziaren testigantza jasotzen dute, baita inguruan eraiki zituen languneen etengabeko hazkundeak ekarri zuen eraldaketa ere. Patricio oso ongi jabetzen zen argazkilaritzak, irudiak sortzeko gailu bezala, zer-nolako aukerak ematen zizkion –bere enpresako tresna bat gehiago zen–, eta bitarteko hori adimen handiz baliatu zuen kontratatu zituen argazkilarien bidez.

PESAri buruzko argazkirik zaharrenak, egile ezaguna dutenak, Photito etxeak sinatuak dira. Hainbat formatutako kopiak daude, tratamendu eta akabera desberdinekin, 1919 eta 1922 bitartean eginak. Argazki batzuk errepikatu egiten dira; izan ere, eszena berak aurkitzen ditugu sepia koloreko –sulfuroz biratuak– 29 x 39 cm formatuko argazki seriean eta 13 x 18 cm-ko beste irudi batzuetan bestelako entonazioa dute, zuri-beltz apalago eta ñabartuago batean. Denak daude neurri handiagoko kartonaje batean muntatuta, eta *Photito - San Sebastián* zigilua dute. Argazki bikainak dira, ederki eginak, prozesatuak eta aurkeztuak.

Enpresaren kontabilitatea erregistratzen duen 1921 eta 1927 bitarteko hornitzaileen liburuan agertzen dira PESAk Photito etxeari data horietan

Patricio Echeverría, Atxurtegia. / ***Patricio Echeverría, Forja de Herramientas.*** **1919.** © Photito. (GSM).

ofizialki egindako bi ordainketa bakarren xehetasunak, 1922. urteari dagozkionak: Photito etxeak 250 pezeta kobratu zituen apirilaren 20an. Konturako aurrerakin gisa, maiatzaren 12an 1.713 pezeta jaso zituen eskura; fakturaren kitapena maiatzaren 11koa da, 1.963 pezeta. Uztailaren 20an, Photito etxeak beste faktura bat aurkeztu zuen, abuztuaren 1ean ordaindu zitzaiona, 830 pezetakoa, alegia. Photitok bi bider egin zion faktura PESAri, eta ez da ageri oharretan zer zerbitzu eman zituen [15]. Photitok 1919 eta 1921ean ere egin zituen argazkiak Echeverríarentzat, baina ez da aurkitu dokumentaziorik horri buruz.

Bitxikeria gisa, gremio desberdinek 1920ko hamarkadan zituzten zerbitzuak eta tarifak alderatuta, esan dezagun Joaquín Murguiondo mutiloarrak faktura bat aurkeztu ziola Patricio Echeverríari 1922ko maiatzaren 31ko datarekin, eta lehen mailako 26.027 kg eta bigarren mailako 15.049 kg pago-enbor fakturatu zituen, 1.828,05 pezetatan; aldi berean, Photitok 2.793 pezeta kobratu zuen bere argazkiengatik [16]. Photitoren tarifak –41 tona pago enborren prezioaren aldean– gehiegizkoa dirudi, baina begi-bistakoa da enpresariak ez zuela zalantzarik

Argazki argiztatua. / ***Fotografía iluminada.***
Egile ezezaguna. / *Autor desconocido.* (GSM).

Las fotografías más antiguas sobre P.E.S.A. cuya autoría es conocida son las firmadas por Photito. Hay copias en distintos formatos, con diferentes tratamientos y acabados, ejecutadas entre los años 1919 y 1922. Algunas de las fotografías se repiten, ya que encontramos las mismas escenas en una serie de fotografías en formato de 29 x 39 cm de color sepia -viradas al sulfuro- y en otras imágenes de 13 x 18 cm con otra entonación en un blanco y negro más sutil y matizado. Todas ellas están montadas sobre un cartonaje de mayor dimensión y llevan el sello Photito - San Sebastián. *Son fotografías magníficas en lo que se refiere a su realización, procesado y presentación.*

Esmerilak. / ***Esmeriles.*** **1921**. © Photito. (GSM).

En el libro de proveedores que registra la contabilidad de la empresa entre 1921 y 1927 figuran los detalles de los únicos pagos realizados oficialmente a Photito por P.E.S.A. en esas fechas, correspondientes al año 1922: Photito cobró el 20 de abril 250 pts. Como adelanto a cuenta, y el 12 de mayo recibió en efectivo 1.713 pts., liquidación de su factura del 11 de mayo, por importe de 1.963 pts. El 20 de julio Photito presentó otra factura, que

Biltegia. /*Almacén.* 1919. © Photito. (GSM).

egin profesionalik onenen zerbitzuak kontratatzerakoan, bere Bellota produktuak ezagutarazteko asmoz.

Photito, Donostia. Manuel Mondragón eta Valentín Sierra

Photitori buruz dagoen informazioa eskasa da eta, iturriaren arabera, kontraesanez betea. Tomás Zurián jaunak, Nahui Olin artistaren lanari buruzko ikertzaile mexikarrak, Photitoren argazkien egiletza Manuel Mondragón jaunari egozten dio, izen bereko jeneralaren semeari. Manuel Mondragón, argazkilari mexikarra eta Nahui Olin (Carmen Mondragón) artistaren anaia, Donostian jarri zen bizi izaten bere familiarekin, aitak 1913an erbesteratu behar izan zuenean. Garai hartan argazki-estudio bat ireki zuen Photito izenarekin, Loyola kaleko 4. zenbakian [17]. Photitori buruzko beste erreseina batzuek, berriz, estudio horretan zenbait artistak egindako erakusketak aipatzen dituzte; esaterako, Elías Salaverría margolariarena, 1920ko otsailean zintzilikatu baitzituen bere margolanak Salón Photito izeneko aretoan [18].

se abonó el 1 de agosto, por un importe de 830 pts. Photito facturó en dos ocasiones a P.E.S.A. sin detallarse en las anotaciones el concepto de los servicios prestados [15]. Photito también realizó fotografías para Echeverría en 1919 y en 1921, pero no se ha encontrado documentación sobre las mismas.

Como curiosidad, efectuando una comparativa acerca de los servicios prestados por los distintos gremios y sus tarifas en los años 20, indicar que Joaquín Murguiondo -natural de Mutiloa- presentó una factura a Patricio Echeverría con fecha del 31 de mayo de 1922, en la que facturó 26.027 kg de troncos de haya de 1ª, y 15.049 kg de 2ª, por 1.828,05 pts. mientras que Photito cobró 2.793 pts. por sus fotografías [16]. La tarifa de Photito -en relación al precio de 41 toneladas de troncos de haya- podría parecer excesiva, pero resulta evidente que el empresario no dudó a la hora de contratar los servicios de los mejores profesionales que contribuyeran a publicitar los productos Bellota.

Photito, San Sebastián. Manuel Mondragón y Valentín Sierra

La información disponible sobre Photito es escasa y contradictoria en función de la fuente. Tomás Zurián, investigador mexicano de la obra de la artista Nahui Olin, atribuye la autoría de las fotografías de Photito a Manuel Mondragón, hijo del general del mismo nombre. Manuel Mondragón, fotógrafo mexicano y hermano de la artista Nahui Olin (Carmen Mondragón), se instaló en San Sebastián con su familia cuando su padre hubo de exiliarse en 1913. En esa época abrió un estudio fotográfico con el nombre de Photito, ubicado en el nº 4 de la calle de Loyola [17]. Otras reseñas sobre Photito se refieren a las exposiciones de diferentes artistas efectuadas en este estudio, como la del pintor Elías Salaverría, que colgó sus pinturas en Salón Photito en febrero de 1920 [18].

Photitori buruz Donostian ikertzen nenbilela, Edorta Kortadi artehistorialariari eta Xabier Arcelus kazetariari esker, Alejandra Ortiz Castañares arte mexikarreko historialariarekin jarri nintzen harremanetan (gaur egun Florentzian bizi da). Ortiz Castañares doktorego-tesia bukatzen ari zen une hartan Manuel Rodríguez Lozano pintoreari buruz, Carmen Mondragón (Nahui Olin) andrearen senarrari buruz, hain justu. Urte batzuk lehenago, mexikarra ikertzen aritua zen Lozano eta Mondragón sendien inguruan, eta informazio anitz bildu zuen Donostian bere doktorego-lanerako. Segidan, dokumentazio-truke bat hasi, eta hala zehaztu dira kontu batzuk eta iradoki beste galdera batzuk. Alejandrak eman zidan Photitori buruzko beste kontu ezezagun baten berri: Juan Antonio García Marcos kazetari eta historialari donostiarrak dio Photito estudioa Valentín Sierra iraultzaile errioxarrarena izan zela [19].

Vi por casualidad en el catálogo que poseo en mi archivo de la exposición de Salaverría en el Museo de San Telmo en Agosto de 1990 donde se citaba la muestra de 1920 en el Salón Photito, nunca había escuchado nada sobre este espacio. Hablando con Francisco Aranaz Darrás, una referencia en la historia artística de la ciudad en el siglo XX, marido de la sobrina de Valentín Sierra, me contó que Photito perteneció al tío de su esposa. Aranaz fue director de galería además de anticuario y creador del Certamen de Navidad, así como uno de los comerciantes que iniciaron en 1953 el Festival Internacional de Cine de San Sebastián [20].

Tomás Zurián eta García Marcosen bertsioek bat ez datorren informazioa ematen dute Photitori buruz. Bitxia da nola, Mondragón eta Sierra arteko nahasmena argitu nahian, beste izen eta erreferentzia batzuk sortu diren datu berriak eskuratzean; halaxe korapilatu da kontua, eta azkenik gabeko kontakizun bihurtu zaigu.

Carmen Mondragón - Nahui Olin

Mondragón familiari buruz eskura daitekeen informazioa Tomás Zuriánen ikerketei zor zaie. Ondoren erreferentziak aberastu egin dira Alejandra Ortizen ekarpenei esker. Tomás Zuriánek dio Photito –argazkilaritza artistikoko estudioa– Manuelena izan zela, Carmen Mondragónen neba nagusiarena. Carmenek familiako argazkiak gorde zituen, "Photito" zigiludunak, bai eta estudioko zenbait dokumentu ere. Zuriánek baieztatzen du Manuel Mondragón espainiar batekin asoziatu zela negozioa jartzeko [21]. Carmenek Donostiako egonaldian egin zituen lehendabiziko karikaturak, 1914 eta 1921 bitartean. Marrazki horietako batzuk, hain justu, nebak argazkietarako erabiltzen zituen poltsen gainean egin zituen [22].

Indagando en Donostia sobre Photito, gracias al historiador de arte Edorta Kortadi y al periodista Xabier Arcelus, en mayo de 2015 contacté con la historiadora de arte mexicana -afincada en Florencia- Alejandra Ortiz Castañares. Alejandra remataba en ese momento su tesis doctoral sobre el pintor Manuel Rodríguez Lozano, marido de Carmen Mondragón (Nahui Olin). Años antes Alejandra había investigado sobre Lozano y los Mondragón, recabando abundante información en Donostia para su trabajo de doctorado. Seguidamente se inició un intercambio de documentación que ha permitido precisar ciertas cuestiones y sugerir otra serie de interrogantes. Alejandra me informaba sobre otra nueva incógnita acerca de Photito: El periodista e historiador donostiarra Juan Antonio García Marcos sostiene que el estudio Photito perteneció a Valentín Sierra, un riojano revolucionario [19].

Vi por casualidad en el catálogo que poseo en mi archivo de la exposición de Salaverría en el Museo de San Telmo en Agosto de 1990 donde se citaba la muestra de 1920 en el Salón Photito, nunca había escuchado nada sobre este espacio. Hablando con Francisco Aranaz Darrás, una referencia en la historia artística de la ciudad en el siglo XX, marido de la sobrina de Valentín Sierra, me contó que Photito perteneció al tío de su esposa. Aranaz fue director de galería además de anticuario y creador del Certamen de Navidad, así como uno de los comerciantes que iniciaron en 1953 el Festival Internacional de Cine de San Sebastián *[20].*

Las versiones de Tomás Zurián y García Marcos aportan información discordante sobre Photito. Curiosamente, intentando aclarar el enredo entre Mondragón y Sierra, al encontrar nuevos datos han ido surgiendo distintos nombres y referencias, complicándose el asunto y convirtiendo esta historia en una especie de culebrón.

Carmen Mondragón - Nahui Olin

La información disponible sobre la familia Mondragón se debe a las investigaciones realizadas por Tomás Zurián. Posteriormente las referencias se han enriquecido gracias a las aportaciones de Alejandra Ortiz. Tomás Zurián sostiene que Photito -un estudio de fotografía artística- perteneció a Manuel, el hermano mayor de Carmen Mondragón. Carmen guardó fotos de la familia con el sello "Photito" y algunos documentos del estudio. Zurián afirma que Manuel Mondragón se asoció con un español para instalar el negocio [21]. Carmen realizó sus primeras caricaturas durante su estancia en San Sebastián entre 1914 - 1921. Algunos de esos dibujos los efectuó sobre las bolsas que utilizaba su hermano para las fotografías [22].

Nahui Olin, María del Carmen Mondragón Balseca (1873 - 1978), margolaria eta olerkaria izan zen. Mexikora 1921ean itzuli ostean Manuel Rodríguez Lozano senarrarengandik banandu zen. Mexikon nazionalismoa eta iraultza-gogoa pil-pilean zeuden garai hartan, eta artistek herrialdea berreraikitzen esku hartu nahi zuten. Carmenek Mexikoko kulturaren eta artearen alorreko pertsonaia ezagunekin harremana izan zuen: Diego Rivera, Frida Kahlo, Lola Álvarez Bravo, David Alfaro Siqueiros, Clemente Orozco, Tina Modotti edota Edward Weston. Mexikon egin zuen egonaldian, Edward Weston argazkilariak bere adiskide Tina Modotti betikotu zuen, baita Carmen Mondragón ere, biluzik posatu baitzuen estatubatuarraren kamera aurrean. Nahui Olinek Antonio Garduño argazkilari mexikarrarentzat ere posatu zuen, bai eta Diego Riverak egindako mural batzuetarako ere. Carmen bere etxe-estudioan hil zen Mexiko Hirian 1978an, Tacubaya sorterritik oso gertu. Alejandra Osoriok adierazten duenez, Olinen lana ahaztuta geratu zen, harik eta Tomás Zuriánek lehen erakusketa bat eskaini zion arte Mexiko Hiriko Diego Rivera Museo Estudioan 1992 eta 1993an. Zurián hil berri zen Dr. Atl margolariaren etxera joan zen 1978an, haren 54 lan ebaztera, eta txundituta geratu zen han aurkitu zuen Carmen Mondragónen argazki batekin. Ordutik, Tomás Zuriánek ez dio utzi Nahui Olini buruz ikertzeari [23].

Carmen Mondragón Balseca. 1917.
© Manuel Mondragón Balseca. (TZU).

Nahui Olin - María del Carmen Mondragón Balseca (1873 - 1978) fue pintora y poetisa. Tras su regreso a México en 1921 se separó de su marido Manuel Rodríguez Lozano. Eran años de efervescencia nacionalista y revolucionaria en México y los artistas querían tomar parte en la reconstrucción del país. Carmen se relacionó con personajes reconocidos de la cultura y el arte en México: Diego Rivera, Frida Kahlo, Lola Álvarez Bravo, David Alfaro Siqueiros, Clemente Orozco, Tina Modotti y Edward Weston. Durante su estancia en México el fotógrafo Edward Weston inmortalizó a su compañera Tina Modotti, y también a Carmen Mondragón, que posó desnuda ante la cámara del estadounidense. Nahui Olín también posó para el fotógrafo mexicano Antonio Garduño y para varios murales realizados por Diego Rivera. Carmen falleció en su casa-estudio de la ciudad de México en 1978, ubicada en Tacubaya, muy cerca de donde nació. Según indica Alejandra Osorio, la obra de Olín quedó en el olvido hasta que Tomás Zurián le dedicó una primera exposición en el Museo Estudio Diego Rivera de la Ciudad de México en 1992 - 1993. Zurián había acudido en 1978 a la casa del recientemente fallecido pintor Dr. Atl para dictaminar sobre 54 obras suyas, quedando fascinado por una fotografía que encontró allí de Carmen Mondragón. Desde entonces Tomás Zurián no ha dejado de investigar sobre Nahui Olin [23].

Ezagutu al zuen –edo izan al zuen harremanik– Manuel Mondragónek Tina Modotti eta Edward Westonekin? *No, imposible que lo hubieran tenido. Toda la familia de Carmen era adversa al mundo bohemio con el que tenía contacto. Weston sí le realizó distintas fotografías a Carmen, algunas de las cuales son muy famosas y fueron mostradas en una exposición dedicada a Weston y Modotti en el Museo de arte Moderno del D.F., hace unas semanas* [24].

¿Conoció -o tuvo algún contacto- Manuel Mondragón con Tina Modotti y Edward Weston? No, imposible que lo hubieran tenido. Toda la familia de Carmen era adversa al mundo bohemio con el que tenía contacto. Weston sí le realizó distintas fotografías a Carmen, algunas de las cuales son muy famosas y fueron mostradas en una exposición dedicada a Weston y Modotti en el Museo de arte Moderno del D.F., hace unas semanas *[24].*

"Gabinete de Detectives Photito"

Alejandra Ortizek beste datu batzuk jaso zituen bere ikerketan, eta Tomás Zuriánekin eta García Marcosekin kontrastatu zuen informazioa. Era berean, Photitok Legazpin sinatutako argazkiek beste galdera batzuk ekarri zituzten, Rodríguez Lozano jaunari buruzko erreferentziak eta Mondragón sendiari buruzkoak bilatzean.

Photitori buruz dokumentazioa biltzeko zeregin horretan, 2015eko abuztuan, fotohistorialaria eta Valentziako Diputazioko Argazki Artxibategi

"Gabinete de Detectives Photito"

Alejandra Ortiz recabó nuevos datos en su investigación, contrastando la información con Tomás Zurián y García Marcos. A su vez las fotos firmadas por Photito en Legazpi plantearon otra serie de interrogantes en su búsqueda de referencias sobre Rodríguez Lozano, el marido de Carmen, y los Mondragón.

En esta tarea de recabar documentación sobre Photito, en agosto de 2015, contacté con la fotohistoriadora y técnico del Archivo

Bulegoak. / *Oficinas.* 1919. © Photito. (GSM).

eta Artxibategi Orokorreko teknikaria den María José Rodríguez Molina andrearekin jarri nintzen harremanetan; *Directorio de Fotógrafos en España (1851 - 1936)* liburuaren egileetako bat da, eta argitalpen honi hitzaurrea egin dion emakumea. María Josék taldearekin bat egin ostean, eratuta geratu zen "Gabinete de Detectives Photito", Legazpin, Florentzian eta Valentzian egoitzak zituena. *Directorio de Fotógrafos* liburuak albiste berriak ekarri zituen Photitori buruz, Irun eta Hondarribiakoak, Donostiatik gertu. Albiste horien arabera, Photito Valentín Sierrarekin kidetuta ageri da, baina baita beste izen batekin ere: Inocencio Fadrique argazkilariarekin. Photitori buruzko bilbea gero eta nahasiagoa zen.

de la Diputación de Valencia Mª José Rodríguez Molina, coautora del libro Directorio de Fotógrafos en España (1851 - 1936) *que prologa esta publicación. Al sumarse Mª José al grupo quedó constituido el "Gabinete de Detectives Photito", con sedes en Legazpi, Florencia y Valencia. El* Directorio de Fotógrafos *aportó nuevas noticias sobre Photito en las localidades de Irún y Fuenterrabía -cerca de San Sebastián-, donde Photito figura asociado a Valentín Sierra, pero también a otro fotógrafo: Inocencio Fadrique. La trama en torno a Photito se iba complicando cada vez más.*

Datu-bilaketan erabakigarriak izan dira María Josék duen eskarmentua, baita haren ekarpenak eta sintesi-gaitasuna ere, beste ondorio batzuk ateratzeko arrastoak batzerakoan. Taldean egindako lanari esker, zalantza batzuk argitu dira Photitori buruz, baina oraindik airean daude galdera asko, erantzunik gabe. Mondragón sendiaren historia erabateko abentura da, eta Valentín Sierrarenak ere ez du, ez, asper-unerik. Bistakoa da biek sinatu zituztela beren lanak Photito sinadurarekin garai desberdinetan, baina ezin izan da egiaztatu, noiz, non eta nola topo egin ote zuten bi pertsonaiek.

La experiencia de Mª José en la búsqueda de datos, sus aportaciones y capacidad de síntesis han sido decisivos a la hora de ir hilando las pistas para obtener nuevas conclusiones. Gracias al trabajo en equipo se han despejado algunas dudas en relación a Photito, pero todavía quedan en el aire muchas preguntas sin respuesta. La historia de los Mondragón es toda una aventura y la de Valentín Sierra tampoco tiene desperdicio alguno. Es evidente que ambos firmaron sus trabajos con la firma Photito en distintas épocas, pero no se ha podido constatar cuándo, dónde y cómo pudieron coincidir los dos personajes.

Esmerilak. / ***Esmeriles.*** **1921**. © Photito. (GSM).

Mondragón sendia, Donostian erbesteratuta. Manuel Mondragón Balseca, argazkilari

Manuel Mondragón y Mondragón jeneral mexikarra gerrarako armen asmatzailea izan zen, eta patenteak mundu guztian saldu zituen. Frantzian bizi izan zen bere familiarekin 1897 eta 1905 artean, Cañón Mondragón izeneko arma Saint-Chamond armafabrikan perfekzionatzeko asmoarekin [25]. Jenerala Mexikoko presidente Francisco Ignacio Maderoren erailketan inplikatu zuten, eta horregatik Parisera erbesteratu zen. Lehen Mundu Gerra hasi zenean, Mondragón sendiak Frantziatik alde egin behar izan zuen, eta, hala, Donostian jarri ziren bizi izaten 1914an [26].

Manuel Mondragón Balseca Mexikon jaio zen 1887ko otsailaren 27an. Herrialdea 1913an utzi, eta gauza bera egin zuten Carmenek eta haren bi neba gazteagoek 1914ko abuztu inguruan [27]. 1916an Manuel Donostian zegoen erroldatuta, Centenario plazako 1. zenbakiko 3. solairuan. Bi urte eta bi hilabete eginak zituen hirian bizitzen, eta merkataria zen lanbidez. Manuel María Teresa Jaimes izeneko emakumearekin ezkonduta zegoen, zeina etxe berean bizi baitzen Mondragón familiarekin. 1917an helbide hortantxe zeuden, baina 1918an –Mondragónek bere argazkilaritza-negozioa ireki zuen urtean– ez zen gehiago bizi gurasoekin, ez arreba Carmenekin, ez Manuel Rodríguez Lozano eta gainerako ahaideekin. Urte bete lehenago, 1917an, hamabost lagun bizi ziren elkarrekin Centenario plazako etxean, eta gazteena Napoleón Mondragón Balseca zen, 17 urteko ikaslea. Manuel Mondragónek 30 urte zeuzkan, eta ez da ageri erroldatuta beste gazteagorik edo argazkilariaren seme-alabarik [28]. Mondragónek alaba bat izan zuen bere emazte María Teresarekin, eta beste alaba bat, ezkontzaz kanpo, Paz Gonzálezekin: Martha Mondragón González [29], zeina 1998ko abuztuaren 20an hil baitzen Mexiko Hirian 87 urterekin, etxekoandre eta ezkontzeke zela. Heriotza-ziurtagiriak dioenez, ez dakigu Martha zer herritan jaio zen [30].

Mondragón sendia jende-multzo handia ziren Donostiako etxebizitza batean, hirugarren solairuan. Bizimodu lasaia egiten ohituak zeuden Mexikon –gobernariek ohi dutenez– erabateko erosotasunez,

Manuel Rodríguez Lozano. 1917. © Photito. (TZU).

Los Mondragón, exiliados en San Sebastián. Manuel Mondragón Balseca, fotógrafo

El general mexicano Manuel Mondragón y Mondragón fue un inventor de armamento bélico cuyas patentes fueron vendidas en todo el mundo. Había vivido en Francia -con su familia- entre 1897 y 1905, con la finalidad de perfeccionar el "Cañón Mondragón" en la fábrica de armas Saint Chamond [25]. El general se vio implicado en el asesinato del presidente de México Francisco Ignacio Madero, por lo cual tuvo que exiliarse en París. Al estallar la Primera Guerra Mundial los Mondragón se vieron obligados a abandonar Francia, instalándose en San Sebastián en 1914 [26].

Manuel Mondragón Balseca nació en México el 27 de febrero de 1887. Abandonó el país en 1913, mientras Carmen y dos de sus hermanos menores lo hicieron hacia agosto de 1914 [27]. En 1916 Manuel estaba empadronado en la Plaza Centenario nº 1, 3º de San Sebastián. Llevaba dos años y dos meses residiendo en ciudad, siendo su ocupación la de comerciante. Manuel estaba casado con María Teresa Jaimes, que convivía con la familia Mondragón en el mismo domicilio. En 1917 también figuraban en esa dirección, pero en 1918 -año en el que Mondragón abrió su negocio fotográfico- ya no residía con sus padres, ni con su hermana Carmen, Manuel Rodríguez Lozano y el resto de familiares. Un año antes, en 1917, convivían 15 personas en la casa de la Plaza Centenario, siendo el más joven Napoleón Mondragón Balseca, estudiante de 17 años. Manuel Mondragón tenía 30 años y no figuran empadronados otros menores o descendientes del fotógrafo [28]. Mondragón tuvo una hija con su mujer María Teresa y otra hija extraconyugal con Paz González: Martha Mondragón González [29], que falleció el 20 de agosto de 1998 en la ciudad de México a los 87 años, ama de casa, soltera. En la partida de defunción se indica que se desconoce el lugar de nacimiento de Martha [30].

Los Mondragón eran una multitud habitando en una vivienda -un tercer piso- de San Sebastián. Habituados a llevar una vida relajada -propia de los gobernantes- llena de comodidades en México, tuvieron que adaptarse a las nuevas circuns-

eta egoera berrira egokitu behar izan zuten, apenas dirurik gabe, eurena ez zen hiri batean erbesteratuta. Manuelek urte batzuk lehenago ikasi zuen argazkilaritza-teknika, Parisen bizi zirela; ondo bizi izan ziren garai haietan, jeneralak bere kanoia perfekzionatzen zuen bitartean. Manuelek hamar urte zeuzkan familia Parisen finkatu zenean, eta hamazortzi Frantziako egonaldia amaitzean. XX. mende hasieran, artean, argazkigintzan ez zuen edonork jarduten: ogibidetzat lan horretan zebiltzanek eta kapritxo hori eskuratu zezaketen dirudunek; izan ere, entretenimendu horrek denbora eskatzen zuen oinarriak ezagutzeko eta menderatzeko, bai eta dirua ere, ekipamendua eta behar ziren materialak erosteko.

Manuel Mondragón Mondragón. © Photito. (TZU).

Ezagutzen ditugun Mondragónen lehen argazkiak 1917an egin ziren Donostian. Haren arreba Carmenen eta koinatu Rodríguez Lozanoren erretratuak dira [31]. Itxura guztien arabera, Manuel Mondragónek argazkilaritzarako zaletasuna diru-iturri bihurtu zuen gerora. Ohikoa zen ahaideak eta hurbilekoak erretratatzea, probak eginez, enkargu profesionalak egin aurretik saio moduan –nik neuk bizitakoa dakit–. Bada nolabaiteko konplizitate bat erretratatutako pertsona ezagutzen denean; jokoa beste era batera egiten da, beste arrisku batzuk hartzen uzten duen gertutasun batetik, lanerako bide berriak urratuz, enkargu profesionaletan nola edo hala erabil ezin zitezkeenak, ezta jende ezezagunarekin ere.

Arrebaren erretratua Manuel Mondragónek sinatu zuen bere eskuz 1917an. Carmenen edertasun handiaz gain, argazki honetan argitasuna oso zainduta ageri da; konposizioa, landua, eta giroa,

tancias sin apenas disponer de recursos económicos, exiliados en una ciudad que no era la suya. Manuel pudo aprender la técnica fotográfica años antes, cuando residían en París, en la época en la que vivieron holgadamente mientras el general perfeccionaba su cañón. Manuel contaba con 10 años cuando la familia se instaló en París, y 18 al finalizar la estancia en Francia. Todavía a comienzos del siglo XX la fotografía era una práctica ejecutada por los profesionales que vivían de ello y por las clases pudientes que podían permitirse ese capricho, entretenimiento que requería tiempo para conocer y dominar sus fundamentos, y dinero para adquirir el equipamiento junto con los materiales necesarios para desarrollarlo.

Las primeras fotografías de Mondragón que conocemos se realizaron en 1917 en San Sebastián. Son los retratos de su hermana Carmen y su cuñado Rodríguez Lozano [31]. Todo parece apuntar a que la afición de Manuel Mondragón por la fotografía se convirtió más tarde en su fuente de ingresos. Es habitual fotografiar a los familiares y a las personas cercanas realizando pruebas, experimentando antes de materializar los encargos profesionales -lo afirmo por experiencia propia-. Existe una complicidad cuando se conoce a la persona retratada, el juego se desarrolla de otra forma, desde una cercanía que permite asumir otros riesgos, buscando nuevas vías de trabajo que no se podrían utilizar alegremente en encargos profesionales o con personas desconocidas.

El retrato de su hermana está firmado por Manuel Mondragón en 1917 de su puño y letra. Al margen de la gran belleza de Carmen se trata de una fotografía ejecutada con una iluminación muy



Diesel motorra. / *Motor Diesel.* 1920. © Photito. (GSM).

berriz, misterio kutsukoa, fokatze selektiboari esker, begiratua Carmenen begietan zentratuz. Rodríguez Lozanoren argazkia –1917 urtean datatua hura ere– beste irudi zoragarri bat da. Kartoi gainean muntatuta dago eta "Photito, San Sebastián" zigilua dauka ezarrita tipografia xume batekin, handik gutxira Photito markak identitate korporatibo gisa erabiliko zuenaren ezberdina. Carmenen aurreko argazkian argi nagusia aurretikoa da, eta albokoa, aldiz, ezkerretik datorkio. Eta orain aurkako kasua dugu: argi nagusia atzetik dator, eta albokoa, ostera, eskuinetik. Bitxia da nola bi kasuetan ilun-argiak eta argi leunak hartzen diren lanerako. Bistakoa da argia menderatzen zuela, eta bikain asko ezagutzen zuela argazkilaritza-teknika.

cuidada, una composición elaborada y una atmósfera de cierto misterio a la que contribuye el enfoque selectivo, centrando la mirada en los ojos de Carmen. La fotografía de Rodríguez Lozano -datada también en 1917- es otra imagen preciosa. Está montada sobre cartón y lleva el sello "Photito, San Sebastián" con una tipografía sencilla, distinta al diseño que utilizará poco más tarde como identidad corporativa la marca Photito. En la foto anterior de Carmen la luz principal es frontal, lateral desde la izquierda, y ahora nos encontramos con el caso contrario: la luz principal viene desde atrás, lateral por la derecha. Curiosamente en ambos casos se juega con los claroscuros y luces suaves. Es evidente el control de la luz y el dominio de la técnica fotográfica.

Aitaren, Mondragón jeneralaren, argazkian, ikusten da jadanik diskrezioz logotipoa –zigilu lehor eran–; harekin sinatuko ditu Photitok ondorengo lan guztiak [32]. Eszenaratzea oso landua da eta xehetasun guztiz dago antolatuta. Jeneralaren eskua, mahai gainean pausatua, desfokuratuta dago; badirudi nahita egin da dagoela, eskua bi plano garbi-garbiren artean baitago, beste eskuaren eta aurpegiaren artean. Formatu handiko kamera teknikoekin egin daitezke fokuratze selektibo horiek, eta horretarako ezinbestekoa da ofizioa eta argazki-teknika ezagutzea, ikuslearen

En la fotografía de su padre el General Mondragón ya se observa discretamente el logotipo -en forma de sello seco- con el que Photito firmará todos sus trabajos posteriores [32]. La puesta en escena es muy elaborada y está planificada al detalle. La mano del general apoyada en la mesa está desenfocada. El desenfoque parece intencionado, puesto que la mano está entre dos planos nítidos, la otra mano y la cara. Las cámaras técnicas de gran formato permiten realizar estos enfoques selectivos, práctica que requiere cierto oficio y conocimiento del medio, cen-



Atxurtegia. / ***Forja de Herramientas.*** **1921.** © Photito. (GSM).

arreta argazkilariak nabarmendu nahi dituen puntuetan zentratuz. Itxura hartzen diot argazkilariak kameraren montantea baskulatu duela, fokuratze selektibo bat egiteko, irudiaren interesa jeneralaren aurreko eskuan eta aurpegian zentratuz. Estudioko beste erretratu bikain bat da. Manuel Mondragónek ondo baino hobeto menderatzen zuen teknika fotografikoa. Erretratuok guztiak prestatuak daude, eraikiak eta planifikatuak; iluminazioa, posea, enkoadraketa eta konposizioa kontuan hartuta. Ez dago ezer ere aliritzira egina.

Photito 1918an hasi zen lan komertzialean, eta urtebeteren buruan jadanik iritsia zen Legazpi aldera, Gipuzkoa barru-barrura, Patricio Echeverría enpresariarentzat argazki-enkarguak egitera. Mondragón jeneralak armak diseinatzen zituen, PESAk fabrikatu egiten zituen… Jenerala izan ote zen argazkilariaren eta enpresariaren arteko kontaktua? Mondragón jeneralak diseinatutako kanoiak eta errifleak ziren bere mundua. Mondragón altzairu-enpresarik handienetan mugitzen zen armak fabrikatzeko, Frantzian behinik behin, baina haren patenteak Belgikak erosi zituen eta beste herrialde askok ere bai. Jeneralak Mondragón errifle eta kainoi ospetsuak patentatu zituen [33]. Hark diseinatutako armak Lehen Mundu Gerran edota Espainiako Gerra Zibilean erabili ziren; israeldarrek ere erabili zituzten Palestinaren kontrako gerran [34].

Valentín Sierra, Vilella eta Mondragón. Photito Donostian. 1918 - 1922

Hamabi argazkilarik ordaintzen zuten 1917an matrikula industriala Donostian, hiru tarifa desberdin ordaindu ere (214, 282 eta 595 pezeta) [35]. Valentín Sierrak 22 urte zeuzkan eta bere estudioa Guetaria kaleko 21. zenbakian zuen. Sierrak hirugarren mailako argazkilari gisa ordaintzen zuen (kopuru minimoa, alegia) eta baja eman zuen urte hartan bertan [36]. Ez dago beste daturik bere jardunaz Donostian 1917. urteaz geroztik.

Argazkilarien kategoriei dagokionez, 1911. urtean aurkitzen ditugu lehen aldiz bi tarifa desberdin, bata lehen mailako argazkilarientzat eta beste bat, apalagoa, bigarren mailakoentzat. Ordura arte denek kotizatzen zuten kopuru bera [37]. Gipuzkoako Aldundiko Batzorde Probintzialak kategoriatan sailkatzen zuen, kontribuzio industriala banatzeko. Willy Koch Asociación Fotográfica Profesional de Guipúzcoa elkarteko presidenteak eta Pascual Marín idazkariak idatzi bat bidali zuten Batzorde Probintzialera 1924ko abenduaren 2an, eskatuz *una nota de los fotógrafos que pagan contribución por este concepto, (indicando la categoría) para de esa manera proceder con más estricta justicia al reparto de dicha contribución industrial, en la asamblea que este gremio está obligado a*

trando la atención del observador en los puntos que le interesan destacar al fotógrafo. Me inclino a pensar que el fotógrafo ha basculado el montante de la cámara realizando un enfoque selectivo, centrando el interés de la imagen en la mano delantera y la cara del general. Se trata de otro gran retrato de estudio. Manuel Mondragón dominaba a la perfección la técnica fotográfica. Todos estos retratos están elaborados, construidos y planificados desde la iluminación, la pose, el encuadre y la composición. No hay nada al azar.

Photito inició su actividad comercial en 1918, y un año más tarde ya estaba realizando encargos fotográficos en Legazpi, en la Gipuzkoa profunda, para el empresario Patricio Echeverría. El general Mondragón diseñaba armas, P.E.S.A. las fabricaba… ¿Pudo ser el general el contacto entre el fotógrafo y el empresario? Los cañones y rifles diseñados por el general Mondragón eran su mundo. Mondragón se movía en las mayores fábricas de acero para la fabricación de armas, por lo menos en Francia, pero sus patentes fueron compradas por Bélgica y otros muchos países. El general patentó los famosos rifles y cañones Mondragón [33]. Las armas que diseñó se usaron en la Primera Guerra Mundial y en la Guerra Civil española e incluso las utilizaron los israelitas en la guerra palestina [34].

Valentín Sierra, Vilella y Mondragón. Photito en San Sebastián. 1918 - 1922

Txartela. / ***Tarjeta***. © Photito. (AOC).

En el año 1917 eran doce los fotógrafos que pagaban la matrícula industrial en San Sebastián, abonando tres tarifas distintas (214, 282 y 595 pts.) [35]. Valentín Sierra contaba con 22 años y tenía su estudio en el nº 21 de la calle Guetaria. Sierra contribuía como fotógrafo de tercera -abonando el importe mínimo-, y se dio de baja ese mismo año [36]. No hay más datos sobre su actividad en San Sebastián a partir de 1917.

En lo referido a las categorías de los fotógrafos, es en 1911 cuando en las matrículas industriales encontramos

"Reina Victoria Eugenia y las Infantas, San Sebastián". © L. Vilella. (KMK).

celebrar (según sus estatutos) antes de la convocatoria de esa Comisión Provincial [38].

1918ko martxoaren 27an, Vilella eta Mondragón jaunek Donostiako Udalari baimena eskatu zioten Photito argazki-establezimendua irekitzeko, San Ignacio de Loyola kaleko 4. zenbakian, beheko solairuan. Apirilaren 11n erantzun zuen alkateak, negozioa irekitzeko baiezkoa emanez [39].

Matrikula industrialei dagokienez, 1919 eta 1922 bitartean, Vilellak eta Mondragónek lehen mailako argazkilari gisa ordaintzen zuten Loyola kalean zeukaten estudioagatik. 1922an hamazazpi argazkilaritza-estudio zeuden hirian, hiru tarifa edo kategoriatakoak [40]. Urte horretako abuztuan Photitok Loyola kaleko 4. zenbakian lan egiteari utzi zion. [41]. Donostiako Udaleko biztanle-erroldaren arabera, 1916an lokalean norbait bizi zen, eta inor ez 1917 eta 1923 artean, Photitoren jarduneko aldiarekin bat (1918tik 1922ra). 1924an beste familia bat jarri zen helbide horretan [42].

Mondragón eta Vilella argazkilaritza-negozio bat jartzeko elkartu ziren zenbait urtetan. Apenas dago daturik Vilellari eta haren argazki-jardunari buruz. Donostiako Koldo Mitxelena liburutegiko funtsean argazki bat dago gordeta honako marka honekin:

por vez primera dos tarifas distintas, una para los fotógrafos de primera y otra más reducida para los de segunda. Hasta entonces todos ellos cotizaban con el mismo importe [37]. La Comisión Provincial de la Diputación de Guipúzcoa procedía a la clasificación de categorías para el reparto de la contribución industrial. Willy Koch, presidente de la Asociación Fotográfica Profesional de Guipúzcoa, y Pascual Marín como secretario, remitieron un escrito a la Comisión Provincial el 2 de diciembre de 1924 solicitando una nota de los fotógrafos que pagan contribución por este concepto, (indicando la categoría) para de esa manera proceder con más estricta justicia al reparto de dicha contribución industrial, en la asamblea que este gremio está obligado a celebrar (según sus estatutos) antes de la convocatoria de esa Comisión Provincial *[38].*

El 27 de marzo de 1918 los señores Vilella y Mondragón solicitaron al ayuntamiento de San Sebastián la autorización para la apertura del establecimiento de fotografía Photito, instalado en la parte baja del nº 4 de la calle Loyola. El 11 de abril el alcalde respondió a la petición dando su conformidad para la apertura del negocio [39].

Conforme a las matrículas industriales, entre los años 1919 y 1922, Vilella y Mondragón contribuían como fotógrafos de primera por su estudio de la calle Loyola. En 1922 había 17 estudios de fotografía -con tres tarifas o categorías- en la ciudad [40]. En agosto de ese año Photito cesó su actividad de la calle Loyola nº 4 [41]. Según los padrones de habitantes del ayuntamiento de Donostia, en 1916 el local estaba habitado, no figurando persona alguna entre 1917 y 1923, coincidiendo con las fechas de actividad de Photito (desde 1918 hasta 1922). En 1924 otra familia volvió a instalarse en esa dirección [42].

Mondragón y Vilella se asociaron regentando un negocio de fotografía durante varios años. Apenas hay datos sobre Vilella y su actividad fotográfica. En los fondos de la Biblioteca Koldo

L. Vilella. Informaciones Gráficas. Avenida, 41. San Sebastián. Posta-txartel bat da, Leonar etxeak argitaratua, eta Victoria Eugenia erregina eta infantak ageri dira udaletxe aurrean [43]. Avenida de la Libertad 41eko estudio horretan jarri zen 1935eko urtarrilean Willy Koch [44]. Oso maiz gertatzen zen argazkilari desberdinek toki bera erabiltzea, batak bestearen atzetik, negozioa traspasoan emanez edo elkartuz. Ez dago beste erreferentziarik Vilellari buruz argazkilari autonomo gisa. Izan liteke Willy Kochen estudioa, Avenida de la Libertad 41ekoa, aurretik Vilellarena izatea, baina ez dugu horri buruz argibiderik aurkitu. Profesional askok euren etxebizitzetan zuten estudioa, hala zergarik ez ordaintzeko, Valentín Sierrak urte batzuk geroago Irunen egin zuen bezala.

Mitxelena de Donostia se conserva una fotografía con la marca: L. Vilella. Informaciones Gráficas. Avenida, 41. San Sebastián. *Se trata de una tarjeta postal, editada por la casa Leonar, en la que se observa a la Reina Victoria Eugenia y a las Infantas frente al ayuntamiento [43]. En ese estudio de la Avenida, nº 41 se instaló en enero de 1935 Willy Koch [44]. Era muy frecuente que diferentes fotógrafos utilizaran el mismo espacio en épocas sucesivas, traspasando el negocio unos a otros o asociándose. No hay más referencias sobre Vilella ejerciendo como fotógrafo autónomo. Pudiera ser que el estudio de Willy Koch en la Avenida de la Libertad nº 41 perteneciera a Vilella anteriormente, pero tampoco encontramos ninguna información al respecto. Muchos profesionales tenían el estudio en el domicilio donde residían, evitando pagar impuestos, tal y como hizo Valentín Sierra en Irún años más tarde.*

"Photito en las carreras, Photito en la playa, Photito en Loyola 4. San Sebastián"

Photitok hainbat argitalpenetan iragarri zituen bere zerbitzuak 1918an, bere jardun komertziala abiatu eta berehala. Iragarkia *Photito en las carreras, Photito en la playa, Photito en Loyola 4, San Sebastián* leloarekin hiru bider argitaratu zen Madrileko *La Esfera* aldizkarian 1918an: uztailaren 27an (239. zk.), abuztuaren 3an (240. zk.) eta abuztuaren 31n (244. zk.) [45].

Donostian urte horretan bertan argitaratutako *Guía Ilustrada para el Forastero* gidan Photitoren publizitatea aurrekoaren antzekoa da leloari dagokionez, baina, "carreras" jarri ordez, "hipódromo" ipini zuten. Oraingoan, ordea, iragarkia orrialde osokoa da. Ilustrazio dibertigarri bat da: argazkilari elegante bat ageri da, bere lana egiteko ahaleginean formatu handiko kamera batekin, haizetik babestu nahirik eta itsas-karramarro bat bere maletatxotik zintzilik duela [46].

Berriro ere Madrileko *La Esfera* egunkarian beste iragarki bat atera zuten 1919ko irailaren 20an (299. zk.), aurrekoak ez bezalakoa: *Photito, primera galería fotográfica en planta baja. Loyola 4, San Sebastián* [47].

Bitxia da nola Manuel Mondragónek argazkilari gisa iragarri zuen bere burua Loyola kaleko 4. zenbakian, bere izen-abizenekin, Photito batere aipatu gabe [48]. Arraroa egiten da bere sozio Vilellarekin batera ez agertzea, eta are bitxiagoa 1926an bere burua iragartzea, lau urte lehenago estudioa itxi zuela jakinda, eta Mexikora itzuli zela 1923an.

Photito en las carreras, Photito en la playa, Photito en Loyola 4. San Sebastián

Photito se anunció en numerosas publicaciones ofertando sus servicios fotográficos nada más iniciar su actividad comercial en 1918. El anuncio con el lema Photito en las carreras, Photito en la playa, Photito en Loyola 4, San Sebastián *se publicó en tres ocasiones en* La Esfera *de Madrid en 1918: el 27 de julio (nº 239), el 3 de agosto (nº 240) y el 31 de agosto (nª 244) [45].*

En la Guía Ilustrada para el Forastero *editada en San Sebastián ese mismo año la publicidad de Photito es similar a la anterior en lo que al lema se refiere -con la salvedad de la sustitución de la palabra "carreras" por "hipódromo"-, pero en esta ocasión el anuncio se imprimió a toda página. Se trata de una divertida ilustración en la cual se representa a un elegante fotógrafo intentando realizar su tarea con una cámara de gran formato, defendiéndose del viento y con un cangrejo de mar colgado de su maletín [46].*

Nuevamente en La Esfera *de Madrid, el 20 de septiembre de 1919 (nº 299), se publicó otro anuncio distinto a los anteriores: Photito, primera galería fotográfica en planta baja. Loyola 4, San Sebastián [47].*

Curiosamente Manuel Mondragón se anunció como fotógrafo en la calle San Ignacio de Loyola nº 4 en los años 1922 y 1926, con su nombre y apellido, sin referencia alguna a Photito [48]. Resulta extraño que no figure junto a su socio Vilella y todavía más insólito que se anunciara en 1926, cuando cuatro años antes había clausurado el estudio, regresando a México en 1923.

Photitok argazki-lan oso ezberdinak egiten zituen Donostiako estudioan, era guztietako erreportaje eta argazkiak: monarkia eta klase ahaltsuak hondartzan [49], zaldi-lasterketak, antzerkisaioak [50], edo umeen erretratuak kalean, kirol-auto batera igota [51]. Beste alde batetik, argazkilaritza landuagoa eta pausatuagoa egiten zuten: estudioko erretratuak, argazkilaritza industriala (PESA) edo garaiko aldizkari ilustratuetan argitaratzekoa. Hori horrela izanik, Photitok hiru argazkirekin ilustratu zuen *Los astilleros del Oria* artikulua, Madrileko *La Esfera*n 244. zenbakian argitaratua, 1918ko abuztuaren 31n [52].

Kaleko erreportajea eta lasai asko estudioan egindako argazkilaritza erabat desberdinak dira. Mondragón jeneralaren, Carmenen, Rodríguez Lozanoren erretratuek eta xehexeheki estudioan hartutako irudiek Manuel Mondragón dute, argibide guztien arabera, egile. Beharbada Vilella izango zen kaleko erreportaria, argazkiak bilatu eta atzematen zituena; esaterako, Victoria Eugenia erreginaren argazkia eta infantena, lehen aipatu duguna. Estudioko argazkiak oso urrun daude "hondartzako" eta "hipodromoko" Photitoren lanetik, zeina "non ikus han har" tankerakoa baitzen: langintza guztiz desberdinak dira, aurkakoak. Argazkilari on bat izan daiteke *todoterrenoa* eta zeregin desberdinetara egokitzekoa, baina lan-kontzeptua eta metodoak zeharo desberdinak dira kaleko erreportajean eta estudioko lanean. Eskuarki, profesional bakoitza lan-arlo zehatz batean espezializatzen da. Errazagoa da imajinatzea Vilella erreportari eta Mondragón estudioan,

Leopoldo Pedrosak Easo 3an ekin zion jardunari 1924an. Bigarren mailako argazkilari gisa kotizatzen zuen 1925 eta 1932 artean. Ondoren, 1933. urtetik hasi eta 1941 bitarte, lehen

El 12 de abril de 1916 Pablo Montes e Isaac Gonzalo, domiciliados en San Sebastián, realizaron una petición al ayuntamiento para abrir un estudio de fotografía en la planta baja del nº 3 de la calle Easo [109]. En 1919 contribuían en Easo 3, cesando su actividad en 1920. A partir de 1922 y hasta 1925 Pablo Montes tuvo su estudio en Miracruz 13 [110], local que perteneció antes a otro fotógrafo, José García, del cual hablaremos más adelante.

Leopoldo Pedrosa inició su actividad en Easo 3 en 1924. Cotizaba como fotógrafo de segunda entre 1925 y 1932. A partir de 1933 y hasta 1941 figura como fotógrafo de 1ª en ese local.

Atxurtegia. / ***Forja de Herramientas.*** © Lucio Vergara Machicote. (Kopia /*Copia*: Central Photo - Film L. Pedrosa). (GSM).

mailako argazkilari gisa agertzen da lokal horretan. 1950ean Leopoldo Pedrosa Garcíak bere kontribuzioa ordaintzen segitzen zuen lehen mailako argazki-establezimendu gisa Víctor Pradera kaleko 5. zenbakian –Easo kaleak izen hori zuen Gerra Zibilaren ondoren–. Gipuzkoako 1944ko eta 1945eko errolda industrialetan ere Víctor Pradera kalean ageri da, lehen mailako argazkilari gisa [111].

Estudio fotografikoak lokal berrietara aldatzea, negozioa beste argazkilari bati traspasoan emanez, etengabeko kontua zen XX. mende hasieran. Easo kaleko estudioetan izandako argazkilaridantzaren adibide argia da. Aldiz, bitxia da nola Pedrosak bere negozioa hamarkadatan izan zuen establezimendu berean.

Photo Film L. Pedrosa lau aldiz iragarri zen *La Esfera* aldizkarian 1920 arte, eta Photito, berriz, hogei aldiz [112]. 1932ko maiatzaren 26an "Central Photo - Film" etxea iragartzen zen Donostiako *Easo* egunkarian: *establecimiento instalado hace bastantes años en la calle Easo nº 3* [113]. Urtekari komertzialetan, 1926 eta 1933 artean Easo kalean "Central Photo Film Leopoldo Pedrosa" gisa iragarri zen, "Leopoldo Pedrosa" gisa 1927 eta 1935 artean, eta, "Pedro Pedrosa" gisa 1921 eta 1926 artean [114].

Central Photo - Film etxearen jardun nagusia argazkilaritzarako eta zinematografiarako aparatu eta osagarriak izan ziren 1917tik, eta errebelatzeko zerbitzua ere eskaintzen zuen. Pedrosak 1924an eman zuen alta argazkilari gisa. Leopoldo Pedrosak bere idazpurua jarri zuen Legazpin 1930eko hamarkadaren hasieran Echeverríarentzat Lucio Vergarak egindako argazki pare batean.

En 1950 Leopoldo Pedrosa García seguía pagando su contribución como establecimiento fotográfico de primera en el nº 5 de la calle Víctor Pradera -nueva denominación de la calle Easo tras la Guerra Civil-. En los censos industriales de Guipúzcoa de 1944 y 1945 Pedrosa figura también en la calle Víctor Pradera como fotógrafo de primera [111].

El traslado de los estudios fotográficos a nuevos locales traspasando el negocio a otro fotógrafo era una práctica constante a comienzos del siglo XX. El baile de fotógrafos en los estudios de la calle Easo es un claro ejemplo. Sin embargo curiosamente Pedrosa mantuvo su negocio durante décadas en el mismo establecimiento.

Photo Film L. Pedrosa se anunció 4 veces en la revista La Esfera *hasta 1920, mientras que Photito lo hizo en 20 ocasiones [112]. El 26 de mayo de 1932 Central Photo - Film se anunciaba en el periódico donostiarra* Easo *como* establecimiento instalado hace bastantes años en la calle Easo nº 3 *[113]. En los anuarios comerciales se anunció entre 1926 y 1933 en la calle Easo como "Central Photo Film Leopoldo Pedrosa", "Leopoldo Pedrosa" entre 1927 y 1935 y "Pedro Pedrosa" entre 1921 y 1926 [114].*

La actividad principal de Central Photo - Film desde 1917 fue la venta de aparatos y accesorios de fotografía y cinematografía, ofreciendo servicios de revelado. Fue en 1924 cuando Pedrosa se dio de alta como fotógrafo. Leopoldo Pedrosa puso su membrete en un par de copias procesadas en su establecimiento, fotografías efectuadas a comienzos de los años 30 en Legazpi por Lucio Vergara para Patricio Echeverría.

Marín Material Fotográfico

Bi argazkik *Marín Material Fotográfico, San Sebastián* zigilua daukate. Haietako lehenak, 1928an datatuak, bulegoen bista bat erakusten du. Bigarren irudian, 1933ko datarekin, Aitzurrak Laminatzeko makina batzuk ageri dira.

Pascual Marín Ruiz Tuteran jaio zen 1893an. Hamalau urterekin, argazkilari aprendiz hasi zen, jatorri irlandarra zuen Ignacio Coynerekin; azken hori Iruñean bizi zen, eta Zaragozara joan zen ondoren. 1913an erredaktore grafiko gisa hasi zen lanean Zaragozako *La Crónica* egunkarian, Madrileko *Nuevo Mundo*rekin lankidetzan. Hala, 1914an Donostian jarri zen Photo Carte estudioan lanean eta *Novedades* aldizkari grafikoarekin lankidetzan, baita *El Pueblo Vasco* egunkariarekin ere. Ia 50 urtez, Pascual kazetaritzarako argazkilaritzan aritu zen. Paz Leturia Telleríarekin ezkondu zen 1917an, eta 1920an bere estudioa fundatu zuen Garibay kaleko

Marín Material Fotográfico

Un par de fotografías llevan el sello Marín Material Fotográfico, San Sebastián. *La primera de ellas, datada en 1928, muestra una vista de las oficinas. En la segunda imagen, con fecha de 1933, se observan unas máquinas Laminadoras de Azadas.*

Pascual Marín Ruiz nació en Tudela en 1893. A los 14 años se inició como aprendiz del fotógrafo de ascendencia irlandesa Ignacio Coyne, que radicado en Pamplona se trasladó a Zaragoza. En 1913 comenzó a trabajar como redactor gráfico del periódico La Crónica *de Zaragoza, colaborando con* Nuevo Mundo *de Madrid. En 1914 se instaló en San Sebastián, trabajando en el estudio Photo Carte y colaborando con la revista gráfica* Novedades *y para el periódico* El Pueblo Vasco. *Durante casi cincuenta años Pascual se dedicó al fotoperiodismo. Se casó con Paz Leturia Tellería en 1917, fundando en 1920 su propio estudio Casa Marín*

Atxurtegia. / ***Forja de Herramientas.*** © Lucio Vergara Machicote.
(Kopia / *Copia*: Central Photo - Film L. Pedrosa). (GSM).

24an: Casa Marín. Hala, 1929an Urrezko Domina eskuratu zuen Zaragozako V. Argazkilaritzako Nazioarteko Erakusketan. Probintziako herri guztiak korritu ondoren, 1932an bere obra nagusia editatu zuen: *Gipuzkoa Begiragaria - Lo admirable de Guipúzcoa*, sakongrabatuan inprimatua. Durango aldean gerrako erreportaje bat egiten zebilela, bala galdu batek eskuin besoa elbarri utzi zion betiko 1937an. Pascualek ezkerreko eskuarekin jarraitu zuen kamera sakatzen. Gerra Zibilaren hasieran, *Frente Popular* eta tankerako egunkarietan aritu zen lankidetzan, edota *L'Ilustration Française* aldizkarian, baina, Donostia eroriz geroztik, haren argazkiak *Fotos*, *Vértice* eta *La Ametralladora* aldizkariek argitaratu zituzten. Gerra ostean, tokiko *La Voz de España* eta *Unidad* egunkarietako erreportari nagusia izan zen, eta *El Ruedo* zezen-aldizkariarekin edota *ABC* eta *La Vanguardia* egunkariekin ere lankidetzan jardun zuen; gerra aurretik ere argitaratzen zituen argazkiak hedabide horietan. Pascual Marín 1959an hil zen, eta Paco Marí suhiak jarraitu zuen Casa Marín etxearen buru, María Teresa emaztearekin eta haren ahizpa Manoli eta María Pazekin, harik eta 1972ra arte, urte horretan hil baitzen Paco Marí [115].

Donostiako Udal Aurrezki Kutxak –gaur Kutxabank dena– 1973an erosi zuen Casa Maríneko bi argazkilarien artxiboa: 350.000 argazki, Kutxa Fototekan daudenak; kristalezko plakak, 13 x 18 eta 10 x 15 cm-koak; zeluloidezko plakak 10 x 15 eta 9 x 12 cm-koak; 35 mm-ko pelikula-erroiluak eta negatiborik gehienen lehendabiziko positiboak [116].

Marín Fotógrafo - San Sebastián zigilua zeukan beste argazki bat gure aitona-amonen etxean zegoen. Patricio Echeverría eta Teresa Aguirreren urrezko ezteien ospakizuna da, 1956koa. Irudian ikusten da gure aitona Lorenzo Murgiondo gainerako langileekin batera, Erremintak Ateratzeko Biltegia zen hartan, bulegoen solairu azpian. Urteurren hori zela eta, langileek aparteko ordainsari bat eskuratu zuten, segun eta enpresan zenbat denbora zeramaten [117].

Kontribuzioen dokumentuetan, Casa Marín negozioaren titulartasunari buruzko datu bitxiak aurkitzen ditugu. Pascual Marínek Donostiako Garibay kaleko 24an fundatu zuen bere estudioa 1920an, baina ez da agertzen jabe gisa inongo negoziotan hirian, matrikula industrialen arabera. 1921 eta 1937 artean, Hilario Murua argazkilariak ordaintzen zituen lokal horretako argazki-estudioko zergak lehen mailako argazkilari gisa. Hala, 1938an Garibay kaleko 24ko estudioa ez da ageri Gipuzkoako errolda industrialean [118].

Pascual Marín Asociación Fotográfica Profesional de Guipúzcoa elkarteko idazkaria zen 1924an eta presidentea, berriz, Willy Koch –Photitori eskainitako atalean aipatzen da biek sinatu zutela

en la calle Garibay nº 24. En 1929 obtuvo la Medalla de Oro en el V Salón Internacional de Fotografía de Zaragoza. Tras recorrer todas las localidades de la provincia en 1932 editó su principal obra: Gipuzkoa Begiragaria - Lo admirable de Guipúzcoa*, impreso en huecograbado. Realizando un reportaje bélico en las cercanías de Durango una bala perdida le dejó el brazo derecho inutilizado de por vida en 1937. Pascual siguió disparando su cámara con la mano izquierda. Al inicio de la Guerra Civil colaboró en periódicos como* Frente Popular *y revistas como* L´ Ilustration Française*, pero tras la caída de San Sebastián publicaron sus imágenes las revistas* Fotos*,* Vértice *y* La Ametralladora*. En la posguerra fue el principal reportero de los periódicos locales* La Voz de España *y* Unidad*, colaborando también con la revista taurina* El Ruedo *y los periódicos* ABC *y* La Vanguardia*, medios en los que ya publicaba sus fotografías antes de la contienda. Pascual Marín falleció en 1959, siendo su yerno Paco Marí el que continuó al frente de Casa Marín junto con su mujer María Teresa y las hermanas de ésta, Manoli y María Paz hasta 1972, año en el que falleció Paco Marí [115].*

En 1973 la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián -hoy en día Kutxa- adquirió el archivo de los dos fotógrafos de Casa Marín: 350.000 fotografías que se conservan en Fototeca Kutxa, placas de cristal de 13 x 18 y 10 x 15 cm, placas de celuloide de 10 x 15 y 9 x 12 cm, rollos de película de 35 mm y los primeros positivos de la mayor parte de todos los negativos [116].

Otra fotografía con el sello Marín Fotógrafo - San Sebastián *se encontraba en casa de mis aitonas. Corresponde a la celebración de las bodas de oro matrimoniales de Patricio Echeverría y Teresa Aguirre en 1956. En la imagen se distingue a mi aitona Lorenzo Murgiondo junto al resto de trabajadores en el antiguo Almacén de Expedición de Herramientas situado bajo la planta de Oficinas. Con motivo de esa conmemoración los obreros recibieron una gratificación proporcional al tiempo de permanencia en la empresa [117].*

En los documentos de las contribuciones hallamos datos singulares sobre la titularidad del negocio Casa Marín. Pascual Marín fundó su estudio en la calle Garibay nº 24 de San Sebastián en 1920 pero no figuraba como propietario de ningún negocio en la ciudad según indican las matrículas industriales. Entre 1921 y 1937 el fotógrafo Hilario Murua pagaba los impuestos del estudio de fotografía de ese local como fotógrafo de primera. En 1938 el estudio de la calle Garibay nº 24 no figura en el censo industrial de Guipúzcoa [118].

En 1924 Marín era el secretario de la Asociación Fotográfica Profesional de Guipúzcoa y Willy Koch el presidente -en el apartado

idatzi bat Aldundiko Batzorde Probintzialari zuzendua– [119]. Izan ere, 1926an Pascual Marínek argazkilari gisa ordaintzen zituen bere kontribuzioak Azpeitiako Iglesia kalean, Gipuzkoan. Hurrengo urtean, 1927an, Pascual Marínek Donostian alta eman zuen, estudioa Mayor kaleko 21ean kokatuta. Hala, 1928 eta 1929an Marínek argazkilari gisa kotizatu zuen helbide horretan, eta 1929an baja eman zuen. Gipuzkoako industria-erroldak dioenez, Pascual Marín berriro agertzen da Azpeitiko Iglesia kalean, 1938an [120].

Industria-erroldan, 1939an ageri da lehen aldiz Pascual Marín Ruiz Donostiako Garibay 24an kokatutako estudioaren titular be-

dedicado a Photito se ha mencionado que ambos firmaron un escrito dirigido a la Comisión Provincial de la Diputación- [119]. En 1926 Pascual Marín pagaba sus contribuciones como fotógrafo en la calle Iglesia de Azpeitia, Guipúzcoa. Al año siguiente, en 1927 Pascual Marín se dio de alta en San Sebastián, con el estudio ubicado en la calle Mayor nº 21. En 1928 y 1929 Marín cotizó como fotógrafo de segunda en esa dirección, dándose de baja en 1929. Según el censo industrial de Guipúzcoa Pascual Marín figuraba de nuevo en la calle Iglesia de Azpeitia en 1938 [120].

En el censo de industrial de 1939 Pascual Marín Ruiz figura por vez primera como titular del estudio ubicado en la calle Garibay

Bulegoak. / *Oficinas.* 1928. © Marín Material Fotográfico. (GSM).

zala. Marínek 1941 eta 1950 artean lokal horretan ordaintzen zituen zergak, lehen mailako argazkilari gisa [121].

Urtekari eta gida komertzialek informazio gehiago ematen dute Marín eta Hilario Muruaz, eta egiaztatzen da biek helbide berean iragartzen zutela, bakoitzak bere izenarekin, data beretan. Pascual Marín Azpeitian iragartzen zen *Sucursal Marín* izenarekin 1929an eta 1933an, eta *Pascual Marín* izenarekin 1932an. Hilario Murua Donostiako Garibay 24an iragartzen zen bere izenarekin 1922, 1923, 1926, 1927 eta 1932an, eta *Hilario Murua, Aparatos y Material para la Fotografía* izenarekin 1927 eta 1932 urteetan. Pascual Marín Donostiako urtekari komertzialetan bere izenarekin iragarri zen Garibay kaleko 24. zenbakian 1926, 1929, 1931, 1933, 1933-34 eta 1935 urteetan; eta *Pascual Marín, Aparatos y Material para la Fotografía* izenarekin 1921, 1922, 1923, 1926, 1929, 1931, 1932, 1933, 1933-34 eta 1935ean. Donostian Pascual Marín Mayor kaleko 12. zenbakian iragartzen zen 1932an [122].

Langileak. / *Trabajadores.* 1956. © Marín Fotógrafo. (GSM).

Marínek bere idazpurua jarri zuen bere laborategian Patricio Echeverríarentzat errebelatutako bi kopiatan. Pascual Marínek egin al zituen argazki horiek? Irudien atzealdean arkatzez idatzitako datak 1928 eta 1933 dira. Bi argazkiek antzeko prozesatua eta tratamendu berbera erakusten dituzte, baina bost urteko tarte bat dago bien artean. Zuzenak ote dira data-ohar horiek?

nº 24 de San Sebastián. Entre 1941 y 1950 Marín tributaba en ese local como fotógrafo de primera [121].

Los anuncios en los anuarios y guías comerciales aportan más información sobre Marín e Hilario Murua, comprobando que ambos se publicitaban en la misma dirección, cada uno con su nombre, coincidiendo en las mismas fechas. Pascual Marín se publicitaba en Azpeitia con la denominación Sucursal Marín en 1929 y en 1933, y como Pascual Marín en 1932. Hilario Murua se anunciaba en la calle Garibay nº 24 de San Sebastián con su nombre en 1922, 1923, 1926, 1927 y 1932; y como Hilario Murua, Aparatos y Material para la Fotografía en 1927 y 1932. Pascual Marín se publicitó en los anuarios comerciales de San Sebastián con su nombre en la calle Garibay nº 24 en 1926, 1929, 1931, 1933, 1933-34 y 1935; y como Pascual Marín, Aparatos y Material para la Fotografía, en 1921, 1922, 1923, 1926, 1929, 1931, 1932, 1933, 1933-34, 1935. En San Sebastián Pascual Marín se anuncia en la calle Mayor nº 12 en 1932 [122].

Marín puso su membrete en la trasera de un par de copias reveladas en su laboratorio para Patricio Echeverría. ¿Realizó Pascual Marín esas fotografías? Las fechas escritas a lápiz al dorso de las imágenes son 1928 y 1933. Las dos fotografías muestran un procesado similar, siendo el tratamiento idéntico, pero existe un intervalo de cinco años entre ambas. ¿Son correctas las anotaciones de las fechas?

Legazpi. © Lucio Vergara Machicote. (LVF).

Legazpi. © Lucio Vergara Machicote. (LVF).

Lucio Vergara. PESAko langilea, bake-epailea eta argazkilari afizionatua Legazpin. 1930

Lucio Vergara Machicote Aranazen (Nafarroa) jaio zen 1892ko uztailaren 6an. Donostiako Arte eta Ofizioen Eskolan egin zituen ikasketak eta aitaren zurgindegian lan egin zuen. 1920ko maiatzaren 27an Felicitas Oñativiarekin ezkondu zen, sortzez

Lucio Vergara. Trabajador de P.E.S.A., juez de paz y fotógrafo aficionado en Legazpi. 1930

Lucio Vergara Machicote nació en Aranaz (Navarra) el 6 de julio de 1892. Cursó estudios en la Escuela de Artes y Oficios de San Sebastian y trabajó en el taller de carpintería de su padre. El 27 de mayo de 1920 contrajo matrimonio con Felicitas Oñati-

Fundizio Zaharra. / ***Fundición Vieja.*** © Lucio Vergara Machicote. (GSM).

Kirten tailerra. / ***Mangos.*** © Lucio Vergara Machicote. (LVF).

Villarreal de Urrechuakoa eta Aranazko eskolako maistra. Hala, 1930eko martxoaren 7an Legazpira aldatu ziren; bertan, emakumeak maistra lanetan jarraitu zuen eta gizonak, berriz, Patricio Echeverríarentzat lan egin zuen erretiroa hartu arte [123].

Ez dakigu, jakin, nola eta non ikasi zuen Lucio Vergarak argazkilaritza-teknika. Luciok 1920ko hamarkadan jada egiten zituen argazkiak Aranaz jaioterrian; gaur egun, oraindik

via, natural de Villarreal de Urrechua y maestra en la escuela de Aranaz. El 7 de marzo de 1930 se trasladaron a Legazpi, donde ella siguió ejerciendo de maestra y él trabajó para Patricio Echeverría hasta jubilarse [123].

Desconocemos como y donde aprendió Lucio Vergara la técnica fotográfica. En los años 20 Lucio ya realizaba fotografías en su localidad natal de Aranaz, donde todavía hoy en día se conserva el pequeño laboratorio en el que revelaba las placas. Lucio efec-

gordetzen da plakak errebelatzeko zeukan laborategi txikia. Luciok Legazpiko lehen argazkiak 1930ean egin zituen, eta egun horretatik aurrera lan handia egin zuen 1950eko hamarkadara arte. Vergarak gertaera sozialak, erlijiosoak eta jai-girokoak jaso zituen argazkietan, baita herriko hirigintza-aldaketak –paisaiak eta eraikinak–, familia-erretratuak, PESAren instalazioak edota hango langileak ere. Echeverríaren enpresan lan egiteaz gain, Lucio Vergara bake-epaile izan zen Legazpin, eta, zeregin horri esker, udal-korporazioak eta herriko indar biziak erretratatu zituen, eta eskualdeko eraikin berrien eraikuntza dokumentatu zuen [124].

Hasieran, formatu handiko kamera batekin lan egiten zuen; 13 x 18 cm-ko batekin, hain zuzen. Ekipoa handituz joan zen pixkanaka, baina formatua txikituz, 9 x 12 eta 6 x 9 cm-ko plaketara aldatu zen. Hala, 1950eko hamarkadaz geroztik familia-argazkiak eta bidaietakoak egiten jarraitu zuen, 6 x 6 cm-ko bi kamera erabiliz, erroiluko pelikula sartuta, alde batera utzirik aurreko bi hamarkadetan bizi-bizi egindako dokumentazio-lana. Ia argazki guztiak zuri-beltzean eginak daude, azken aldian erabili zuen kolorezko erroiluren bat izan ezik, bera erretiratu eta gero hain zuzen [125].

Lucio ez zen argazkilaritzako profesional bat, baina Echeverríak haren zerbitzuak eskatu zituen faktoriako instalazioak eta makineria argazkietan jasotzeko. Makinen irudi batzuetan, atzean txapak jarri ziren, argazkian jaso nahi zen objektua bakartzeko. Hala, 1930eko hamarkada hasieran, Lucio Vergarak enpresako langile bakoitza erretratatu zuen "Carnet de Identidad del Operario Metalúrgico" izeneko txartela egiteko –Vergararen beraren txartela ere gordeta dago, 1934ko ekainekoa–. Egiteko horretarako, 13 x 18 cm-ko plaka-kamera erabili zuen, eta negatibo bakoitzean bi hartualdi egin zituen. Langileak hirunaka edo launaka erretratatu zituen, sei edo zortzi kide plaka bakoitzean. Langileen aurrez aurreko erretratu horietarako, oihal bat jartzen zuen atzealdean. Bitxia da nola egileak berak plakak gordetzen zituen kaxetan

"Carnet de Identidad del Operario Metalúrgico". ca. 1934.
© Lucio Vergara Machicote. (LVF).

tuó las primeras fotografías de Legazpi en 1930, desarrollando a partir de esa fecha una intensa actividad hasta los años 50. Vergara captó en fotografías los acontecimientos sociales, religiosos y festivos, los cambios urbanísticos de la localidad -paisajes y edificios-, retratos familiares, las instalaciones de P.E.S.A. y a sus trabajadores. Al margen de trabajar en la empresa de Echeverría Lucio Vergara fue juez de paz en Legazpi, ocupación que le permitió retratar a las corporaciones municipales y fuerzas vivas locales, documentando la construcción de nuevas edificaciones en la comarca [124].

Inicialmente trabajaba con una cámara de gran formato de 13 x 18 cm, equipo que iría ampliando paulatinamente, pero reduciendo el formato, pasando a las placas de 9 x 12 y 6 x 9 cm. A partir de los años 50 siguió realizando fotografías familiares y de viajes con dos cámaras de 6 x 6 cm, utilizando película en rollo, dejando a un lado la labor documental desarrollada intensamente durante las dos décadas anteriores. Prácticamente todas las imágenes están realizadas en blanco y negro, salvo algún rollo en color que efectuó en su última época, una vez jubilado [125].

Lucio no era un profesional de la fotografía, pero Echeverría requirió sus servicios para fotografiar las instalaciones y maquinaria de la factoría. En ciertas imágenes de máquinas se colocaron chapas como fondo para aislar el objeto fotografiado. A comienzos de los años 30 Lucio Vergara retrató a cada uno de los trabajadores de la empresa para la confección del "Carnet de Identidad del Operario Metalúrgico" -se conserva su propio carnet fechado en junio de 1934-. Utilizó la cámara de placas de 13 x 18 cm realizando dos tomas en cada negativo. Retrató a los obreros de tres en tres o de cuatro en cuatro, fotografiando a seis u ocho personas en cada placa. En estos retratos frontales de los trabajadores colocaba una tela como fondo. Curiosamente en las anotaciones del propio autor en las cajas donde guardaba las placas se indica: "bustos sin interés" [126]. No cabe duda de que la multitud de fotografías hechas por Vergara en los distintos talleres se

Palategia. / *Palas.* © Lucio Vergara Machicote. (LVF).

honako hau adierazten duen: "Bustos sin interés" (interesik gabeko bustoak) [126]. Ez dago zalantzarik, Vergarak tailerretan egin zituen argazki ugariak Patricio Echeverríak hala eskatuta egin zituen. Aldiz, ez dakigu zerk eraginda igo zen hainbat urtez inguruko mendietara, formatu handiko kamera astun bat hartuta, tripodea eta kristalezko plakak aldean zituela, fabrikaren eta Legazpiren panoramikak ikuspuntu desberdinetatik egiteko.

Haren argazkiak zuzenak, xumeak dira, ez dago konposizio zail-nekezkorik. Familiaren eta lagunen erretratuetan jendeak

realizaron por petición expresa de Patricio Echeverría. Sin embargo desconocemos la intención que le animó a subir hasta los montes cercanos cargado con una pesada cámara de gran formato, el trípode y las placas de cristal para realizar panorámicas de la fábrica y Legazpi desde distintas perspectivas a lo largo de diversos años.

Sus fotografías son directas, sencillas, no hay composiciones rebuscadas. En sus retratos de familiares y amigos la gente mira directamente a la cámara, al igual que en muchas tomas de edi-

zuzen begiratzen dio kamerari, eta berdin hainbat eraikinen erretratuetan ere, jendea posatzen ari denean. Vergarak jakin bazekien balio dokumentala zutela egindako argazkiek: fabrika, San Ignacio eta San Martín langile auzo eraiki berriak, Guardia Zibilaren kuartela, hiltegia, asiloa, batzokia, Mirandaolako burdinolaren berreraikuntzako lehen harria… Haren irudirik ezagunenak herriari eta fabrikari buruzkoak dira, baina Lucio oso gizon erlijiosoa zen, eta, horregatik aurkitzen ditugu ospakizun erlijiosoetako eta Legazpiko parrokiaren barrualdeko argazki asko eta asko, berritu aurrekoak [127]: santuak, ama birjinak, erretaula edota gurutzearen kapera.

Vergarak berak errebelatzen zituen plaka negatiboak, baina ez zituen handitzeak egiten. Horren argazki batzuk Leopoldo Pedrosa eta Willy Koch-en establezimenduetan prozesatu ziren, Donostian. Luciok urte askoan egin zituen argazkiak bere nagusiarentzat. Erremintak Ateratzeko Biltegiaren argazki bat, Vergarak egina, 1932ko erreminten katalogoan argitaratu zen [128]. Vergara obra-buru eta Patricio Echeverríaren konfiantzako gizon izan zen Idiazabalgo lima-fabrika berriaren eraikuntzan, 1940an altxatutako pabiloi haietan [129]. Luciok instalazio berrien eraikuntza ere jaso zuen argazkietan eta gordeta daude bi handitze, Idiazabalgo garai hartako fabrikarenak. Bitxia da eta jakin-mina eragiten du ikusteak nola formatu handiko hiru kopia, zortzi urteko aldearekin egindako argazkienak –bat biltegikoa (1932), eta beste bi Idiazabalgo fabrikakoak (1940)– Willy Kochek sinatuta dauden bere eskuz, egilea Lucio Vergara izanik. Pentsa liteke formatu handiko tirajeak Kochen labo-

ficios en las que hay personas posando. Vergara era consciente del valor documental de las fotografías efectuadas: la fábrica, barrios obreros de San Ignacio y San Martín recién construidos, cuartel de la Guardia Civil, matadero, asilo, batzoki, la primera piedra en la reconstrucción de la ferrería de Mirandaola… Sus imágenes más conocidas corresponden al pueblo y a la fábrica, pero Lucio era un hombre muy religioso [127], por lo cual también encontramos multitud de fotografías de celebraciones religiosas y del interior de la parroquia legazpiarra antes de su reforma: santos, vírgenes, el retablo y la capilla de la cruz.

Biltegia. / ***Almacén.*** **ca. 1932.** © Lucio Vergara Machicote. (GSM).
(Willy Kochek sinatutako argazkia / *Fotografía firmada por Willy Koch*).

Vergara revelaría él mismo las placas negativas, pero no ejecutaba las ampliaciones. Algunas de sus fotografías se procesaron en los establecimientos de Leopoldo Pedrosa y Willy Koch, en San Sebastián. Lucio realizó fotografías para su patrón a lo largo de muchos años. Una fotografía del Almacén de Expedición de Herramientas realizada por Vergara se publicó en el catálogo de herramientas de 1932 [128]. Vergara fue jefe de obras y hombre de confianza de Patricio Echeverría en la construcción de la nueva fábrica de limas de Idiazábal, pabellones levantados en 1940 [129]. Lucio también fotografió la construcción de las nuevas instalaciones, y se conservan dos ampliaciones de la fábrica de Idiazábal de la época. Resulta curioso e intrigante que tres copias de gran formato, de fotografías realizadas con una diferencia de ocho años, una del almacén (1932) y otras dos de la fábrica Idiazábal (1940) estén firmadas de puño y letra por Willy Koch, siendo el autor de las mismas Lucio Vergara. Se puede suponer que el laboratorio de Koch realizara los ti-

Langileen bazkaria Urbasan. 1939-07-18. / ***Comida de los obreros en Urbasa. 18-07-1939.*** © Lucio Vergara Machicote. (LVF).

rategiak egiten zituela, baina harrigarria gertatzen da, eta susmagarria, azken horren sinadura aurkitzea kopietan.

Lucio Vergara 1978ko abuztuaren 4an hil zen Legazpin, 86 urte zituela [130]. Haren legatua ez da udalerritik kanpo ibili, eta herriko argitalpen batzuetan agertu dira haren argazki batzuk, herriko bistak edo kaleak. Lenbur fundazioak, Vergara familiarekin lankidetzan, erakusketa bat eskaini zion Legazpiko Bikuña jauregian 1999an. Mostran kopia berriak erakutsi ziren,

rajes en gran formato, pero resulta sorprendente y sospechoso encontrar su firma en las copias.

Lucio Vergara falleció en Legazpi el 4 de agosto de 1978 a los 86 años de edad [130]. Su legado no ha trascendido fuera del municipio, siendo reproducidas en diversas publicaciones locales algunas de sus imágenes con vistas del pueblo o sus calles. La Fundación Lenbur, en colaboración con la familia de Vergara, le dedicó una exposición en el Palacio Bikuña de Legazpi en 1999.

Langileen bazkaria Urbasan. 1939-07-18. / ***Comida de los obreros en Urbasa. 18-07-1939.*** © Lucio Vergara Machicote. (LVF).

jatorrizko negatiboetatik egindakoak, eta lehen aldiz eskaini zitzaion publikoari haren obraren osotasunera hurreratzeko ikuspegia. Lucio Vergararen ahaideek gordetzen dituzte hark erabilitako kamerak, kristalezko ia 1.000 negatibo, eta hainbat pelikula erroiluetan, Legazpin hartuak 1930. urteaz geroztik. Haren artxiboa digitalizazio prozesuan dago [131]. Hurrengo urratsa, zentzu onez, ondare hori zabaltzea litzateke, baina egiteko horretarako beharrezkoak dira hainbat konpromiso erakundeen aldetik.

En la muestra se exhibieron copias nuevas realizadas a partir de los negativos originales, ofreciendo por vez primera al público una aproximación al conjunto de su obra. Los familiares de Lucio Vergara conservan las cámaras que utilizó, los casi 1.000 negativos de cristal y multitud de película en rollos tomados en Legazpi a partir de 1930. Su archivo está en proceso de digitalización [131]. El siguiente paso lógico sería la divulgación de este patrimonio, actividad que requiere necesariamente otra serie de compromisos institucionales.

Willy Koch Schöneweiss. Argazkilari-saga baten aitzindari. 1930eko eta 1940ko urteak

Argazki-funts honetako argazkirik gehienak –40 irudi eta gehiago– Willy Kochek sinatuta daude. Askok zigilu lehor baten marka daukate eta beste batzuk eskuz sinatuta daude, irudi fotografikoaren beraren gainean; halaxe gertatzen da Lucio Vergarak egindako argazkietan, Kochek sinatzen baititu bere eskuz. Koch Vergararen argazkiez jabetu izanak zalantza sor-

Willy Koch Schöneweiss. Pionero de una saga de fotógrafos. Años 30 y 40

El mayor número de fotografías de este fondo -más de 40 imágenes- están firmadas por Willy Koch. Muchas llevan la marca de un sello seco y otras están rubricadas a mano, sobre la propia imagen fotográfica, como en el caso de las fotografías realizadas por Lucio Vergara y firmadas por Koch de puño y letra. La apropiación realizada por Koch de las fotografías de Vergara plantea

Esmerilak. / ***Esmeriles.*** **ca. 1946**. © Willy Koch. (GSM).

Legazpi. 1941 aurrekoa. / ***Anterior a 1941***. © Willy Koch. (GSM).

tzen du argazkien egiletzaz, baina, argazki asko eta asko haren sinadurarekin ikustean, pentsatzen dugu berak ere parte hartu zuela argazkilari gisa, Echeverríak kontratatuta. Argazkietan erakusten diren eszena mota eta kopien tratamendua kontuan hartuta, ikusten da aldi desberdinetakoak direla, eta interes eta kalitate handiagokoak dira lehenbizikoak, antzinakoenak. Argazki horietako batzuk 1932ko erreminta-katalogoan argitaratu ziren [132]. Beste serie bat 1940ko hamarkada amaierakoa da.

Willy Koch Schöneweiss Alemaniako Solingen herrian jaio zen 1878an. Donostian jarri zen lanean, 1899an Benjamín eta Car-

dudas sobre la autoría de las mismas, pero ante la abundancia de imágenes con su firma suponemos que él también colaboró como fotógrafo contratado por Echeverría. Tanto por el tipo de escenas mostradas en las fotografías como por el acabado y tratamiento de las copias se observa que corresponden a épocas distintas, resultando de mayor interés y calidad las primeras imágenes, las más antiguas. Algunas de estas fotografías se publicaron en el catálogo de herramientas de 1932 [132]. Otra serie de ellas corresponden a finales de la década de 1940.

Willy Koch Schöneweiss nació en Solingen (Alemania) en 1878. Se instaló en San Sebastiín trabajando en el establecimiento

men Resines neba-arrebek ireki zuten argazkilaritza-establezimenduan. 1906an Magdalena Bengoechea donostiarrarekin ezkondu zen, eta harekin lau seme-alaba izan zituen: Guillermo (Willy), Sigfrido, Carmen eta Pablo [133]. Bere estudioa 1908an ireki zuen Avenida de la Libertad 20ko 4.ean [134], eta matrikula industrialen zerrendan agertzen da argazkilari gisa 1909tik aurrera, betiere lehen mailako argazkilari gisa kotizatuz 1911z geroztik [135]. 1935eko urtarrilean, Avenida de la Libertad 41ko beheko solairuan jarri zen Koch [136], eta hantxe iraun zuen Willy Koch estudioak, harik eta 1974an eraikina bota zuten arte [137].

fotográfico que habían abierto en 1899 los hermanos Benjamín y Carmen Resines. En 1906 se casó con la donostiarra Magdalena Bengoechea, con la cual tuvo cuatro hijos: Guillermo (Willy), Sigfrido, Carmen y Pablo [133]. Abrió su propio estudio en la Avenida de la Libertad nº 20, 4º en 1908 [134], constando en la relación de matrículas industriales como fotógrafo a partir de 1909 y cotizando siempre como fotógrafo de primera a partir de 1911 [135]. En enero de 1935 Koch se instaló en la Avenida de la Libertad nº 41 bajo [136], lugar donde permaneció el estudio Willy Koch hasta ser derribado el edificio en 1974 [137].

Esmerilak. / ***Esmeriles.*** **ca. 1940.** © Willy Koch. (GSM).

Willy Koch entzutetsua zen euskal argazkilaritzan. Euskal Herriko argazkilaritza-artearen aitzindarietako bat izan zen, eta ofizio berean zenbait belaunalditan jarraitu duen argazkilari-familia baten aitalehena. Koch 1950ean hil zen Donostian, eta seme-alabek jarraitu zuten negozioarekin: Willy Koch Bengoechea, Sigfrido Koch Bengoechea, Carmen Koch Bengoechea eta Pablo Koch Bengoechea. Haren iloba Alberto Schommer Kochek –Alberto Schommer Garcíaren aitak– argazkilaritza-estudio bat ireki zuen Gasteizen 1925ean. Sigfrido Koch Arrutik, Sigfrido Koch Bengoechearen semeak (Donostia 1936-1992), ondare aberatsa utzi zuen argazkilari moduan, euskal kulturari eta bertako pertsonaiei dagokienez. Gaur egun Koch sendiaren laugarren belaunaldiak baditu zenbait argazkilari: Justi García Koch, Marco Bailón Koch, Edurne Koch Elizegi eta Nagore Koch Elizegi. [138]

Biluzia / *Desnudo.*
© Willy Koch Schöneweiss. (WKL).

Autoerretratua. / *Autorretrato.*
© Willy Koch Schöneweiss. (WKL).

Willy Koch Schöneweiss alemaniarrak lan handia egin zuen egile-argazkilari gisa, lan-jardunaz eta jardun komertzialaz gain. Koch berebiziko erretratugilea zen, eta argazkilari errekonozitua Estatu osoan. Tinta koipetsuen espezialista izan zen, eta teknika hori erabili zuen paisaiak, erretratuak eta biluziak aurkezteko garai hartako saloi fotografikoetan eta erakusketetan, eta halaxe bihurtu zen argazkilari piktorialisten lehen belaunaldiko izen nagusietako bat [139].

El estudio de Willy Koch era célebre en el ámbito de la fotografía vasca. Fue uno de los pioneros del arte fotográfico en el País Vasco y el patriarca de una familia de fotógrafos que ha continuado con el mismo oficio durante varias generaciones. Koch falleció en San Sebastián en 1950, siendo sus hijos los que siguieron con el negocio: Willy Koch Bengoechea, Sigfrido Koch Bengoechea, Carmen Koch Bengoechea y Pablo Koch Bengoechea. Su sobrino Alberto Schommer Koch -padre de Alberto Schommer García- abrió un estudio de fotografía en Vitoria en 1925. Sigfrido Koch Arruti, hijo de Sigfrido Koch Bengoechea (San Sebastián 1936 - 1992), es otro fotógrafo que dejó un rico patrimonio de imágenes referentes a la cultura vasca y sus personajes. Hoy en día la cuarta generación de los Koch sigue contando con varios fotógrafos: Justi García Koch, Marco Bailón Koch, Edurne Koch Elizegi y Nagore Koch Elizegi [138].

Willy Koch Schöneweiss desarrolló una gran labor como fotógrafo de autor al margen de su actividad profesional y comercial. Koch era un gran retratista y un reconocido fotógrafo a nivel estatal. Fue un especialista de las tintas grasas, técnica que utilizó para presentar paisajes, retratos y desnudos en salones fotográficos y exposiciones de la época, convirtiéndose en uno de los nombres propios de la primera generación de fotógrafos pictorialistas [139].

Tras fallecer Willy -en 1950- los cuatro hijos continuaron regentando el estudio [140], manteniendo la denominación Willy Koch. El 12 de diciembre de 1951 el ayuntamiento de San Sebastián

Lehen jaunartzea / *Primera comunión*. © Willy Koch Schöneweiss. (WKL).

Laborategia. / *Laboratorio.* ca. 1939. © Willy Koch. (GSM).

Willy hil ondorenean –1950ean– lau seme-alabek jarraitu zuten estudioarekin [140], eta Willy Koch izenari eutsi zioten. 1951ko abenduaren 12an Donostiako Udalak baimena eman zion Willy Koch Bengoecheari optika tailer txiki bat jartzeko Avenidako estudioko sotoan [141]. Negozioak langile asko zeuzkan, zenbait zereginetarako. Estudioan 25 lagun ere aritu ziren lanean, argazkilari, positibatzaile, ukitu-emaile eta administrari [142]. Hala, 1970ean Pablo Koch Bengoechea eta haren seme Willy Koch Louvelly-k sukurtsal bat ireki zuten Errenterian, izen berarekin [143]. Willy Koch Louvellyk Avenidako estudioan lan egin zuen lehenago, eta, esaten digunez, Willy Koch izena marka bihurtu zen, tradizio handiko enpresa baten izen. Koch Louvelly 2015ean jubilatu zen, eta itxi egin zuen Errenteriako Erdiko Kalean kokatutako estudioa; halaxe bukatu zuen Willy Koch firma. Urte hartan bertan, erakundeek agertu zuten interesik ezaren aurrean, Willyk bildumagile iparramerikar bati saldu zion aitonak tinta koipetsuekin egindako argazki-bilduma. Willy Koch Louvellyk gogoan du nola desegin zuten Avenidako artxibo fotografikoa: bi aste eman zituzten banan banan negatibo guztiak hausten, zenbait pertsonaren artean. Willyk ez daki zergatik agindu zioten zeregin triste hura. Kontua da kalitate handiko milaka argazki zituen artxibo handi bat galdu zela zaborretan [144].

concedió a Willy Koch Bengoechea la autorización para instalar un pequeño taller de óptica en el sótano del estudio de la Avenida [141]. El negocio contaba con multitud de empleados encargados de realizar distintas tareas. En el estudio llegaron a trabajar en torno a 25 personas, entre fotógrafos, positivadores, retocadores y administrativos [142]. En 1970 Pablo Koch Bengoechea y su hijo Willy Koch Louvelly abrieron una sucursal en Rentería, Gipuzkoa, con el mismo nombre [143]. Willy Koch Louvelly trabajó anteriormente en el estudio de la Avenida, y según nos indica, la denominación Willy Koch se convirtió en una marca, un nombre de empresa con solera. Koch Louvelly se jubiló en 2015, cerrando el estudio ubicado en Erdiko Kalea de Rentería, poniendo punto final a la firma Willy Koch. Ese mismo año, tras el desinterés mostrado por las instituciones, Willy había vendido la colección de fotografías a las tintas grasas realizadas por su abuelo a un coleccionista norteamericano. Willy Koch Louvelly recuerda como se deshicieron del archivo fotográfico del local de la Avenida: tardaron dos semanas en romper uno a uno todos los negativos entre varias personas. Willy desconoce la extraña razón por la cual le asignaron esa triste tarea. El caso es que otro inmenso archivo con miles de imágenes de gran calidad desapareció en la basura [144].

Laborategia. / *Laboratorio.* ca. 1939. © Willy Koch. (GSM).

Legazpi. ca. 1950. © J. García - Manipel. (GSM).

J. García - Manipel. Argazkilaria eta posta-txartelen editorea. 1940ko hamarkada

Ez dira hamar ere aurkitutako irudiak, horietako batzuk bi bider sinatuak, *Manipel Av. Generalísimo 28, San Sebastián* estanpa atzean dutela, eta zigilu lehorrarekin *J. García* beheko aldean jarrita. Argazki gutxi dira, baina serierik interesgarrienetako bat da egiteko erari dagokionez. Era berean, kalitate handiko egile bat ageri da lanotan: José García. Hala, Garcíak egindako bailararen ikuspegi eder-ederra, lehen planoan fabrika ageri duela, 1955eko erreminta-katalogoan argitaratu zen, atzealdean herria eta Aizkorriko mendikatea dituela [145]. Garcíak sinatutako beste argazki batzuk fabrikako instalazioen kanpoko bistak dira, edota Echeverríak eraikitako eraikinenak.

Ez da erraza izan haren arrastoari segitzea 1950eko hamarkada baino lehen, argazkilari asko baitago J. iniziala eta García abizena dituena, hainbat herritan, penintsula guztian. [146]. Donostiatik gertuko herrietan begiratuta, badira argazkilari batzuk izen horrekin.

1909tik hasi eta 1921 arte, jakin badakigu J. García izeneko argazkilari bat izan zela San Martin Unxen. Nafarroako herri horretan finkaturiko argazkilari horri buruzko erreferentzia

J. García - Manipel. Fotógrafo y editor de postales. Años 40

No llegan a la decena las imágenes localizadas, doblemente firmadas algunas de ellas, con la estampa Manipel Av. Generalísimo 28, San Sebastián *al dorso y el sello seco* J. García *en la zona inferior. Son pocas fotografías pero se trata de una de las series más interesantes en lo que a su ejecución se refiere, encontrándonos con otro autor de gran calidad: José García. Una preciosa panorámica del valle realizada por García, en la que se muestra la fábrica en primer plano, el pueblo detrás y la cordillera del Aizkorri al fondo, se publicó en el catálogo de herramientas de 1955 [145]. Otras fotografías firmadas por García corresponden también a vistas exteriores de las instalaciones fabriles y de las edificaciones construidas por Echeverría.*

No ha resultado fácil seguir su pista antes de los años 50 debido a la multitud de fotógrafos con la inicial J. y el apellido García encontrados en diversas localidades a lo largo de toda la península [146]. Centrándonos en las zonas más próximas a Donostia localizamos a varios fotógrafos con esta denominación.

Desde 1909 hasta 1921 hay constancia del fotógrafo J. García en San Martín de Unx. La única referencia sobre este fotógrafo

bakarra 1909, 1914 eta 1921eko urtekari komertzialetan egin zituen iragarkiak izan ziren [147].

José García Donostiako matrikula industrialetan aurkitzen dugu 1911n eta 1912an, bigarren mailako argazkilari gisa Miracruz kaleko 1. zenbakian. Ondoren, 1913 eta 1916 artean, kategoria berarekin agertzen da kale bereko 13. zenbakian, eta baja eman zuen 1917an [148]. J. García Miracruz kaleko 13. zenbakian iragartzen zen Donostian, 1914 eta 1917 urteetako urtekari komertzialetan, eta, Alberto Aguilera kaleko 37. zenbakian 1926an [149]. 1926an inprimatutako urtekari horretan agertzen den informazioa ez da zuzena, Donostian ez baitzen izan Alberto Aguilera izeneko kalerik [150]. 1914ko erroldek berresten dute José García Pérez zela, 1883ko martxoaren 20an La Habanan jaioa, Miracruz 13an behean bizi zena bere emaztearekin, hiru seme-alabekin, neskame batekin eta beste senitarteko batzuekin. Hala, 1915eko erroldan adierazten da García hirian bizi zela azken zazpi urteetan [151].

Izen eta abizen bereko beste argazkilari batek Pasaian ordaintzen zuen kontribuzioa 1929an, eta gremio horretako bakarra zen herrian [152]. 1932ko urtekari komertzialetan J. García Pasai San Pedron iragartzen zen [153], eta orduan ere argaz-

afincado en la localidad navarra son los anuncios que realizó en los anuarios comerciales de 1909, 1914 y 1921 [147].

Localizamos a José García en las matrículas industriales de San Sebastián de 1911 y 1912 como fotógrafo de segunda en la Calle Miracruz nº 1. Entre 1913 y 1916 aparece con la misma categoría en el nº 13 de la misma calle, dándose de baja en 1917 [148]. J. García se anunciaba en San Sebastián en la calle Miracruz nº 13 en los anuarios comerciales de 1914 y 1917 y en la calle Alberto Aguilera nº 37 en 1926 [149]. La información facilitada por ese anuario impreso en 1926 es incorrecta ya que en San Sebastián no existió la calle Alberto Aguilera [150]. Los padrones de 1914 confirman que se trataba de José García Pérez, nacido el 20 de marzo de 1883 en La Habana, residente en la calle Miracruz nº 13 bajo junto con su mujer, tres hijos, una doméstica y otros familiares. En el padrón de 1915 se indica que García residía en la ciudad desde hacía siete años [151].

Otro fotógrafo con el mismo nombre y apellido contribuía en Pasajes en 1929, siendo el único del gremio en la localidad [152]. En los anuarios comerciales de 1932 J. García se anunciaba en Pasajes de San Pedro [153] y seguía siendo el único fotógrafo que tributaba en esas fechas en Pasajes [154]. Tras revisar el

Legazpi. ca. 1950. © J. García - Manipel. (GSM).

kilari bakarra zen data horietan Pasaian zergapeko [154]. Hala, 1935eko biztanle-errolda berrikusi ostean egiaztatu dugu José García Arbaiza zela argazkilaria, Bilbon jaioa 1853ko azaroaren 14an. Pasaian bizi zen 1923tik, Francisco Andonaegui kaleko 39. zenbakian, bere emazte Dolores Secades Rodríguezekin batera [155]. Hain justu ere, 1938ko industria-erroldaren arabera –86 urte zituela– argazkilari gisa zergapeko zen artean, Pasaiako General Mola kalean, 19. zenbakian [156].

Bazen beste J. García bat, Zaragozako San Miguel kaleko 13. zenbakian iragartzen zena 1927an [157]. Ez da datu gehiagorik eskuratu garaiko biztanle-erroldetan [158], baina susmatzen dugu Donostiako Manipel etxearen fundatzailea izan daitekeela: José García Garrabella.

José García Garrabella Huescan jaio zen 1898ko martxoaren 12an, Coso Alto kaleko 22an; Galo García eta Paulina Garrabella zituen guraso [159]. 1900eko biztanle-erroldan agertzen denez, aitak –Galo García Urtari eskribaua– helbide berean jarraitzen zuela urte horretan [160]. Aitaren erreferentziari esker baieztatu da José beste argazkilari zaragozar entzutetsu baten anaia zela, Luis García Garrabellarena, 1906ko abenduaren 16an jaioa Santa María de la Peña herrian (Huesca) [161], eta postal-argazkiak argitaratu zituen Zaragozan, Ediciones Luker izenarekin.

Zaragozako 1930eko biztanle-erroldak adierazten du José García Garrabella, 32 urtekoa eta lanbidez argazkilaria, Cerezo kaleko 64an bizi zela, 3. solairuan, Manuela Carenas Bueno emaztearekin batera, 30 urtekoa eta sortzez Villanueva de Zaragoza herrikoa. Helbide berean zegoen erroldatuta, era berean, Joséren arreba bat: Mercedes García Garrabella, 20 urtekoa eta Santa María de la Peña herrian jaioa (Huesca). Errolda hori ere 1930ekoa da, eta, adierazten duenez, beste helbide batean, Monterregado kaleko 12ko beheko solairuan, honako senar-emazte hauek bizi ziren: Alfonso García Ga-

"Tarjeta Postal, Zaragoza: Artística perspectiva del primer Templo Mariano." © Ediciones Luker. (GSM).

padrón de habitantes de 1935 comprobamos que se trataba de José García Arbaiza, nacido en Bilbao el 14 de noviembre de 1853, fotógrafo, residía en Pasajes desde 1923, domiciliado en el nº 39 de la calle Francisco Andonaegui junto con su mujer Dolores Secades Rodríguez [155]. Según el censo industrial de 1938 -a sus 86 años- seguía contribuyendo como fotógrafo en la calle General Mola nº 19 de Pasajes [156].

Había otro J. García anunciándose en la calle San Miguel nº 13 de Zaragoza en 1927 [157]. No se han obtenido más datos en los padrones de habitantes de la época [158], pero sospechamos que podría tratarse del fundador de la firma Manipel en San Sebastián: José García Garrabella.

José García Garrabella, nació el 12 de marzo de 1898 en Huesca, en la calle Coso Alto nº 22, hijo de Galo García y Paulina Garrabella [159]. En el censo electoral de 1900 consta que su padre -el escribiente Galo García Urtari- seguía residiendo en la misma dirección ese año [160]. Gracias a la referencia paterna se ha confirmado que José era el hermano de otro reconocido fotógrafo zaragozano, Luis García Garrabella, nacido el 16 de diciembre de 1906 en Santa María de la Peña (Huesca) [161], que editó postales fotográficas en Zaragoza como Ediciones Luker.

El padrón de habitantes de 1930 de Zaragoza indica que José García Garrabella de 32 años y fotógrafo de profesión residía en la calle Cerezo nº 64, 3º, junto con su mujer Manuela Carenas Bueno, de 30 años y natural de Villanueva de Zaragoza. En el mismo domicilio estaba empadronada también una hermana de José: Mercedes García Garrabella, de 20 años y nacida en Santa María de la Peña (Huesca). Ese padrón de 1930 señala que en otra dirección, en la calle Monterregado nº 12, bajo, se encontraba el matrimonio formado por Alfonso García Garrabella, de 35 años, nacido en Huesca y chófer de profesión y Agapita Rubio Moreno, de 40 años, nacida en Hornillo, Logroño [162].

El censo electoral de Zaragoza de 1934 aporta más datos. Los dos hermanos, José y Luis, ambos fotógrafos de profesión, vivían en la calle Cerezo nº 64 y en Monterregado nº 12 respectivamente. Según este censo, Mercedes, dedicada a sus labores, estaba domiciliada en el nº 11 de la calle Monterregado, junto a su hermano Luis [163]. En el padrón de 1935 ninguno de los tres hermanos citados figuraba en esas residencias [164].

Durante la Guerra Civil (1936 - 1939) Zaragoza fue junto con Sevilla la ciudad española más importante de la Zona Nacional, siendo las editoriales e imprentas zaragozanas las primeras en proporcionar tarjetas postales con fines propagandísticos. Des-

Legazpi. ca. 1948. © J. García - Manipel. (GSM).

rrabella, 35 urtekoa, Huescan sortua eta lanbidez txoferra, eta, Agapita Rubio Moreno, 40 urtekoa, Hornillon jaioa, Logroñon [162].

Zaragozako 1934ko hauteskunde-erroldak datu gehiago ematen du. Bi anaiak, José eta Luis, biak argazkilariak lanbidez, Cerezo kaleko 64an eta Monterregado kaleko 12an bizi ziren, hurrenez hurren. Errolda horren arabera, Mercedes, etxeko zereginetara emana, Monterregado kaleko 11. zenbakian zegoen erroldatuta, Luis anaiarekin batera[163]. 1935eko erroldan aipatutako hiru anaietatik bakar bat ere ez zegoen helbide horietan [164].

Paisajes Españoles zigilua duten argazkiek marka eta helbide desberdinak dituzte, guztiak ere Madrilen kokatuak. Horietako bostek 6905, 6907, 6911, 6912 eta 6917 zenbakiak dituzte eta, antza, horrek adierazten du hegaldi berekoak direla. Irudi batean, 6905 artxibo zenbakia duen irudian, Legazpiren ikuspegi osoa agertzen da, atzean fabrika dela. Argazkia 1961 aldean egingo zen, garai hartan egindako elizaren handitzea eta birmoldaketa ikusten baitira [210]. Era berean, nabari da San Juan auzoa eraiki berria dagoela bere osoan. Hiru argazkik PESAren instalazioen parte bat erakusten dute, eta zigilua dute atzean: *PAISAJES ESPAÑOLES, REPORTAJES AEREOS, APTDO. 21040, MADRID. Nº 6907 y 6911. / PAISAJES ESPAÑOLES, FOTOGRAFÍAS AEREAS, Doce de Octubre, 9 - Apdo. 21040 - Tel. 226 93 34, MADRID (9), Prohibida la reproducción sin autorización y sin citar su procedencia. Nº 6912.* Irudi batean, 6917 zenbakiarekin, Urtatzako urtegia ikusten da, urte batzuk lehenago Echeverríak eraikia.

Paisajes Españoles zigilua duen beste argazkietako batean data idatzi zen atzealdean: 1961eko iraila. Irudiak 14868 - 9 - 1961 zenbakia dauka, eta Altzairutegia eta Laminazio Berria ageri dira, noiz eta Urretxurako bidea artean fabrika barrutik zihoanean, gaurko saihesbidea egiten ari zirenean.

Hurrenkeran doazen hiru argazkien loteek (41078, 41079 eta 41080) ohar berbera dute atzealdean idatzita: "Terrenos y Depós. Legazpia". Halaber, honako zigilu hau dute: *PAISAJES ESPAÑOLES, Fco. Silvela, 44 - Aptdo. 13199, Tel. 246 26 49 - MADRID - 6.* Argazkiotan, eraiki gabeko sailak ikusten dira Lau Bide eta Urtatza auzoetan, Patricio Echeverríak bere langileentzat azken etxebizitzak eraiki zituen inguruan, bai eta San Juan auzoa ere, ordurako eraikia. Argazki horiek 1961ean egin bide ziren, edo hortik aurrera.

Paisajes Españoles. Madrid. Fotografías aéreas. Años 60

Al margen de las tres fotografías efectuadas desde el aire por T.A.F. otras nueve tomas aéreas están firmadas por Paisajes Españoles. Encontramos también trece imágenes con un número de archivo en su parte trasera pero sin ninguna otra información. En 1958 T.A.F. visitó la localidad, efectuando seis tomas en los dos únicos vuelos realizados por los catalanes sobre Legazpi. Suponemos que el resto de fotografías aéreas sin firmar, captadas a finales de los años 50 y comienzos de los 60, fueron realizadas por Paisajes Españoles.

Las fotografías con el sello Paisajes Españoles *tienen distintas marcas y direcciones -todas ellas ubicadas en Madrid-. Cinco de ellas llevan los números 6905, 6907, 6911, 6912 y 6917 lo cual parece indicar que corresponderían al mismo vuelo. En la imagen con el nº de archivo 6905 se contempla una vista general de Legazpi con la fábrica al fondo. La fotografía se realizaría hacia 1961, ya que se observan las obras de ampliación y remodelación de la iglesia parroquial efectuadas en esas fechas [210]. El barrio San Juan se contempla recién edificado en su totalidad. Tres fotografías muestran parte de las instalaciones de P.E.S.A. y tienen estos sellos al dorso:* PAISAJES ESPAÑOLES, REPORTAJES AEREOS, APTDO. 21040, MADRID. Nº 6907 y 6911. / PAISAJES ESPAÑOLES, FOTOGRAFÍAS AEREAS, Doce de Octubre, 9 - Apdo. 21040 - Tel. 226 93 34, MADRID (9), Prohibida la reproducción sin autorización y sin citar su procedencia. Nº 6912. *En la imagen con el nº 6917 se contempla el embalse de Urtatza construido años antes por Echeverría.*

En otra de las fotografías con el sello de Paisajes Españoles se anotó la fecha en la parte posterior: septiembre de 1961. Lleva el nº 14868 - 9 - 1961. La imagen muestra la Acería y la Laminación Nueva cuando la carretera hacia Urretxu discurría todavía por el interior de la fábrica y la variante actual estaba en ejecución.

Un lote de tres fotografías con números correlativos (41078, 41079 y 41080) tienen la misma anotación manuscrita al dorso: "Terrenos y Depós. Legazpia" y llevan el sello: PAISAJES ESPAÑOLES, Fco. Silvela, 44 - Aptdo. 13199, Tel. 246 26 49 - MADRID - 6. *En las fotografías se observan los terrenos sin edificar de los barrios Lau Bide y Urtatza, la zona donde Patricio Echeverría construyó las últimas viviendas para sus obreros, y el barrio San Juan construido. Estas fotografías se realizarían en 1961, o a partir de esa fecha.*

Legazpi. "Nº 0113". ca. 1957-1958. Egile ezezaguna / *Autor desconocido.* (GSM).

Sinatu gabeko gainerako argazki airetikoetan –gaude, halere, Paisajes Españoles etxeak egin zituela–, PESAko instalazioen bistak ikusten dira, herrigunearenak eta Urtatzako urtegiarenak. Iruditzen zaigu guztiak hegaldi berean egin zirela, atzean zenbaki korrelatiboak baitituzte estanpatuta: 0106, 0107, 0109, 0110, 0113, 0114, 0116, 0118, 0119, 0124, 0125, 0126 eta 0127. Argazkiak ilunabarrean egin ziren, lur-arraseko eguzki-argiarekin; hala adierazten dute eraikinen itzal luzeek. Serie hau 1957an edo 1958 hasieran egin bide zuten. Irudietako batean San Juan auzoko obrak ikusten dira hasi berritan [211], eta horiek duten fasea TAF enpresak 1958ko abuztuan erakusten dutenaren antzekoa da. Baina serie honetako beste argazki batek baieztatzen du TAFena baino lehenagoko hegaldi bat dela, artean hasi gabea baitzen Fundizio Berriaren eraikuntza eta Olaetxe baserria kokaleku berrian berreraikita ikusten baita, baina artean bukatu gabe. Baserri hori bere jatorrizko lekutik aldatu zuten, Fundizio Berria egin ahal izateko. TAFek 1958ko abuztuan egindako argazkietan, Olaetxe baserria guztiz berreraikita ikusten da.

Enpresak hegaldi bertikalak egiten zituen lehen garaietan; ondoren, argazki oblikuoak ateratzen espezializatu zen, eta jarduera horregatik da gaur ezagunagoa Paisajes Españoles SA [212]. Konpainiak, gaur egun, Marqués de Monteagudo kaleko 22. zenbakiko 3. solairuan du egoitza, Madrilen [213]. Paisajes Españoles enpresaren hegazkinek hamarkadetan zehar argazkiak atera dizkiete Espainia osoko herriei, hiriei, monumentuei, herri-lanei eta lan pribatuei, bai eta instalazio industrialei ere. Tankera guztietako bezeroak izan dituzte, erakunde publikoak, enpresa pribatuak edota bezero partikularrak. Negozioak bi arlo desberdin dauzka: airetiko erreportajeak enkarguz egitea eta artxiboko irudiak saltzea. Artxiboko katalogoak 1.300.000 erreferentzia baino gehiago ditu, eta grafikoki jasotzen du airetik Espainiako geografiako parte handi baten hirigintza-bilakaera eta -garapena, 1950eko hamarkada amaieratik gaur arte. Enpresak bere hegazkin-flota izan du, bai eta argazkiak prozesatzeko laborategia ere. Enkarguz egindako lanez aparte, konpainiak bere kabuz ere egin zituen argazkiak [214]. Argazki-artxibo erraldoi honen azterketa eta analisia egitea, non eta noiz aritu diren jakiteko, oso konplexua da; izan ere, haien sailkapena argazkian jasotako motiboetan oinarrituta dago, eta irizpide horren arabera dauzka antolatuta bere funtsak Paisajes Españoles enpresak [215].

Madrilen 1955ean fundatutako airetiko argazki-enpresa honek sukurtsal bat izan zuen Donostian, Isabel II kaleko 22. zenbakian. Establezimendua itxi egin zen, eta hutsik egon zen zenbait urtez, Paisajes Españoles errotulua fatxadan zuela. Gaur egun

En el resto de fotografías aéreas sin firmar -pero que suponemos fueron ejecutadas por Paisajes Españoles-, se contemplan distintas vistas de las instalaciones de P.E.S.A., del casco urbano y el pantano de Urtatza. Suponemos que todas ellas fueron hechas en el mismo vuelo, ya que tienen estampados al dorso números correlativos:0106,0107,0109,1010,0113,0114,0116,0118,0119, 0124, 0125, 0126 y 1027. Las fotografías se realizaron al atardecer, con luz solar rasante, según muestran las alargadas sombras de los edificios. Esta serie tuvo que realizarse hacia 1957 o comienzos de 1958. En una de las imágenes se observan las obras del barrio San Juan recién iniciadas [211], encontrándose en una fase similar a la que muestran las fotografías realizadas por T.A.F. en agosto de 1958. Pero otra de las fotografías de esta serie confirma que se trata de un vuelo anterior al de T.A.F., ya que todavía no se había iniciado la construcción de la Fundición Nueva, y se observa la reconstrucción del caserío Olaetxe en su nuevo emplazamiento, pero sin finalizar todavía. Este caserío fue trasladado desde su ubicación original, para poder edificar la Fundición Nueva. En las fotografías de agosto de 1958 efectuadas por T.A.F el caserío Olaetxe se contempla completamente reconstruido.

La empresa realizaba vuelos verticales en sus primeros tiempos, especializándose más tarde en la obtención de fotografías oblicuas, actividad por la que en la actualidad es más conocida Paisajes Españoles S.A. [212]. La compañía tiene su sede actualmente en la calle Marqués de Monteagudo nº 22, 3º de Madrid [213]. Los aviones de Paisajes Españoles han fotografiado durante décadas pueblos, ciudades, monumentos, obras públicas y privadas e instalaciones industriales de la geografía española, siendo sus clientes tanto organismos institucionales como empresas privadas y clientes particulares. El negocio consta de dos áreas diferenciadas; realización de reportajes aéreos por encargo y la venta de imágenes de archivo. El catálogo del archivo contiene más de 1.300.000 referencias, recogiendo de forma gráfica y desde el aire la evolución y desarrollo urbanístico de gran parte de la geografía española desde finales de los años 50 hasta la actualidad. La empresa ha contado con flota de aviones propios y laboratorio para procesar las fotografías. Al margen de los trabajos realizados por encargo la compañía efectuó fotografías por cuenta propia [214]. El estudio y análisis de este enorme archivo fotográfico en lo que se refiere a su distribución espacial y temporal resulta muy complejo, debido a la clasificación basada en los motivos fotografiados, criterio utilizado por Paisajes Españoles en la organización de sus fondos [215].

Esta empresa de fotografía aérea fundada en 1955 en Madrid tuvo una sucursal en Donostia en el nº 22 de la calle Isabel II. El establecimiento se clausuró, permaneciendo vacío durante



Legazpi. "Nº 0107". ca. 1957-1958. Egile ezezaguna / *Autor desconocido.* (GSM).

lokal horretan beste negozio bat dago. Donostiako sukurtsal honetan, argazkilari gisa lan egin zuten Iñaki Aguirre Francok eta Peio Lópezek. Azken hori pilotuarekin batera hil zen hegaldi batean, enpresarako lan bat egiten ari zirela. Peio Lópezen argazki-funtsa Donostiako Kutxa Fototekan dago gordeta. [216].

Paisajes Españoles enpresak sinatutako zuri-beltzeko argazkiak 1960ko hamarkada hasierakoak dira, eta zigilu bat daukate Madrileko helbidearekin. Corporación Patricio Echeverría Artxiboan badaude koloretako argazki batzuk Paisajes Españoles etxeak eginak; horietakoren bat Madrileko zigiluarekin, eta batzuk Donostiako helbidearekin [217]. PESAk koloretako argazkiak 1967an atera zituen lehen aldiz erreminta-katalogoan, Bilboko Imprenta Industrial etxeak inprimatuta. Katalogo horretan airetiko zenbait argazki aurkitzen ditugu, Paisajes Españoles etxeak eginak, baita beste argazki sail bat ere, enpresako instalazioena, Imprenta Industrial enpresak sinatuta. Data horretatik aurrera, ondorengo katalogo guztiak koloretan inprimatu ziren. 1986ko erreminta-katalogoan, Javier Larrea legazpiarraren argazkiez gain –aurrerago mintzatuko gara hartaz–, Paisajes Españoles etxearen airetiko argazki bat ere ikus dezakegu, eta PESAko instalazio industrialen ikuspegi zabal bat dago hartuta airetik [218]. Artean data horietan enpresak airetiko argazki bidez erakusten zuen bere handitasun guztia, baina, sei urte geroago, batasun hori hautsi egin zen, PESA zatitu egin baitzen beste firma komertzial batzuetan [219].

Funts honetako airetiko argazki hauetako bat, Paisajes Españoles etxeak PESArentzat egina, *Revista Financiera, Número Extraordinario Dedicado a Guipúzcoa* aldizkarian ikusten dugu, Banco de Vizcayak argitaratuta 1963ko apirilean [220]. Argitalpenean adierazten da –argazki-oin batean– argazkia Paisajes Españoles etxeak egina zela. Irudi horrek artxiboan 6912 zenbakia du. Oso litekeena da argazki hori 6905 zenbakidunaren hegaldi berean egina izatea, 1961 inguruan, lerro batzuk lehenago esanda bezala.

Aipatutako *Revista Financiera* horretan, 1963koan, PESAren beste argazki bat atera zen, funts honetan jasoa hura ere. Ikuspegi zabal bat da, orduan inauguratu berri zen Laminazio Berriarena. Argazkia ez dago sinatuta argitalpenean, baina egilea Santi Gabiria argazkilari legazpiarra da, eta harixe eskainiko diogu hurrengo atala.

varios años con el rótulo de Paisajes Españoles en la fachada. Actualmente el local está ocupado por otro negocio. En esta sucursal donostiarra trabajaron como fotógrafos Iñaki Aguirre Franco y Peio López. Éste último falleció junto al piloto en un vuelo, mientras realizaban un trabajo para la empresa. El fondo fotográfico de Peio López se conserva en Fototeca Kutxa de Donostia [216].

Las fotografías en blanco y negro firmadas por Paisajes Españoles corresponden a comienzos de la década de los años 60 y llevan un sello con la dirección de Madrid. En el Archivo de Corporación Patricio Echeverría se conservan también fotografías en color de Paisajes Españoles, alguna con el sello de Madrid y varias con la dirección de San Sebastián [217]. P.E.S.A. publicó por vez primera fotografías a todo color en el catálogo de herramientas de 1967 impreso por Imprenta Industrial de Bilbao. En este catálogo encontramos varias fotografías aéreas realizadas por Paisajes Españoles, junto a otra serie de fotografías de las instalaciones de la empresa firmadas por Imprenta Industrial. A partir de esa fecha todos los catálogos posteriores se imprimieron en color. En el catálogo de herramientas de 1986, junto a las fotografías del legazpiarra Javier Larrea -del cual hablaremos más adelante- encontramos también una fotografía aérea de Paisajes Españoles, contemplándose una vista general de las instalaciones industriales de P.E.S.A. desde el aire [218]. Todavía en esas fechas la empresa mostraba a través de las fotografías aéreas toda su grandeza, unidad que se acabaría seis años más tarde con la fragmentación de P.E.S.A. en otras firmas comerciales [219].

Una de estas fotografías aéreas de este fondo, efectuada por Paisajes Españoles para P.E.S.A, la encontramos reproducida en la Revista Financiera, Número Extraordinario Dedicado a Guipúzcoa*, editada por el Banco de Vizcaya en abril de 1963 [220]. En la publicación se indica -en un pie de foto- que la fotografía estaba realizada por Paisajes Españoles. Se trata de la imagen con el número de archivo 6912. Es muy probable que esta fotografía se realizara en el mismo vuelo que la nº 6905, datada hacia 1961, según se ha indicado unas líneas más arriba.*

En la citada Revista Financiera *de 1963 se reprodujo otra fotografía de P.E.S.A. recogida también en este fondo. Se trata de una vista general de la entonces recién inaugurada Laminación Nueva. La fotografía no está firmada en la publicación, pero el autor es el fotógrafo legazpiarra Santi Gabiria, al cual dedicamos el siguiente capítulo.*

Laminazio Berria. / ***Laminación Nueva*****. ca. 1960.** © Santi Gabiria Lubiano. (GSM).

Foto Gabiria. Lehendabiziko argazkilari profesional legazpiarra PESA enpresan. 1960ko hamarkada

Argazki-funts honetan dozena erdi pasatxo kopia daude formatu handian –50 x 60 cm artekoak– Santi Gabiriak eginak 1960ko hamarkadan. Gabiriak Fundizio Berriaren instalazioak jaso zituen argazkietan, baita Altzairuen Forja, Laminazio Berria, eta Atxurtegia edo Erreminta Forja ere. Santi izan zen Patricio Echeverríak kontratatu zuen lehen argazkilari profesional legazpiarra –eta eskualdekoa–. Gabiriak 1954an inauguratu zuen [221] Legazpiko lehen argazki-establezimendua, hamarkada bat baino gehiago iraun zuena [222]. Foto Gabiriak irudietan jaso zituen herriko gizarte-bizitza eta hirigintza-aldaketak hamarkada pasatxoan, 1967 arte, orduan eman baitzion bere negozioa traspasoan Jesús Mari Andueza Ugarteri [223].

Santiago Gabiria Lubiano Legazpiko Etxetorren jaio zen 1935eko uztailaren 26an [224], eta 1990ean hil zen auto istripuz Almeriatik zetorrela –bere bi zakur artzain belgikarrekin batera–, Somosierrako portua jaisten ari zela. Santi hamahiru anai-arrebetan hamargarrena zen. Patricio Echeverría SAn sartu zen hamalau urterekin lanera, eta, hasi eta berehala, istripu bat izan eta bi hatz galdu zituen. 1954an PESA utzi eta bere lehen estudio fotografiko "xumea" muntatu zuen bere jaiotetxean, eta argazkiak errebelatzeko laborategi bat ere jarri zuen ganbara batean; Vicenta izeneko andre adineko batek erabiltzen utzi zion ganbara batean, hain zuzen [225]. Laborategi txiki hori hartzen zuen eraikina gaur eraitsita dago –Konpiterokoa etxea– [226], Andres Enea etxetik gertu, Navarra kalean.

Ez da ageri kontribuzioetan Santik zerga ordaindu zuenik 1954. eta 1955. urteetan, eta 1956. eta 1957. urteetan hasi zen "fotógrafo sin galería" lizentzia fiskala ordaintzen 18 de Julio kaleko 4. zenbakian (bere jaiotetxearen helbidea, Etxetorre). Gabiria 1958. urteaz geroztik ageri da "fotógrafo con galería" gisa helbide horretantxe [227]. Ondoren, 1961. urteko matrikula industrialen zerrendan ageri da Gabiria, 18 de Julio kaleko estudioarekin. Aldiz, badirudi urte horretan bertan aldatu zuela lokalez; izan ere, 1961eko lizentzia fiskalean "fotógrafo con galería" gisa ordaintzen zuen, bere estudioa edukitzeagatik, Primo de Rivera kaleko 4. zenbakian (gaur egun Aizkorri kalea, 5), eta lokal horretan iraun zuen, negozioa itxi zuen arte [228]. Udalak 1963ko maiatzaren 6an irekitzeko lizentzia eman zion honako hau jartzeko garai hartako José Antonio Primo de Rivera kaleko 4. zenbakian: "Salón de fotografía y venta de material fotográfico, objetos de escri-

Foto Gabiria. Primer fotógrafo profesional legazpiarra en P.E.S.A. Años 60

En este fondo de fotografías encontramos más de media docena de copias en gran formato -de hasta 50 x 60 cm- realizadas por Santi Gabiria en los años 60. Gabiria fotografió las instalaciones de la Fundición Nueva, la Forja de Aceros, la Laminación Nueva y el Atxurtegi o Forja de Herramientas. Santi fue el primer fotógrafo profesional legazpiarra -y de la comarca- contratado por Patricio Echeverría. Gabiria inauguró en el año 1954 [221] el primer establecimiento fotográfico de Legazpi que perduró durante más de una década [222]. Foto Gabiria recogió en imágenes la vida social y los cambios urbanísticos de la localidad durante una década larga, hasta 1967, fecha en la que traspasó su negocio a Jesús Mari Andueza Ugarte [223].

Laminazio Berria. / ***Laminación Nueva.*** **ca. 1960.** © Santi Gabiria Lubiano. (GSM).

Santiago Gabiria Lubiano nació el 26 de julio de 1935 en la casa Etxetorre de Legazpi [224], falleciendo en 1990 en un accidente de tráfico cuando volvía de Almería -acompañado de sus dos perros pastores belgas-, bajando el puerto de Somosierra. Santi era el décimo de 13 hermanos. Con 14 años entró en Patricio Echeverría S.A. donde sufrió un accidente perdiendo dos dedos al poco de comenzar a trabajar. En 1954 dejó P.E.S.A. y montó su primer estudio fotográfico

Autoerretratua. / *Autorretrato.* © Santi Gabiria Lubiano. (SGF).

torio y librería". Udalak, 1965eko irailaren 2an, kartel argitsu bat fatxadan jartzeko baimena eman zion Santiri, 1,30 x 1 m-koa, bizileku eta lantoki zuen etxearen fatxadan [229]. Foto Gabiriak estudioko argazkia, erreportaje soziala eta argazkilaritza industriala egin zituen, harik eta 1967ko irailaren 26an baja eman zuen arte "venta menor de aparatos de fotografía" jardunean eta "fotógrafo con galería" gisa [230].

PESA enpresa utzi eta bete-betean argazkilaritzan hasi aurretik, Gabiria "nahiko denbora" aritu zen ikasle Donostiako Foto Maturana estudioan, Legazpiko fabrikako lana eta argazkilari ofizioa ikastea aldi berean eginez. Gabiriak era guztietako lanak egiten zituen: ezkontza askotarako zerbitzuak (Zumarraga, Urretxu edota Oñatiko bezeroei), bataioak, jaunartzeak eta bezeroaren etxera joanda ere bai –bere gutunazaletako idazpuruan adierazten den bezala–. Erreportaje industrialak egiten zituen (PESA), edota lursailenak (Damatako pinudia, esaterako). Bada argazki ezagun bat, Patricio Echeverría eta Vázquez Díaz margolaria jaso zituena laurogeitaka urterekin; azken horrek erretratua egin zion enpresariari 1962an, eta biei ateratako argazkia Santi Gabiriak egina da. Alabaina, jardun komertzialaz gain, afizioz ere egiten zituen argazkiak. Atzerrian egindako egonaldi sarri eta luzeetan, Txinan,

"sencillo" en la casa donde nació, mientras que el laboratorio donde revelaba las fotografías estaba situado en una buhardilla que le dejó utilizar una señora mayor llamada "Vicenta" [225]. Este pequeño laboratorio estaba ubicado en un edificio hoy en día derruido -Konpiterokoa etxea- [226], cerca de la casa "Andres Enea", en la calle Navarra.

No hay constancia en las contribuciones de que Santi tributara durante los años 1954 y 1955, siendo en 1956 y 1957 cuando comenzó a pagar la licencia fiscal de "fotógrafo sin galería" en la calle 18 de Julio nº 4 (dirección de su casa natal, Etxetorre). Es a partir del año 1958 cuando Gabiria aparece como "fotógrafo con galería" en esa misma dirección [227]. En la relación de matrículas industriales del año 1961 Gabiria figura con el estudio en la calle 18 de Julio. Sin embargo parece ser que es en ese mismo año cuando cambió de local, ya que en la licencia fiscal de 1961 pagaba como "fotógrafo con galería" por tener su estudio en la calle Primo de Rivera nº 4 (hoy en día calle Aizkorri nº 5), local en el que permaneció hasta cerrar el negocio [228]. El 6 de mayo de 1963 el ayuntamiento le concedió la licencia de apertura para instalar un "salón de fotografía y venta de material fotográfico, objetos de escritorio y librería" en la calle José Antonio Primo de Rivera nº 4. El 2 de septiembre de 1965 el ayuntamiento autorizó a Santi para colocar un cartel luminoso de 1,30 x 1 m en la fachada de la casa en la que residía y trabajaba [229]. Foto Gabiria realizó fotografía de estudio, reportaje social y fotografía industrial hasta que se dio de baja el 26 de septiembre de 1967 en las actividades de "venta menor de aparatos de fotografía" y como "fotógrafo con galería"[230].

Antes de abandonar P.E.S.A. para dedicarse plenamente a la fotografía Gabiria estuvo "bastante tiempo" de aprendiz en Foto Maturana de San Sebastián, compaginando su trabajo en la factoría de Legazpi con el aprendizaje del oficio fotográfico. Gabiria realizaba todo tipo de trabajos: Hacía muchas bodas (incluso a clientes de Zumárraga, Urretxu y Oñati), bautizos, comuniones e incluso fotografía a domicilio -tal y como se indicaba en el membrete de sus sobres-. Realizaba reportajes industriales (P.E.S.A.)

Indian, Norvegian eta beste herrialde batzuetan, koloretako diapositiba asko egin zituen [231]. Irteera horietan, Javier Muruak eta Javier Larreak laguntzen zioten, azken hori ere argazkilari legazpiarra. Gabiriak Estatuko ia gaztelu guztiei atera zizkien argazkiak Larrearekin batera, 1975 eta 1980 inguruan. Horretarako, Asociación de Amigos de los Castillos elkartearekin jarri ziren harremanetan Madrilen, eta haiek mapa bat eman zieten Espainiako gaztelu guztiekin; era berean, zenbait liburu erosi ere egin zituzten, gazteluen argazkiekin. Hainbat ibilbide antolatu zituzten, asteburuetan eta jai-zubietan egiteko [232].

Atxurtegia. *Forja de Herramientas.* ca. 1960.
© Santi Gabiria Lubiano. (GSM).

Negatiboak errebelatzeko laborategia. / Laboratorio para el revelado de negativos. © Santi Gabiria Lubiano. (SGF).

y de terrenos (los pinares de Dámata). La conocida imagen en la que plasmó a los octogenarios Patricio Echeverría y al pintor Vázquez Díaz -cuando éste retrató al empresario en 1962- fue realizada por Santi Gabiria. Sin embargo, al margen de la actividad comercial, también realizaba fotografías por afición. En sus numerosas y prolongadas estancias en China, India, Noruega y otros países realizó cantidad de diapositivas en color [231]. En sus salidas le solían acompañar Javier Murua y el también fotógrafo legazpiarra Javier Larrea. Gabiria llegó a fotografiar casi todos los castillos del estado junto con Larrea sobre los años 1975 - 1980. Contactaron para ello con la Asociación de Amigos de los Castillos en Madrid, quienes les facilitaron un mapa con todos los castillos de España y también adquirieron diferentes libros con fotografías de los castillos. Organizaron varias rutas que recorrían durante fines de semana y puentes festivos [232].

Para realizar los reportajes de boda y bautizos Gabiria se desplazaba en una moto de la marca Vespa con matrícula SS - 37331.

Ezkontza eta bataio erreportajeak egiteko, Gabiria Vespa markako moto batekin ibiltzen zen; SS-37331 matrikula zuen motoak. Lan komertzialak zuri-beltzean egiten zituen, eta berak errebelatzen zituen argazkiak. Mendiko irteeretan, Voigtlander kamera bat eramaten zuen, 35 mm-koa, baina estudioan edo enkargu bereziak egiteko, 6 x 6 cm-ko formatua erabiltzen zuen, Rolleiflex ekipoak eta Hasselblad kamerak baliatuta, zenbait objektiborekin ekipatuta. Alde horretatik, apetatsua zen eta gustuko zuen merkatura ateratzen ziren azken modeloak erostea. Lanerako erabili zuen beste kamera bat Horizon panoramikoa zen, 35 mm-ko pelikulakoa. Ondoren, 1982an, Sony markako bideo-ekipo oso handi bat –10 kg ingurukoa– erosi zuen Hanburgon (Alemania), bere maleta, motxila eta kargadoreekin (oraindik gordeta dauzka anaia Pedrok), Larreak eta biek Norvegia aldera roulottean egin zuen bidaia batean [233]. Roulottean telebista bat zeukaten, eta hantxe ikusten zuten egunaren amaieran jardunaldi hartan grabatutakoa. [234].

Santik interesa zuen kulturarekin eta gogo bizia aurrerapen teknologikoetarako. Musika oso maite zuen, eta haren beste zaletasun kuttunenetako bat mendian ibiltzea zen. Atsegin zituen animaliak eta haiekin batera autoerretratu asko egin zituen. Gabiriak gorbata janzten zuen. Espiritu negoziatzailea zuen eta saltzaile ona zen. Bere jardun nagusia argazkilaritza zen, baina era guztietako liburuak saltzen eta alokatzen zituen. Era berean, oparitarako artikuluak ere saltzen zituen; esaterako, izen handiko luma eta diru-zorroak. Behin, proiekzio fotografiko bat egin zuen bere negozioko erakusleihoan eta entzute dezentea izan zuen herrian. Berak errebelatzen zituen argazki guztiak, ordu asko pasatzen zituen laborategian, baina, batzuetan, lan gehiegi baldin bazuen eta esandako egunerako eman ezin bazitzakeen, Maturana estudiora bidaltzen zituen negatiboak, kopiak egiteko. Ukitu fotografikoak Donostian hartan jarduten zuen bati agintzen zizkion –Maturana etxearentzat lan egiten zuen berberari– [235].

Emaztea eta biak banandu ondoren –ezkondu eta handik gutxira–, argazki-negozioa traspasoan ematea erabaki zuen, Koxka hozkailuen ordezkari lan egiteko Iruñean. Ondoren, 1975. urtean inpermeabilizatuen enpresa bat muntatu zuen Telleriarten, eta geroago Legazpin, Bikuña Enea kalean [236]. Gerora, behin betiko instalatu zen Urretxun "Impermeabilizados Gabiria" izenarekin, eta egun ere lanean dihardu enpresa horrek izen berarekin.

Santi Gabiriak argazkiak egiten segitu zuen, profesional gisa ez aritu arren. Hala, 1980. urtean Durst handigailu bat erosi zuen, koloretako burua zuena (formatua 10 x 12,5 cm.) Cibachrome prozesua errebelatzeko –zuzeneko kopiak diapositibatik koloretako paperera–. Gabiriak laborategi hau bere etxeko ganbaran jarri zuen, Navarra kalean; lehen laborategia izan zuen lekutik

Los trabajos comerciales los realizaba en blanco y negro, revelando él mismo las fotografías. En las salidas montañeras llevaba una cámara Voigtlander de 35 mm, pero trabajaba con formatos de 6x6 cm en el estudio o para realizar encargos especiales, utilizando equipos Rolleiflex y varias cámaras Hasselblad equipadas con diversos objetivos. En este sentido era caprichoso y le gustaba adquirir los últimos modelos que salían al mercado. Otra de las cámaras con las que trabajó era una Horizon panorámica para película de 35 mm. En 1982 compró un equipo de video "Sony" enorme -de unos 10 kg- en Hamburgo (Alemania), con su correspondiente maleta, mochila y cargadores (que todavía conserva su hermano Pedro) durante un viaje que realizó en su roulotte junto con Larrea a Noruega [233]. En la roulotte disponían de una televisión donde podían visualizar al final del día lo que habían grabado durante la jornada [234].

Santi era una persona interesada en la cultura y apasionada por los avances tecnológicos. Le encantaba la música, siendo otra de sus aficiones favoritas pasear por el monte. Le gustaban los animales, con los cuales se hizo multitud de autorretratos. Gabiria vestía con corbata. Tenía espíritu negociante y era buen vendedor. Su principal actividad era la fotografía, pero vendía y alquilaba todo tipo de libros en su local. También despachaba artículos de regalo como plumas y carteras de marcas de prestigio. En cierta ocasión realizó una proyección fotográfica en el escaparate de su negocio que tuvo cierta repercusión a nivel local. Era él el que revelaba todas las fotografías, pasando largas horas en el laboratorio, pero en ocasiones, si tenía demasiado trabajo y no podía entregarlo en la fecha prevista, enviaba a Maturana los negativos para la realización de las copias. Los retoques fotográficos los mandaba hacer a un retocador particular que se dedicaba a ello en San Sebastián -el mismo que también trabajaba para Maturana- [235].

Tras separarse -al poco tiempo de casarse- decidió traspasar el negocio fotográfico para trabajar como representante de frigoríficos "Koxka" en Pamplona. En 1975 montó una empresa de impermeabilizados en Telleriarte, que luego se ubicó en Legazpi, en la calle Bikuña Enea [236], para instalarse definitivamente como "Impermeabilizados Gabiria" en Urretxu, empresa que sigue funcionando todavía con esta denominación.

Santi Gabiria siguió realizando fotografías aunque no ejerciera como profesional. En 1980 compró una ampliadora Durst con cabezal de color (formato de 10 x 12,5 cm) para revelar en el proceso Cibachrome -copias directas de diapositiva a papel en color-. Gabiria instaló este laboratorio en la buhardilla de su casa en la calle Navarra, precisamente muy cerca del lugar donde tuvo

Altzairuen forja. / ***Forja de Aceros.*** **ca. 1960.** © Santi Gabiria Lubiano. (GSM).

oso gertu, hain zuzen. Ekipo hori Santik eta Javier Larreak erabiltzen zuten, eta Larreak erosi zuen 1984an, bere etxeko ganbaran jartzeko, Legazpiko Bikuña Enean. Ondoren Javik handigailua Bartzelonako A.G.E. Fotostock agentziari saldu zion, diapositibak bikoizteko, hain zuzen ere. Larreak, era berean, Horizon kamera panoramikoa ere erosi zion Santi Gabiriari –oraindik hor dauka– eta Hasselblad motorizatua, 60 mm-ko objektibo batekin batera [237]; ondoren, ekipo hori neuri saldu zidan 1990ean. Iruditzen zait Santik PESAren instalazioetako argazki asko Hasselblad ekipo honekin egingo zituela 1960ko hamarkada erdialdera. Ekipo hori bera erabili nuen "Leaxpi Industri Paisaiak" serieko argazkiak egiteko 1990 eta 1993 artean. Gaur ere erabiltzen dut oraindik 60 mm-ko optika, Gabiriarena eta, ondoren, Larrearena izan zena.

Santi Gabiriak egindako argazki serie bat –240 kopia– Lenbur fundazioak digitalizatu zuen, eta erakunde horrek erakusketa bat egin zuen argazki haiekin Legazpiko Bikuña jauregian. Mostra hori 2004ko abenduaren 23an inauguratu zen [238]. Santiren negatibo eta diapositiben artxiboa haren anaia Pedrok gordetzen du.

Santik 1950eko hamarkadatik 1960ko hamarkada amaierara artean egindako argazkiek era askotako gaiak jorratzen dituzte. Haren jardun nagusia, zaletasunak eta bidaiak alde batera utzita, erreportaje soziala eta estudioko argazkilaritza dira. Gabiriaren argazki-legatuak balio dokumental ukaezina du, Legazpi herria erretratatzen baitu eta aldi hartako hirigintza aldaketak jaso. Eta horregatik merezi du haren artxiboa digitalizatzea, katalogatzea eta ikertzea.

Irudiaren kalitatea eta Gabiriaren argazkilari-begirada ikusirik eta haren lanaren zati txiki bat bakarrik aztertuta, esan daiteke publizitate-kutsua duten enkargu komertzialak –astiro eginak– nabarmentzen direla erreportaje sozialaren gainerako argazkien aldean. Argazkirik landuenak Patricio Echeverríarentzat egindako erreportaje industrialak dira, estudioko erretratu batzuekin batera. Egiteke dago oraindik haren argazki guztien azterketa sakona, beste ikuspegi batzuk emango lituzkeena eta ezustekorik ere bai beharbada, haren lanaz.

Santi Gabiria legazpiarrarekin amaituko dugu Patricio Echeverría SAri buruzko argazki-funtsaren errepasoa eta Legazpiko faktoria erretratatu zuten argazkilariena. Baina historia hau ez da hemen bukatzen. Badira beste argazkilari legazpiar gehiago ere, batzuk profesionalak eta beste batzuk afizionatuak, fabrika argazkitan jaso zutenak, bai enkarguz, bai afizioz, 1970 eta 1990 urteen artean.

su primer laboratorio. Este equipo lo utilizaron Santi y Javier Larrea, siendo Larrea el que lo compró en 1984 para instalarlo en la buhardilla de su casa de Bikuña Enea en Legazpi. Posteriormente Javi vendió la ampliadora a la agencia A.G.E. Fotostock de Barcelona para utilizarla en la realización de duplicados de diapositivas. Larrea le compró también a Santi Gabiria la cámara panorámica Horizon -aparato que todavía conserva- y una Hasselblad motorizada junto con un objetivo de 60 mm [237], equipo que luego me vendería a mí en 1990. Supongo que Santi pudo realizar muchas de las fotografías de las instalaciones de P.E.S.A. a mediados de los años 60 con este equipo Hasselblad, el mismo que utilicé para realizar las fotografías de la serie "Leaxpi Industri Paisaiak" entre 1990 y 1993. La óptica de 60 mm que perteneció a Gabiria y luego a Larrea sigo utilizándola hoy en día.

Una serie de fotografías realizadas por Santi Gabiria -240 copias- fue digitalizada por la Fundación Lenbur, entidad que realizó una exposición con sus fotografías en el Palacio Bikuña de Legazpi. Esta muestra se inauguró el 23 de diciembre de 2004 [238]. El archivo de negativos y diapositivas de Santi lo conserva su hermano Pedro.

La temática de las fotografías de Santi, realizadas desde comienzos de los 50 hasta finales de los 60, es muy diversa. Su actividad principal, al margen de las aficiones y los viajes, es el reportaje social y la fotografía de estudio. El innegable valor documental del legado fotográfico de Gabiria, que retrata al pueblo de Legazpi y recoge los cambios urbanísticos de la localidad durante ese periodo, requiere digitalizar, catalogar e investigar su archivo.

En lo que se refiere a la calidad de las imágenes y a su mirada como fotógrafo, indicar que tras revisar sólo una pequeña parte de su obra, los encargos comerciales de carácter más publicitario -realizados pausadamente- destacan sobre el resto de fotografías de reportaje social. Las fotografías más elaboradas son los reportajes industriales realizados para Patricio Echeverría, junto con algunos de los retratos de estudio. Queda pendiente un análisis en profundidad del conjunto de sus fotografías que pudiera ofrecer otras visiones e incluso nuevas sorpresas acerca de su trabajo.

Con el legazpiarra Santi Gabiria terminaría el repaso en torno a este fondo fotográfico sobre Patricio Echeverría S.A. y los fotógrafos que retrataron la factoría de Legazpi. Sin embargo esta historia no acaba aquí. Hay otra serie de fotógrafos legazpiarras profesionales y diferentes aficionados que también fotografiaron la fábrica, bien por encargo o por afición, entre los años 70 y 90.

Fundizio Zaharra. / ***Fundición Vieja*****. ca. 1960.** © Santi Gabiria Lubiano. (GSM).

Fundizio Zaharra. / ***Fundición Vieja.*** **ca. 1960.** © Santi Gabiria Lubiano. (GSM).

Fundizio Berria. / ***Fundición Nueva.*** **ca. 1967**. © Imprenta Industrial. (CPESA).

Patricio Echeverríaren heriotza. 1972

Argazkilarien jardunari buruz egindako ibilbidean ordena kronologikoari eusten saiatu gara. Batzuetan ezin izan da kronologia hori errespetatu, eta denboran jauziak egin dira, ondoren hasierako unera itzultzeko. Hari kronologiko horri segituz, orain 1970eko hamarkadan kokatzea egokitzen zaigu. Patricio Echeverría 1972ko abenduaren 17an hil zen Legazpiko

Fallecimiento de Patricio Echeverría. 1972

En el recorrido efectuado acerca de las trayectorias de los fotógrafos se ha intentado mantener un orden cronológico. En ocasiones no ha podido respetarse esta cronología, siendo inevitable dar saltos en el tiempo para luego volver al punto de partida. Siguiendo ese hilo cronológico ahora nos toca situarnos en los años 70. Patricio Echeverría falleció el 17 de diciembre

bere etxean, 90 urte bete eta hilabete gutxira [239]. Iñaki Beldarrainek Patricio Echeverríari buruzko biografian dioen bezala, enpresak editatutako katalogo kopurua txikituz joan zen jabea zahartzen joan ahala [240]. Datu horrek baieztatzen du Patricio bera arduratzen zela negozioaren promozioaz, bai eta argazkilaririk onenak bilatzeaz ere, katalogo oso zainduak egiteko.

PESAk 1967an erreminta-katalogo bat atera zuen Bilboko Imprenta Industrial etxeak inprimatua [241]. Inflexio-puntu bat izan zen, orduan hasi baitzen argazkiak koloretan egiten eta inprimatzen. Argazkilaritza-praktika demokratizatuta zegoen 1960ko hamarkada amaieran eta 1970eko hamarkada hasieran: eskuragarriagoa zen, zale asko zeuden, eta horietako askok egile-lan oso interesgarriak egiten zituzten, eta aldaketa-garai hori argazki-kameraren bidez dokumentatu zuten. Profesionalek enkarguz egindako argazkiez gain, argitalpen honetan jaso ditugu gaian interesa zuten afizionatu, interesatu eta inplikatuek egindako irudi batzuk ere, eta hala osatu dugu, haien argazkiekin, Patricio Echeverríaren faktoriaren inguruan egindako argazki-ibilbidea.

de 1972 en su casa de Legazpi, a los pocos meses de cumplir 90 años [239]. Tal y como indica Iñaki Beldarrain en su biografía sobre Patricio Echeverría, la cantidad de los catálogos editados por la empresa decrece a medida que el patrón va envejeciendo [240]. Este dato viene a reafirmar la convicción de que era el propio Patricio quien se preocupaba de la promoción del negocio y de buscar a los mejores fotógrafos editando catálogos muy cuidados.

El catálogo de herramientas editado por P.E.S.A. en 1967 e impreso en Bilbao por Imprenta Industrial [241] supuso un punto de inflexión, correspondiendo al inicio de otra época en la que las fotografías empezaron a realizarse e imprimirse en color. A finales de los años 60 y comienzos de los 70 la práctica de la fotografía se había democratizado, era más asequible, existiendo multitud de aficionados, muchos de los cuales realizaban trabajos de autor muy interesantes, documentando esa época de cambios con su mirada a través de la cámara fotográfica. Al margen de las fotografías de encargo efectuadas por profesionales, en esta publicación se han recogido algunas imágenes realizadas por aficionados, interesados e implicados en el tema, complementando el recorrido fotográfico en torno a la factoría de Patricio Echeverría con sus fotografías.

Estanpazioa. / *Estampación.* ca. 1967. © Imprenta Industrial. (CPESA).

José Luis Ramírez. Argazkilari bilbotar "afizionatua" Legazpin. 1973

José Luis Ramírez Ortiz Santanderren jaio zen 1935eko abenduaren 12an [242], Industria Ingeniaritzako doktorea da lanbidez. Bere jardunaren bi ardatz nagusiak ikerketa eta irakaskuntza izan dira Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskolan, Euskal Herriko Unibertsitatean. Oso gaztetatik izan da argazkilaritzaren amateurra, eta etengabe aritu da argazkigintzan 1969tik. Lehiaketen munduak teknikak finkatzeko eta gai berriak

José Luis Ramírez. Fotógrafo bilbaíno "aficionado", en Legazpi. 1973

José Luis Ramírez Ortiz, nacido en Santander el 12 de diciembre de 1935 [242], es Doctor Ingeniero Industrial de profesión. Ha desarrollado una actividad profesional compartida entre la investigación y la docencia en la Escuela Superior de Ingeniería de Bilbao, de la Universidad del País Vasco. "Amateur" de la fotografía desde muy joven, la practica de forma permanente desde 1969. En la década de los 70, el mundo de los concursos le

Xafla tailerra, Biltegia, Palategia. / ***Flejes, Almacén, Palas.*** **1973.** © José Luis Ramírez Ortiz. (JLRO).

Xafla tailerra. / ***Flejes.*** **1973.** © José Luis Ramírez Ortiz. (JLRO).

probatzeko bide eman zion 1970eko hamarkadan, eta aldi berean sari pizgarriak jaso zituen, horien artean urrezko domina Valca Biurtekoan, 1975ean. Ondoren, 1977an, artistari AFIAP saria eman zioten Arte Fotografikoaren Nazioarteko Federazioan. Taldeka eta bakarka erakusketa asko egin ditu, eta argazki-lehiaketetako epaimahaietan jarduna da. Bere argazkilaritza-ibilbide luzeko obrarik gehiena zuri-beltzean egin du, eta gehien landu dituen arloak herri-ohiturak eta -tradizioak izan dira hasierako garaietan, eta, ondoren, paisaia urbano eta industriala, gure eguneroko jardunaren etengabeko lekuak. Etaparik berrienean proiektu batzuk egin ditu, denboraren iragate kontzeptua jasoz, eta kolorea sartu du bere argazki-

permitió afianzar técnicas y explorar temas, a la vez que obtenía estimulantes premios, entre ellos la Medalla de Oro en la Bienal Valca de 1975. En 1977 fue distinguido como artista A.F.I.A.P. de la Federación Internacional del Arte Fotográfico. Ha realizado numerosas exposiciones colectivas e individuales y ha participado en jurados de certámenes fotográficos. La mayor parte de la obra de su larga trayectoria fotográfica la ha realizado en blanco y negro y los campos que más ha cultivado han sido el de las costumbres y tradiciones populares, en las primeras épocas, y más tarde, los paisajes urbano e industrial, escenarios permanentes de nuestra actividad diaria. En la etapa más reciente ha desarrollado proyectos que encierran el concepto del paso del tiempo y

mintzairan. Haren lanak bilduma monografikoak izan dira 1980ko hamarkadatik aurrera, eta horiek erakusketa eta liburu argitaratuetara bideratu dira [243].

Orain, 81 urte betetzear, José Luis bizi-bizi dabil argazkiak ateratzen. Azken urteetan ez dio utzi argazkiak egiteari, erakusketak egin ditu eta proiektu berriak argitaratu ditu liburuetan. Lanari uzten ez dion argazkilaria da, argazkilaritzaren alorreko "inurri" erako bat, beti eta beti hortxe ari dena. Ramírezek paisaia industrialak deskribatzen ditu, gure eguneko jardunaren jokaleku gisa. Paisaia industrialen argazki asko eta asko aurkitzen ditugu haren argazki-serie edo -bildumetan. José Luisek etengabe jaso du argazkietan gure industria, bere ibilbide guztian zehar. [244].

Autoa hartu eta argazkiak egitera irten zen asteburu haietako batean, 1973ko udaberriko asteburu batean, Ramírez Legazpitik igaro zen, eta hainbat argazki atera zizkien Patricio Echeverríaren instalazioen kanpoaldeei [245]. Avenida del Trabajo etorbidean egindako argazkia begi-ninian gordeta geratu zitzaidan, Legazpiko Ikatza Argazkilari Elkartean lehen aldiz ikusi nuenean; talde horretan errebelatu nituen nire lehen argazkiak 1985ean. Institututik irten eta gero, argazki-lehiaketetako katalogoak gainbegiratzen nituen, tinta batean inprimatuak –hala-holako kalitatezko erreprodukzioak zituzten–, eta orduantxe, hain zuzen, eragin zidan zirrara irudi horrek. Zergatik, baina, erakartzen ninduen pikor askoko argazki ilun hark? Non zetzan haren edertasuna? Leku ezagun bat aurkitzen nuelako argazki hartan? Tokia oso ongi ezagutzen nuen, gure aitak urteetan lan egin zuen lehen planoan ikusten den eraikinean, Plásticos Urola enpresan –Pedro Seguraren orrazitegia izandakoa–, eta urte batzuetan fabrikaren ondoko etxebizitzatako batean bizi izan zen. Aitona-amonak ere Avenida del Trabajon bizi ziren, pixka bat gorago. Errepidearen puntu horretan jartzen ginen mutiko ginenetik auto-stop egiten, Zumarragara jaitsi nahi genuenean. Nabe industrialen arteko pasilloak amaigabea zirudien: Legazpirako sarrera, askorentzat alde ilun zatarra, beti izan zitzaidan liluragarri. Horregatik guztiagatik interesatzen al zitzaidan argazki hura? Bistakoa da hark guztiak bazuela zerikusirik, baina José Luisek aurkezten duen eszenak herritar edo argazkilari inplikatuak atzeman dezakeena baino askoz gehiago eskaintzen du. Ez dut zalantzarik, Avenida del Trabajon 1973an hartutako José Luis Ramírezen argazki hori ezin zitekeen bilduma honetatik kanpo geratu [246]. Gaur den egunean, fabrika eta Avenida del Trabajoren irudi ilun horrek bukaerara heldu den aldi arranditsu baten iragarpena irudi dezake.

ha incorporado el color a su lenguaje fotográfico. Desde los años 80 sus trabajos se centran en colecciones monográficas que han culminado en exposiciones y libros publicados [243].

A punto de cumplir los 81 años José Luis sigue muy activo fotográficamente. En los últimos años no ha cesado de hacer fotografías, presentando exposiciones y publicando sus nuevos proyectos en forma de libros. Es un fotógrafo que no para de trabajar, una especie de "hormiguita" de la fotografía que desarrolla una actividad incansable. Ramírez describe los paisajes industriales como escenarios permanentes de nuestra actividad diaria. Encontramos multitud de fotografías de paisajes industriales en sus series o colecciones fotográficas. José Luis ha fotografiado nuestra industria permanentemente, a lo largo de toda su trayectoria [244].

En uno de esos fines de semana que José Luis aprovechaba para coger el coche y salir a hacer fotografías, un fin de semana primaveral de 1973, Ramírez pasó por Legazpi, realizando numerosas fotografías en los exteriores de las instalaciones de Patricio Echeverría [245]. La fotografía efectuada en la Avenida del Trabajo se me quedó grabada en la retina cuando la vi por vez primera en la Sociedad Fotográfica Ikatza de Legazpi, agrupación en la que revelé mis primeras fotografías en 1985. Tras salir del instituto, ojeaba los catálogos de los concursos fotográficos, impresos a una tinta -con reproducciones de dudosa calidad-, y fue cuando esa imagen me impactó especialmente. ¿Cuál era la verdadera razón de sentirme atraído por esa fotografía oscura y con mucho grano? ¿Dónde radicaba su belleza? ¿En el hecho de encontrar un escenario conocido? El sitio lo conocía muy bien, mi padre había trabajado durante años en el edificio que se ve en primer plano, en Plásticos Urola -la antigua peinetería de Pedro Segura-, viviendo durante unos años en una de las casas adosadas a la fábrica. Los aitonas también residían en la Avenida del Trabajo, un poco más arriba. En ese punto de la carretera nos solíamos situar desde que éramos chavales para "hacer dedo" a los coches cuando queríamos bajar a Zumárraga. El pasillo entre las naves industriales parecía interminable: la entrada a Legazpi, ese espacio gris oscuro y feo para muchos, siempre me había fascinado. ¿Eran esas las razones por las cuales me interesara la fotografía? Es evidente que todo ello tenía algo que ver, pero la escena que presenta José Luis ofrece mucho más de lo que pueda apreciar el paisano o el fotógrafo implicado. De lo que no hay duda alguna es que esa fotografía de José Luis Ramírez captada en la Avenida del Trabajo en 1973 no podía quedar fuera de esta recopilación [246]. Al día de hoy otra posible lectura de esta oscura imagen de la fábrica con la Avenida del Trabajo podría ser el presagio de una época de grandiosidad llegando a su fin.

Avenida del Trabajo. 1973. © José Luis Ramírez Ortiz. (GSM).

PESAren azken urteak eta Legazpiko argazkilariak. 1980ko eta 1990eko hamarkadak

Argitalpen honen lehen partean, *PESAren argazkilarien* kapituluan, XX. mende hasieran eskualdean zeuden argazkilari banaka batzuk aipatzen dira. Argazkilari profesional bati buruzko lehen albistea Villarreal de Urrechuan aurkitzen dugu 1908an, Patriciok enpresa fundatu zuen urtean. Santi Gabiria Patricio Echeverríak kontratatutako inguruko lehen argazkilari profesionala izan zen, eta Patricioren azken aldian –1960ko hamarkadan– deitu zion enpresariak herriko argazkilari bati. Ordura arte, Patriciorentzat lan egin zuten argazkilari guztiak beste herri batzuetatik etorriak ziren. Anduezak jarraitu zuen Gabiriak utzitako negozio fotografikoarekin. Establezimendu horretan errebelatu zituen bere argazkiak Javier Larreak, zeinak harremana zuen beste argazkilari legazpiar batekin, José Luis López de Zubiriarekin. Hiru argazkilari legazpiar horiek –Anduezak, Larreak eta López de Zubiriak–, argazkiak egin zituzten PESArentzat, bakoitzak bere arloan.

Foto Andueza. Urtatza auzoko eta Chillidaren Haizearen Orraziaren argazkiak. 1967 - 1986

Santi Gabiriaren erreleboa Foto Anduezak hartu zuen 1967an Legazpiko José Antonio Primo de Rivera 4ko estudioan [247], eta lokal berean jarraitu zuen lanean 1986 arte; urte horretan eman zion traspasoan Estudio F8 etxeari [248]. Jesús Mari Andueza Ugarte 1947ko azaroaren 26an jaio zen Legazpiko Telleriarte auzoan [249]. Hala, 1968 eta 1974 urteen artean, Anduezak "fotógrafo sin galería" gisa ordaintzen zituen zergak. Ondoren, 1975etik aurrera, "fotógrafo con galería" lizentzia fiskala ordaindu zuen [250]. Jesús Marik, Gabiriak bezala, erreportaje sozialak egiten segitu zuen: ezkontzak, jaunartzeak, festak edota Jubilatuen Etxearen inaugurazioa Garaikoetxea lehendakariaren eskutik. Estudioko erretratuak ere egiten zituen: karnetak, haur eta familien argazkiak. Urtatza auzoko etxe guztiak ere erretratatu zituen, eraiki berritan [251]. Hura izan zen Echeverría enpresak bere langileentzat egindako azken etxebizitza-eraikuntza. Anduezak argazkiak atera zituen Chillidaren *Haizearen Orrazia* PESAn egiten ari ziren unean, eta ondoren Donostian 1977an kokatu zutenean ere bai. Arreba Anuntxik lagundu zion negozioan zenbait urtetan. Bere azken garaian, Andueza PESAn hasi zen lanean, eta, aldi berean, argazkilaritzan ere aritzen zen. Erretiroa hartu ostean, bere laguntzaile izandakoarekin lankidetzan aritu zen, Javi Larrearekin; erreportajeetan laguntzen zion, baita modelo-lanak eginez ere [252]. Jesús Mari Andueza 2007an zendu zen.

Los últimos años de P.E.S.A. y los fotógrafos de Legazpi. Años 80 y 90

En la primera parte de esta publicación, en el capítulo Los fotógrafos de P.E.S.A. *se hace referencia a los pocos fotógrafos profesionales existentes en la comarca a comienzos del siglo XX. La primera noticia sobre un fotógrafo profesional la encontrábamos en Villarreal de Urrechua en 1908, fecha en la que Patricio fundó su empresa. Santi Gabiria fue el primer fotógrafo profesional de la zona contratado por Patricio Echeverría, y fue en la última época de Patricio -en los años 60- cuando el empresario llamó a un fotógrafo local. Hasta entonces todos los fotógrafos que trabajaron para Echeverría habían venido de otras localidades. Andueza continuó con el negocio fotográfico que dejó Gabiria. En ese establecimiento reveló sus fotografías Javier Larrea, que a su vez tenía relación con otro fotógrafo legazpiarra, José Luis López de Zubiria. Estos tres fotógrafos legazpiarras -Andueza, Larrea y López de Zubiria-, cada uno en su ámbito, efectuaron fotografías para P.E.S.A.*

Foto Andueza. Fotografías del Barrio Urtatza y del Peine del Viento de Chillida. 1967 - 1986

El relevo de Santi Gabiria en el estudio de la calle José Antonio Primo de Rivera nº 4 de Legazpi lo tomó en noviembre de 1967 Foto Andueza [247], que siguió trabajando en el mismo local hasta comienzos de 1986, fecha en que lo traspasó a Estudio F8 [248]. Jesús Mari Andueza Ugarte nació en el barrio legazpiarra de Telleriarte el 26 de noviembre de 1947 [249]. Entre los años 1968 y 1974 Andueza tributaba como "fotógrafo sin galería". Es a partir de 1975 cuando paga la licencia fiscal de "fotógrafo con galería" [250]. Jesús Mari, al igual que Gabiria, seguirá realizando reportajes sociales: bodas, comuniones, fiestas o la inauguración del Hogar del Jubilado por el lehendakari Garaikoetxea; y retratos de estudio: fotos de carnet, niños y familias. También fotografió todas las casas del barrio Urtatza recién edificadas [251]. Ésta fue la última construcción de viviendas ejecutada por la empresa de Echeverría para sus obreros. Andueza realizó las fotografías de la construcción del Peine del Viento de Chillida en P.E.S.A. y de su posterior colocación en Donostia en 1977. Su hermana Anuntxi le ayudó en el negocio durante varios años. En su última época Andueza comenzó a trabajar en P.E.S.A., compaginando este trabajo con la fotografía. Tras jubilarse colaboró con el que fuera su ayudante, Javi Larrea, acompañándole en sus reportajes e incluso haciendo de modelo [252]. Jesús Mari Andueza falleció en 2007.

Peine del Viento. ca. 1977. © Jesús Mari Andueza Ugarte. (JMAF).

Peine del Viento. ca. 1977. © Jesús Mari Andueza Ugarte. (JMAF).

Javier Larrea Roa. Enplegatua eta argazkilaria enpresan. 1979 - 1984

Lucio Vergara izan zen lehen argazkilari legazpiarra faktoriako instalazioetan argazkiak ateratzen. PESAko enplegatua zen Vergara, eta –kalitate handiko– argazkiak ateratzen zituen afizionatu gisa. Haren argazkiak erabilera komertzialerako baliatu zituen enpresak, eta Willy Kochek berak positibatu eta sinatu zituen haren argazkietako batzuk.

Urte batzuen buruan, Javier Larrea Roa, Legazpin 1957ko ekainaren 6an jaioa, izan zen argazki industrial batzuen egile enpresarentzat, han lanean zebilela. Larreak bere lehen argazkiak 1970ko hamarkada hasieran egin zituen, eta 18 urterekin egin zuen lehen ezkontza argazkilari gisa. Jesús Andueza argazkilari legazpiarraren laguntzaile aritu zen 1973 - 1975 urte inguruan, erreportaje soziala egiten eta zuri-beltzeko fotografiak errebelatzen laborategian.

Larreak zenbait argazki-erreportaje egin zituen PESA enpresan 1979tik 1984ra. Horien artean dago segak artisau eran fabrika-

Javier Larrea Roa. Empleado y fotógrafo en la empresa. 1979 - 1984

Lucio Vergara fue el primer fotógrafo legazpiarra que realizó fotografías en las instalaciones de la factoría. Vergara era un empleado de P.E.S.A. que realizaba fotografías -de gran calidad- como aficionado. Sus imágenes fueron utilizadas para usos comerciales por la empresa, siendo el propio Willy Koch quien positivó y firmó alguna de sus fotografías.

Años más tarde, fue Javier Larrea Roa, nacido en Legazpi el 6 de junio de 1957, el encargado de realizar varios trabajos de fotografía industrial para la empresa cuando trabajaba en la misma. Larrea realizó sus primeras fotografías a comienzos de los 70 y su primera boda como fotógrafo a los 18 años. Colaboró como ayudante del fotógrafo legazpiarra Jesús Andueza hacia los años 1973 - 1975, realizando reportaje social y revelando fotografías en blanco y negro en el laboratorio.

Larrea realizó varios reportajes fotográficos en la empresa P.E.S.A. desde 1979 hasta 1984. Entre ellos fotografió la última

tzeko azken etapa Legazpin, xedea izanik desagertzear zegoen prozesu bat dokumentatzea. Ondoren irudi batzuk jaso zituen Fundizio Berrian, 1986an argitaratutako enpresaren katalogo nagusirako [253]. Katalogo horretan, Larreak Mirandaolako burdinolaren bi argazki ere argitaratu zituen, eta bertan jasotako airetiko argazkia Paisajes Españoles enpresarena da. Argitalpen horretako irudiek 1967ko aurreko ereduaren

etapa de la fabricación artesanal de guadañas en Legazpi, con el objetivo de documentar un proceso a punto de desaparecer. Posteriormente realizó varias imágenes en la Fundición Nueva con destino al catálogo general de la empresa editado en 1986 [253]. En el catálogo Larrea publicó también dos imágenes de la ferrería de Mirandaola. La fotografía aérea reproducida en este catálogo corresponde a Paisajes Españoles. Las imágenes

Fundizio Berria. / ***Fundición Nueva.*** **1985.** © Javier Larrea Roa. (JLRA).

eskemari jarraitu zioten; bertan, Mirandaolako burdinolako argazkiak ere atera ziren, baita airetiko argazkiak eta enpresaren instalazioen bistak ere.

Urte batzuetan Javierrek PESAko salmenta, publizitate eta marketin sailetan lan egin zuen, eta bidaietan argazkiak ateratzen zituen. Larreak berak errebelatzen zituen diapositibak laborategian, Bikuña Enea plazako etxeko ganbaran. Ondoren, 1989an AGE Fotostock etxearekin lankidetzan hasi zen, argazkilaritzako agentzia hark banatzen baitzuen haren diapositiba artxiboa. Larrea lanaldi osoz hasi zen argazkilari profesional gisa 2000. urtean, eta agentziako eta publizitateko argazkiak egin zituen. Gaur egun Donostian bizi da, eta publizitate-argazkiak egiten segitzen du Bellota Herramientas enpresarentzat, baita industria, zientzia eta medikuntza arloko enpresentzat ere [254].

de esta publicación siguieron el esquema del modelo anterior de 1967, donde también se reproducían fotografías de la ferrería de Mirandaola, imágenes aéreas y vistas de las instalaciones de la empresa.

Durante varios años Javier compaginó su trabajo en los departamentos de ventas, publicidad y marketing de la empresa P.E.S.A. con la fotografía de viajes. Larrea revelaba él mismo las diapositivas en el laboratorio que tenía montado en la buhardilla de su casa en la Plaza Bikuña Enea. En el año 1989 inició su colaboración con A.G.E. Fotostock, agencia fotográfica que distribuía su archivo de diapositivas. Fue el año 2000 cuando Larrea comenzó a trabajar como fotógrafo profesional a tiempo completo, dedicándose a la fotografía de agencia y publicitaria. Hoy en día reside en Donostia y sigue realizando fotografía publicitaria para Bellota Herramientas, así como para diferentes empresas relacionadas con la industria, la ciencia y la medicina [254].

José Luis López de Zubiria Beguiristain, "Pepelu". Publizitate-argazkilaria. 1991

José Luis López de Zubiria Beguiristain, "Pepelu", Iruñean jaio zen 1957ko urtarrilaren 30ean, eta publizitate-argazkilaritzako hainbat enkargu egin zituen 1991tik PESArentzat (baita Corporación Patricio Echeverría SArentzat ere, 1992. urtetik aurrera) [255]. Enpresaren instalazioak argazkietan jaso zituen, eta batez ere argazki-bodegoiak egin zituen produktu eta erremintekin.

Pepeluk Donostiako Igara auzoan muntatu zuen bere estudioa 1991n, Kask Fotógrafos etxean lan egin ostean 1983tik Juan Luis González Segura legazpiarrarekin batera. Biek muntatu zuten negozioa Donostian, Gonzálezen ekimenez. Kask lanean hasi zenean, 9 x 12 cm-ko Linhof kamera tekniko batekin jarduten zuen, Gonzálezek Santi Gabiriari erosi ziona –ziurrenik Santik ez zuen kamera hori erabili ere egingo–; halaber, Hasselblad bat ere baliatzen zuten, Pepeluk erosi zuena ikasketa amaierako lehiaketa bat irabazi ostean. Gaur egun, Pepeluk lanean segitzen du Igarako bere estudioan, eta han egiten du publizitate, industria eta gastronomia arloko argazkilaritza. Publizitate-kanpaina garrantzizkoetan aritu da: Converse, Iberdrola, Donostia Zinemaldia, Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Kutxa, Berasategui eta Mugaritz. Argazkilari profesional gisa egindako ibilbidean, hainbat sari eskuratu ditu. Aipatzekoak dira hiru Lux Oro sariak, Espainiako Argazkilari Profesionalen Elkarteak emanak, bodegoien kategorian, 2011. eta 2012. urteetan, eta oraindik orain eman diotena 2015ean, industriaren kategorian [256].

José Luis López de Zubiria Beguiristain "Pepelu". Fotógrafo publicitario. 1991

El legazpiarra José Luis López de Zubiria Beguiristain "Pepelu", nacido en Pamplona el 30 de enero de 1957, ejecutó numerosos encargos de fotografía publicitaria a partir de 1991 para P.E.S.A. (y para Corporación Patricio Echeverría S.A. a partir del año 1992) [255]. Fotografió las instalaciones de la empresa, efectuando sobre todo bodegones fotográficos de productos y herramientas.

Pepelu montó su propio estudio en el barrio Igara de Donostia en 1991 después de trabajar en Kask Fotógrafos desde el año 1983 junto al legazpiarra Juan Luis González Segura. Ambos montaron el negocio en Donostia por iniciativa de González. Kask inició su andadura trabajando con una cámara técnica Linhof de 9 x 12 cm que González compró a Santi Gabiria, cámara que seguramente no llegó a utilizar Santi, y una Hasselblad que Pepelu compró tras ganar un concurso fin de carrera. Actualmente Pepelu sigue trabajando en su estudio de Igara donde realiza fotografía publicitaria, industrial y gastronómica. Ha colaborado en importantes campañas publicitarias: Converse, Iberdrola, Festival de Cine de San Sebastián, Festival de Cine de Terror de Donostia, Kutxa, Berasategui y Mugaritz. A lo largo de su trayectoria como fotógrafo profesional ha recibido numerosos galardones. Hay que destacar los tres premios Lux Oro, concedidos por la Asociación de Fotógrafos Profesionales de España, obtenidos en la categoría Bodegón en los años 2011 y 2012, y el que le han concedido recientemente en 2015, en la categoría Industrial [256].

Estudioan egindako argazkia. / ***Fotografía de estudio.*** **ca. 1991.** © José Luis López de Zubiria. (JLLZ).

Foto Luz. Tailerren dokumentazioa bideoan. 1990eko hamarkada

Ricardo Vierbücher Fernándezek dio 1990eko hamarkada hasieran dei egin ziotela PESAren tailerrak dokumentatzeko, haiek desagertu aurretik. Enpresako arduradunek haren zerbitzuak eskatu zituzten instalazioen bideoak egiteko, hustu aurretik. Vierbücherrek Laminazio Zaharreko produkzio-prozesua filmatu zuen, gaurko industrialdea eraikitzeko eraitsi baino pixka bat lehenago. Ricardok esaten du, kamerarekin bigarren aldian pasatzen ikusi zutenean Laminazio Berriaren instalazioak filmatzeko, langileek galdetzen ziotela zenbat denbora beharko zuten tailer hura itxi eta husteko [257].

Ricardoren aitak, José Vierbücher Llopis-ek, eskualdean lan egin zuen argazkilari 1953tik. Vierbücher motoan etortzen zen Tolosatik Zumarragara erreportajeak egitera [258]. Garai hartan, bere argazkiak honako zigilu honekin sinatzen zituen: *Foto Luz, Correo 11, Tolosa* [259]. José lan egina zen Foto Martín etxearentzat Tolosan, laborategiaren arduran. Vierbücherrek 1955ean ireki zuen Foto Luz estudioa, Legazpi kaleko 5ean, Zumarragan. [260]. José Vierbücherrek 1977an eskatu zuen beste negozio bat Legazpin irekitzea, General Mola kaleko 3an –gaur Kale Nagusia– [261]. Josék Zumarragako Foto Luz estudioari eutsi zion, eta bi seme nagusiak, Ricardo (1954) eta Pako Vierbücher Fernández (1955), jarri ziren Legazpiko negozioaren arduran, Foto Luz izenarekin haiek ere. Legazpiko estudioa ireki baino hainbat urte lehenago, Vierbücher aita ordurako iragartzen zen herrian, bere zerbitzuak eskainiz argazkilari gisa, Calzados Urcelay dendaren ondoan jarria zeukan bitrina batetik, General Mola kalean. "Pago 0 tasas por letreros, carteles y anuncios" 1963an ordaindu behar zutenen zerrendan Foto Luz estudioak 10 pezeta ordaintzen zizkion Udalari bitrina horretan bere burua iragartzeagatik [262]. Hala, 1978ko kontribuzio industrialetan, Ricardo Vierbücher agertzen zen Legazpiko Foto Luz estudioko titular gisa, "fotógrafo con galería" kategoriari zegokion lizentzia fiskala ordainduz [263]. Haren anaia Pako beranduago sartu zen negozioan, soldaduskatik itzuli eta gero [264]. Bi anaiek batera eraman zuten Legazpiko establezimendua, Urretxun 1993an beste denda bat ireki zuten arte –Pakok zuzendua–. Pako, Urretxuko negozioa itxi ondoren eta bere aita 1999an hil eta urte gutxira, 2003an itzuli zen Zumarragako Foto Luz estudiora, aitak muntatu zuen hartara. Anaia gazteena, Enrique "Kike" (1962 – 1996), ere aritu zen argazkilaritzan freelance gisa, bai eta Ricardo eta Pakorekin batera ere lan komertzial batzuetan [265]. Gaur egun bi anaiek ez daukate harreman komertzialik. Pakok Foto Luz eramaten du Zumarragan, Legazpi kaleko

Foto Luz. Documentación en vídeo de los talleres. Años 90

Ricardo Vierbücher Fernández señala que a comienzos de la década de los 90 le llamaron para documentar los talleres de P.E.S.A. antes de su desaparición. Los responsables de la empresa solicitaron sus servicios para realizar vídeos de las instalaciones en funcionamiento antes de ser desmanteladas. Vierbücher filmó el proceso de producción en la Laminación Vieja poco antes de que fuera derribada para construir el actual Industrialdea. Ricardo comenta con ironía que cuando le vieron pasar por segunda vez con la cámara, para filmar las instalaciones de la Laminación Nueva, los operarios le preguntaban cuanto tardarían en cerrar y desmantelar ese taller [257].

El padre de Ricardo, José Vierbücher Llopis, trabajó en la comarca como fotógrafo desde 1953. Vierbücher venía en moto desde Tolosa a Zumárraga para realizar reportajes [258]. Entonces firmaba sus fotografías con el sello: Foto Luz, Correo 11, Tolosa *[259]. José había trabajado previamente para Foto Martín en Tolosa llevando el laboratorio. Vierbücher abrió en 1955 el estudio Foto Luz en el nº 5 de la calle Legazpi, en Zumárraga [260]. En 1977 José Vierbücher solicitó la apertura de un nuevo negocio en Legazpi, en la calle General Mola nº 3 bajo -actualmente Kale Nagusia- [261]. José mantuvo el estudio Foto Luz de Zumárraga y fueron los dos hijos mayores, Ricardo (1954) y Pako Vierbücher Fernández (1955), quienes se hicieron cargo del negocio de Legazpi, denominado también Foto Luz. Años antes de abrir el estudio de Legazpi, Vierbücher padre ya se publicitaba en el pueblo, ofreciendo sus servicios como fotógrafo desde una vitrina que tenía instalada junto a Calzados Urcelay, en la calle General Mola. En la lista cobratoria del "pago o tasas por letreros, carteles y anuncios" de 1963 Foto Luz abonaba la cantidad de 10 pts. al ayuntamiento de Legazpi por anunciarse en esa vitrina [262]. En las contribuciones industriales de 1978 Ricardo Vierbücher figuraba como titular del estudio Foto Luz de Legazpi, pagando la licencia fiscal de "fotógrafo con galería" [263]. Su hermano Pako se incorporó más tarde al negocio, tras regresar del servicio militar [264]. Los dos hermanos regentaron conjuntamente el establecimiento de Legazpi hasta que abrieron otra tienda en Urretxu -dirigida por Pako- en 1993. Pako, tras cerrar el negocio de Urretxu y a los pocos años de fallecer su padre en 1999, volvió en 2003 al estudio Foto Luz de Zumárraga que había montado su progenitor. El hermano menor, Enrique "Kike" (1962 - 1996) también se dedicó a la fotografía, trabajando como free-lance y colaborando con Ricardo y Pako en algunos trabajos comerciales [265]. Actualmente los dos hermanos no mantienen ninguna relación comercial. Pako regenta Foto Luz en Zumárraga, en la*

5ean, aitaren eta anaia Kikeren artxibo fotografikoak gordez, eta Ricardo anaiak Legazpiko estudioa eramaten jarraitzen du.

José Vierbücher Llopisek argazki industrial ugari egin zituen eskualdeko enpresa askorentzat 1950eko eta 1960ko hamarkadetan [266]; irudi horiek gehienetan ukitu bat emanak eta argiztatuak izan ziren. José Vierbücherrek negatiboak maskaratu egiten zituen eta silueta egiten zien, eta Manolo Arreche Artola aerografista tolosarra arduratzen zen lana errematatzeaz, aerografoz argiztatuz kopia fotografikoak [267]. Manolo Arreche eta haren bazkide Flores Monge ziren Tolosan Arr-Mon diseinu-estudioa eramaten zutenak, eta Arreche arduratzen zen argazkiei aerografoz ukituak egiteaz [268].

Patricio Echeverríak ez zuen eskatu José Vierbücher - Foto Luz estudioaren zerbitzurik. Ez dago argazkirik PESAri buruz José Vierbücher Llopisen artxiboan, seme Pakok zaindutako artxiboan [269]. Gabiria, Andueza, Larrea eta Pepelu izan ziren PESArako argazki-lanak egin zituzten herriko profesionalak, 1960 eta 1990 arteko hamarkadetan lan fotografikoak egin zituztenak.

calle Legazpi nº 5, conservando los archivos fotográficos de su padre y de su hermano Kike, mientras que su hermano Ricardo sigue al frente del estudio de Legazpi.

José Vierbücher Llopis realizó multitud de fotografías industriales para numerosas empresas de la comarca en los años 50 y 60 [266], imágenes que en su mayoría fueron retocadas e iluminadas. José Vierbücher enmascaraba y silueteaba los negativos, siendo el aerografista tolosarra Manolo Arreche Artola el encargado de rematar la tarea, iluminando con aerógrafo las copias fotográficas [267]. Manolo Arreche y su socio Flores Monge regentaban el estudio de diseño Arr-Mon en Tolosa, siendo Arreche el responsable del retoque de las fotografías con aerógrafo [268].

Patricio Echeverría no requirió los servicios de José Vierbücher - Foto Luz. No hay fotografías sobre P.E.S.A. en el archivo de José Vierbücher Llopis custodiado por su hijo Pako [269]. Gabiria, Andueza, Larrea y Pepelu fueron los profesionales locales encargados de realizar los trabajos fotográficos para P.E.S.A entre los años 60 y 90.

Gelmam, Zumárraga (Argazki argiztatua / *Fotografía iluminada).* © José Vierbücher Llopis - Foto Luz. (PVF).



Indar, Beasain (Argazkia eta argazki argiztatua / *Fotografía y fotografía iluminada)*.
© José Vierbücher Llopis - Foto Luz. (PVF).

"Leaxpi Industri Paisaiak". PESAren amaiera. 1991 - 1992

PESAko argazkilariei buruzko ikerketa hau "Leaxpi Industri Paisaiak" serieak eraginda sortu zen. Argazki horiek, 1991n eta 1992an PESAko instalazioen barruan eginak, ezarri zuten historia honen hasiera, handik pasatako beste argazkilari batzuei buruzkoa, tailer eta paisaia industrial haiexetan ibilitakoena.

"Leaxpi Industri Paisaiak". El final de P.E.S.A. 1991 - 1992

Esta investigación efectuada sobre los fotógrafos de P.E.S.A. surgió a raíz de la serie "Leaxpi Industri Paisaiak". Esas fotografías realizadas entre 1991 y 1992 en el interior de las instalaciones de P.E.S.A. marcaron el inicio de esta historia, la investigación sobre los otros fotógrafos que pasaron antes por allí, por los mismos talleres y paisajes industriales.

Leaxpi Industri Paisaiak. 1991. © Gorka Salmerón Murgiondo. (GSM).

Leaxpi Industri Paisaiak. 1991. © Gorka Salmerón Murgiondo. (GSM).

Orduan, argazki horiek egiten ari nintzela, eta askoz beranduago ere bai, ez nintzen jabetzen, "Leaxpi Industri Paisaiak" guztiz aurkakoa zela: ez zen hasiera, historiaren bukaera baizik. Argazki horiek jasotzen zuten aldi oso baten bukaera, enpresaren azken urteetakoa. Banatu zen garaian, 1992ko apirilean, argazkiak ateratzen ari nintzen Patricio Echeverría SAren barnean, eta, egun batetik bestera, instalazio horiek Corporación Patricio Echeverría SA izena hartu zuten. Enpresa horrek hiru dibisio zeuzkan: Altzairua, Forja eta Erreminta [270]. PESA firma desagertua zen.

Entonces, cuando efectuaba esas fotografías, e incluso mucho más tarde, no era consciente de que "Leaxpi Industri Paisaiak" suponía todo lo contrario: no era el principio, más bien se trataba del final de la historia. Esas fotografías recogían el final de toda una época, los últimos años de la empresa. En el momento de su desmembramiento, en abril de 1992, me encontraba realizando fotografías en el interior de Patricio Echeverría S.A., y de un día para otro, esas mismas instalaciones pasaron a denominarse Corporación Patricio Echeverría S.A., empresa que contaba con tres divisiones: Acero, Forja y Herramienta [270]. La firma P.E.S.A. había desaparecido.

Leaxpi Industri Paisaiak. 1992. © Gorka Salmerón Murgiondo. (GSM).

Leaxpi Industri Paisaiak. 1993. © Gorka Salmerón Murgiondo. (GSM).

Sinetsita nago erakusketa bateko komisarioak ez duela antolatzen dituen erakusketetan agertu behar, baina, horri aurka eginez, eta argazkilari inplikatua naizenez, komenigarria iruditu zait argazki horietako batzuk sartzea, 1991 eta 1993 artean egindakoak. Hori horrela izanik, "Leaxpi Industri Paisaiak" da Patricio Echeverríaren argazkilariei buruzko historia honetarako epilogoa edo amaiera [271].

Contradiciendo mi convicción de que el comisario de una exposición debe quedar al margen de las muestras que organiza, y como fotógrafo implicado en el tema, he creído conveniente incluir alguna de estas fotografías realizadas entre 1991 y 1993, siendo "Leaxpi Industri Paisaiak" el epílogo o colofón final para esta historia sobre los fotógrafos de Patricio Echeverría [271].

Gorka Salmerón Murgiondo

2016ko azaroa - noviembre de 2016

OHARRAK:

[1] CÁNOVAS, Carlos, *Navarra, Fotografía,* Gobierno de Navarra, Iruñea, 2012, 9. or. Carlos Cánovasek bere burua "argazkilari inplikatu" bezala aurkezten du.

[2] ARBIDE, Ignacio, "Gizonak eta makinak Leaxpi Industri Paisaiak lanean", *Leaxpi Industri Paisaiak, Gorka Salmerón Murgiondo*, Burdinola, Legazpi (Gipuzkoa), 2014, 13. or.

[3] Fernando Martín Suquíarekin elkarrizketa, Legazpi (Gipuzkoa), 2013.

[4] ZELAIA, Iñaki, G. DE TXABARRI, Joxe Joan, OTAEGI, Jokin, *Legazpi*, Gau Eskola Elkartea, Legazpi (Gipuzkoa), 1979, 154 – 156. or.

[5] - SÁNCHEZ VIGIL, Juan Miguel, "De la restauración a la Guerra Civil", *La fotografía en España. De los orígenes al siglo XX, Summa Artis. Historia General del Arte*, XLVII lib., Madril, Espasa Calpe, 2001; 221, 224, 241. or.
- LÓPEZ MONDEJAR, Publio, *Historia de la Fotografía en España, Fotografía y sociedad desde sus orígenes hasta el siglo XXI,* Lunwerg, Bartzelona, 2005; 270, 355. or.
- Koch argazkilarien familiari buruzko "Instantes Atrapados" erakusketa, Juantxo Egaña Sevillak Donostiako Kutxa Boulevard Aretoan antolatua, 2010.
- ELORZA INSAUSTI, Maddi. *Iraganaren Ispilu. Euskal Herria eta Novedades Aldizkaria. 1909 - 1919 / 1928 - 1929,* Kutxa Fundazioa, Donostia, 2011, 189 – 199. or.
- FERNÁNDEZ BEOBIDE, Juan José, HORCAJO, Lola, BLASCO, Carlos, *Comercios Donostiarras, Historias de la Avenida, I, Impares,* Autoedizioa, Donostia, 2014, 197 – 202. or.

[6] - SÁNCHEZ VIGIL, Juan Miguel, "De la restauración a la Guerra Civil", *La fotografía en España. De los orígenes al siglo XX…* Aipamen batzuk.
- ELIZEGI BELOKI, Antton, "Pascual Marín Ruiz, fotógrafo", *Pascual Marín, Gipuzkoa Begiragaria - Lo Admirable de Guipúzcoa*, (faksimil edizioa) Foto y Huecograbado Arte Luis Santos y Cia., Bilbao, 1932. Reprint, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2002.
- LÓPEZ MONDEJAR, Publio, *Historia de la Fotografía en España, Fotografía y sociedad desde sus orígenes hasta el siglo XXI,* Lunwerg, Bartzelona, 2005, 304. or.
- SÁNCHEZ VIGIL, Juan Miguel, *Del Daguerrotipo a la Instamatic, Autores, tendencias, instituciones.* Ediciones Trea S.L., Gijon (Asturias), 2007, 364. or.
- ELORZA INSAUSTI, Maddi. *Iraganaren Ispilu. Euskal Herria eta Novedades Aldizkaria…* 203 - 206 or.

[7] ZENBAIT EGILE, "Enrique Ginea Makibar (1875 - 1944)", *Txinpartak* 14. alea, Burdinola, Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea, Legazpi (Gipuzkoa), 2007, 22 – 23. or.

[8] ZENBAIT EGILE, *Enrique Guinea Maquíbar, argazkiak 1902 - 1944 fotografías,* "Pilar Aróstegui" Udal Artxiboa, Gasteiz, 2010 (Errebisatu diren dokumentuetan Guinearen jaiotze data ezberdinak agertzen dira. Behin betiko informazioa, Javier Berasaluce Bajo-k, Gasteizko Udal Artxiboko teknikariak emandakoa da).

[9] SALMERÓN MURGIONDO, Gorka, "Fotografías de Ignacio Agirre Montegi (1900 - 1908)", *Actas, Primer Congreso de Historia de la Fotografía,* Photomuseum, Zarautz (Gipuzkoa), 2005, 283 – 296. or.

[10] SALMERÓN MURGIONDO, Gorka, "Notas sobre los fotógrafos profesionales de Legazpi y la comarca", *Txinpartak* 31. alea, Burdinola, Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea, Legazpi (Gipuzkoa), 2015, 12 – 20. or.

[11] RODRÍGUEZ MOLINA, Mª José; SANCHIS ALFONSO, José Ramón, *Directorio de Fotógrafos en España (1851 - 1936)*, Arxiu General i Fotogràfic de la Diputació de Valencia (Valencia), 2013, 837. or.

[12] Zumarragako Udal Artxiboa. (Gipuzkoa), Antonio Prada Santamaríak emandako informazioa.

[13] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España…* 837. or.

[14] SALMERÓN MURGIONDO, "Notas sobre los fotógrafos profesionales de Legazpi y la comarca", *Txinpartak* 31. alea…, 12 – 20. or.

[15] [16] Corporación Patricio Echeverría S.A. Artxiboa, Legazpi (Gipuzkoa).

[17] ZURIÁN UGARTE, Tomás, *Nahui Olin, Ópera Varia,* Erakusketako katalogoa, Museo Mural Diego Rivera, Instituto Nacional de Bellas Artes, Consejo Nacional para la Cultura y las Artes, Mexiko D.F., 2000, 33. or.

[18 MARTÍNEZ RUIZ, Julián, "Elías Salaberria maestro en Gipuzkoa y pintor vasco", *Lezo Aldizkaria,* 6. zk., Lezoko Elkarte Koordinakundea, Lezo (Gipuzkoa), 1990, 88. or.

[19] GARCÍA MARCOS, Juan Antonio, *Salas y Galerías de Arte en San Sebastián 1878 - 2005*, Kutxa Fundazioa, Donostia, 2005, 61. or.

[20] ORTIZ CASTAÑARES, Alejandra, *Manuel Rodríguez Lozano (1891? - 1971), pintor mexicano deuteragonista en la época de los grandes* (doktoretza-tesia), Universidad Pablo de Olavide, Sevilla, 2015; Alejandra Ortizek García Marcosi egindako elkarrizketa, Donostia, 2013, 81. or.

[21] Ibidem; Alejandra Ortiz Castañaresek Tomás Zurián Ugarteri telefonoz egindako elkarrizketa, 2012, 81. or.

[22] ZURIÁN UGARTE, Tomás, *Nahui Olin, Ópera Varia,* …, 33. or.

[23] OSORIO OLAVE, Alejandra, "Nahui Olin: ¿Una mujer de tiempos siempre por venir?" *Revista de Humanidades: Tecnológico de Monterrey*, 17 zk., Monterrey, Mexiko, 2004, 131 – 148. or.
[24] Alejandra Ortiz Castañaresen bitartez Tomás Zurián Ugarteri egindako galdera. Alejandra Ortizek Tomás Zuriáni egindako elkarrizketa, Florentzia, 2015eko ekainaren 4ean.
[25] ORTIZ CASTAÑARES, Alejandra, *Manuel Rodríguez Lozano (1891? - 1971), pintor mexicano deuteragonista en la época de los grandes* (doktoretza-tesia)…, 53. or.
[26] [27] Alejandra Ortiz Castañaresek emandako informazioa, "Photito Detektibeen Kabinetea" taldeko elkar komunikazio eta datu trukaketan.
[28] Donostiako Udal Artxiboa. 1916, 1917 eta 1918. urteetako biztanleen errolda.
[29] Alejandra Ortiz Castañaresek emandako informazioa.
[30] Martha Mondragónen heriotza agiria, *www.familysearch.org* webgunean aurkitua, Mª José Rodríguez Molinak utzitakoa.
[31] [32] Tomás Zurián Ugarteren bilduma, Alejandra Ortiz Castañaresek utzitako argazkiak.
[33] Alejandra Ortiz Castañaresek emandako informazioa.
[34] GARCÍA MARCOS, Juan Antonio, *Personajes históricos que visitaron San Sebastián, La fotografía como testigo,* Monográficas Michelena, Donostia, 2013, 75 or.
[35] [36] Gipuzkoako Artxibo Orokorra - Archivo General de Gipuzkoa (A.G.G. - G.A.O.), Tolosa (Gipuzkoa), JD IT 3027.
[37] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2956 b, 2S.
[38] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2994. Industria kontribuzioekin batera, 1933. urteko -eta ondorengoetako- "Elección de Síndicos y Clasificadores" aktak gordetzen dira: *Convocado este gremio por la Administración Provincial… en reunión celebrada hoy en el Palacio Provincial, resultaron elegidos para este año, como Síndicos y Clasificadores...* Urtero bina sindiko eta klasifikatzaile hautatzen ziren. Akta pertsona hauek sinatzen zuten: gremioko hiru partaideek, administrazioko ordezkari batek eta bi industrialariek. (A.G.G. - G.A.O., JD IT 3019).
[39] Donostiako Udal Artxiboa. "Establecimientos de industrias en edificios particulares, 1918."
[40] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2983, JD IT 2998 c, JD IT 2977, JD IT 2990.
[41] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2990.
[42] Donostiako Udal Artxiboa. 1916 eta 1924 bitarteko biztanleen erroldak.
[43] Gipuzkoako Foru Aldundiko *www.guregipuzkoa.net* web gunean ikus daiteke argazkia.
[44] Donostiako Udal Artxiboa. 1935. urteko biztanleen errolda.
[45] Biblioteca Nacional de Españako Hemeroteka Digitala, Madril.
[46] *Guía Ilustrada para el Forastero: año 1918*, San Sebastián, 1918. Mª José Rodríguez Molinaren alea.
[47] Biblioteca Nacional de Españako Hemeroteka Digitala, Madril.
[48] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España…* 822. or.
[49] Alfonso XIII eta saltzaile ibiltari baten argazkia, *www.todocoleccion.net* webgunean argitaratua, 2015.
[50] Javier Sánchez Portas Bildumako argazkiak, Mª José Rodríguez Molinak utzitakoak.
[51] Donostiako Koldo Mitxelena liburutegiko funtsa. Gipuzkoako Foru Aldundiko *www.guregipuzkoa.net* webgunean ikus daiteke argazkia.
[52] Biblioteca Nacional de Españako Hemeroteka Digitala, Madril. Mª José Rodríguez Molinak emandako informazioa.
[53] Alejandra Ortiz Castañaresek adierazitako hipotesia.
[54] Salon Photiton Marchalek egindako erakusketaren inprimakia, San Telmo Museoko Artxiboa, Donostia.
[55] Biblioteca Nacional de Españako Hemeroteka Digitala, Madril. Mª José Rodríguez Molinak emandako informazioa.
[56] Biblioteca Nacional de Españako Hemeroteka Digitala, Madril.
[57] Alejandra Ortiz Castañaresek emandako informazioa.
[58] GARCÍA MARCOS, *Personajes históricos que visitaron San Sebastián, La fotografía como testigo…*, 75. or.
[59] Donostiako Udal Artxiboa. 1922. urteko biztanleen errolda.
[60] ORTIZ CASTAÑARES, Alejandra, *Manuel Rodríguez Lozano (1891? - 1971), pintor mexicano deuteragonista en la época de los grandes* (doktoretza-tesia)…, Alejandra Ortiz Castañaresek Tomás Zurián Ugarteri egindako elkarrizketa, Florentzia, 2015eko ekainaren 4an, 99. or.
[61] Alejandra Ortiz Castañaresek emandako informazioa.
[62] Irungo Udal Artxiboko webgunea (Gipuzkoa), Fondo historikoa, A/01/155/019/R.
[63] Irungo Udal Artxiboa (Gipuzkoa). Sagrario Arrizabalaga Marínek emandako informazioa.
[64] Irungo Udal Artxiboko Hemeroteka Digitala(Gipuzkoa).
[65] A.G.G. - G.A.O., CC 5, CC 6.
[66] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España…* 829. or.
[67] Irungo *Semanario Independiente Bidasoa* aldizkarian 1930eko ekainaren 30ean argitaratutako iragarkia, Irungo Udal Artxiboko Hemeroteka Digitala (Gipuzkoa).
[68] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España…* 829. or.

[69] Irungo Udal Artxiboa (Gipuzkoa). Sagrario Arrizabalaga Marínek emandako informazioa.
[70] Irungo Udal Artxiboko Hemeroteka Digitala (Gipuzkoa).
[71] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España*… 829. or.
[72] [73] Biblioteca Nacional de Españako Hemeroteka Digitala, Madril.
[74] Alcazaréngo Erregistro Zibila, Valladolid.
[75] [76] [77] Irungo Udal Artxiboa (Gipuzkoa). Sagrario Arrizabalaga Marínek emandako informazioa.
[78] A.G.G. - G.A.O., CC 26, CC 27, CC 29.
[79] Logroñoko Erregistro Zibila.
[80] Logroñoko Udal Artxiboa. 1884, 1889 eta 1901. urteetako biztanleen erroldak.
[81] ZENBAIT EGILE, *Logroño Imagen Latente, 175 Años de Fotografía,* Logroñoko Udala eta Casa de la Imagen, Logroño, Jesús R. Rocandiok antolatutako erakusketa, 2014.
[82] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España*… 892. or.
[83] Ana Sierra 1920 urteko hurrengo erroldan ez da azaltzen. Logroñoko Udal Artxiboa. 1905 eta 1910. urteetako biztanleen erroldak. 1915 eta 1920. urteetako biztanleen errolden informazioa, Logroñoko Udal Artxiboko Susana López de Castro teknikariak emandakoa.
[84] Berberanako Erregistro Zibila (Burgos).
[85] Irungo Erregistro Zibila (Gipuzkoa).
[86] Logroñoko Udal Artxiboa. 1884, 1889, 1901 eta 1905 urteetako biztanleen erroldak.
[87] Donostiako Udal Artxiboa. 1918 urteko biztanleen errolda, General Jaúregui kalea.
[88] Irungo Udal Artxiboko Hemeroteka Digitala (Gipuzkoa).
[89] Juan Antonio García Marcosekin elkarrizketa, Donostia, 2015.
[90] GARCÍA MARCOS, Juan Antonio, *Personajes históricos que visitaron San Sebastián, La fotografía como testigo,* Monográficas Michelena, Donostia, 2013, 110. or.
[91] Irungo Udal Artxiboa (Gipuzkoa). Sagrario Arrizabalaga Marínek emandako informazioa.
[92] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España*…. 829. or.
[93] Merche Sierra Garín, Valentínen alabarekin elkarrizketa telefonikoa, 2015.
[94] Alcañizeko Erregistro Zibila (Teruel).
[95] Tere Thomson Llisterri, Alcañizeko Udal Artxiboko teknikariak, matrikula industrialak eta urte ezberdinetako Palomar kaleko biztanleen erroldak begiratu ondoren ez du Valentín Sierra eta bere familiari buruzko informaziorik aurkitu. Bestalde, José María Maldonado Moya, Alcañizeko historialariak Palomar kaleko hainbat bizilaguni galdetu ondoren ez du datu berririk lortu.
[96] Torrelagunako Erregistro Zibila (Madril).
[97] Merche Sierra Garín, Valentínen alabarekin elkarrizketa telefonikoa, 2015. 1965eko biztanleen erroldan esaten denez Valentín Sierra argazkilariak hiru urte zeramatzan Deban bizitzen. Errolda industrialetan ez da ageri. Debako Udal Artxiboa (Gipuzkoa).
[98] Merche Sierra Garín, Valentínen alabarekin elkarrizketa telefonikoa, 2015.
[99] Javier Berasaluce Bajo, Gasteizko Udal Artxiboko teknikariak emandako informazioa: bere aita Deban (Gipuzkoa) jaio zen.
[100] Debako Erregistro Zibila (Gipuzkoa).
[101] Donostiako Udal Artxiboa. "Establecimientos de industrias en edificios particulares, 1917."
[102] Donostiako Udal Artxiboa. "Establecimientos de industrias en edificios particulares, 1916."
[103] *ABC*, Hemeroteka Digitala, Madril, 1917/07/08, 2. or.
[104] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2994, JD IT 2060 1s, JD IT 2963 2s, JD IT 2998 c, JD IT 2977, JD IT 2990, JD IT 2985 1.
[105] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2994, JD IT 2972.
[106] ELORZA INSAUSTI, Maddi. *Iraganaren Ispilu. Euskal Herria eta Novedades Aldizkaria*… 183. or.
[107] A.G.G. - G.A.O., JD IT 3166 2s.
[108] ELORZA INSAUSTI, Maddi. *Iraganaren Ispilu. Euskal Herria eta Novedades Aldizkaria*… 183. or.
[109] Donostiako Udal Artxiboa. "Establecimientos de industrias en edificios particulares, 1916."
[110] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2983, JD IT 2998 c, JD IT 2990, JD IT 2967 2s, JD IT 2994, JD IT 2972.
[111] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2994, JD IT 2972, JD IT 3019, CC 29, CC 56, CC 24, CC 25. 1950. urtetik aurrerako erroldak eta matrikula industrialak ez dira ikertu.
[112] SÁNCHEZ VIGIL, J.M., *La Documentación Fotográfica en España, Revista La Esfera, (1914 - 1920)* (tesis doctoral), Universidad Complutense de Madrid, Madril, 1995, 310. or.
[113] *Easo* aldizkaria, San Sebastián, 1932/05/26, 8. or., Donostiako Udal Liburutegiko Hemeroteka Digitala.
[114] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España*… 817, 818, 823. or.
[115] [116] ELIZEGI, "Pascual Marín Ruiz, fotógrafo", *Pascual Marín, Gipuzkoa Begiragaria - Lo Admirable de Guipúzcoa*, (faksimil edizioa)…

[117] BELDARRAIN SOLATXI, Iñaki, *Patricio Echeverría Elorza, Su tiempo, su obra y trayectoria vital*, Autoedizioa, Legazpi (Gipuzkoa), 2010, 586. or.
[118] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2977, JD IT 3031 b, CC 27.
[119] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2994.
[120] A.G.G. - G.A.O., CC 5, CC 6, CC8, CC9, CC 27.
[121] A.G.G. - G.A.O., CC 28, CC 29, CC 56. 1950. urtetik aurrerako matrikula industrialak ez dira ikertu.
[122] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España…* 822, 823, 828. or.
[123] Lucio Vergararen erakusketako inprimakia, Bikuña Jauregia, Legazpi (Gipuzkoa), 1999. Ángel Murua Iñurritegik emandako informazioa.
[124] Lucio Vergara Machicoteren Artxiboa, Legazpi (Gipuzkoa).
[125] [126] [127] Ángel Murua Iñurritegirekin elkarrizketa, Legazpi (Gipuzkoa), 2016.
[128] *www.todocoleccion.net* webgunean kontsultatu da katalogoa, 2015.
[129] BELDARRAIN SOLATXI, *Patricio Echeverría Elorza, Su tiempo, su obra y trayectoria vital…* 158. or.
[130] Lucio Vergararen erakusketako inprimakia, Bikuña Jauregia, Legazpi (Gipuzkoa), 1999. Ángel Murua Iñurritegik emandako informazioa.
[131] Ángel Murua Iñurritegirekin elkarrizketa, Legazpi (Gipuzkoa), 2016.
[132] *www.todocoleccion.net* webgunean kontsultatu da katalogoa, 2015.
[133] FERNÁNDEZ BEOBIDE, HORCAJO, BLASCO, *Comercios Donostiarras, Historias de la Avenida, I, Impares…* 197. or.
[134] ELORZA INSAUSTI, Maddi, *Espejo de un tiempo pasado. El País Vasco y la revista Novedades…* 190. or.
[135] A.G.G. - G.A.O., JD IT 3329 2S, JD IT 2956b 2S.
[136] Donostiako Udal Artxiboa. "Licencias de actividades 1921 - 1961, Avenida de la Libertad 41."
[137] [138] FERNÁNDEZ BEOBIDE, HORCAJO, BLASCO, *Comercios Donostiarras, Historias de la Avenida, I, Impares…* 197 – 202. or.
[139] SÁNCHEZ VIGIL, Juan Miguel, "De la restauración a la Guerra Civil", *La fotografía en España. De los orígenes al siglo XX….* 221, 224, 241. or.
[140] FERNÁNDEZ BEOBIDE, HORCAJO, BLASCO, *Comercios Donostiarras, Historias de la Avenida, I, Impares…* 200. or.
[141] Donostiako Udal Artxiboa. "Licencias de actividades 1921 - 1961, Avenida de la Libertad 41."
[142] Willy Koch Louvellyrekin elkarrizketa, Donostia, 2015.
[143] FERNÁNDEZ BEOBIDE, HORCAJO, BLASCO, *Comercios Donostiarras, Historias de la Avenida, I, Impares…* 202 or.
[144] Willy Koch Louvellyrekin elkarrizketa, Donostia, 2015.
[145] Corporación Patricio Echeverría S.A. Artxiboa, Legazpi (Gipuzkoa).
[146] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España…*
[147] Ibidem, 627. or.
[148] A.G.G. - G.A.O., JD IT 2956b 2S, JD IT 2956b 1, JD IT 3241b 2, JD IT 2959b 2S, JD IT 2060 1S.
[149] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España…* 819 or.
[150] Donostiako Udal Artxiboa. Amaia Auzmendi Izarrola teknikariak emandako informazioa. Photitori buruzko atalean aipatu da 1926ko urtekari berdinean Manuel Mondragóni buruzko iragarkia azaldu zela, Manuel bi urte lehenago Mexikon hil zelarik, Photito estudioa 1922 urtean itxi ondoren. Ikus Photitori buruzko atalak.
[151] Donostiako Udal Artxiboa. 1915. urteko biztanleen errolda.
[152] A.G.G. - G.A.O., CC 9.
[153] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España…* 832 or.
[154] Pasaiako Udal Artxiboa (Gipuzkoa), Clara Barbier Zabaleta teknikariak emandako informazioa.
[155] Pasaiako Udal Artxiboa (Gipuzkoa), 1935. urteko biztanleen errolda.
[156] A.G.G. - G.A.O., CC 27.
[157] RODRÍGUEZ MOLINA; SANCHIS ALFONSO, *Directorio de Fotógrafos en España…* 185. or. San Miguel kaleko 13. zenbakian "La Ampliadora Moderna" argazki estudioa iragarri zen 1931. urtean (*Directorio…* 182 or.)
[158] Zaragozako Udal Artxiboa. Patricia Alonso Salinas teknikariak emandako informazioa.
[159] Huescako Erregistro Zibila.
[160] 1900. urteko Huescako Hautesle-errolda, "Censos en Aragón" Proiektua, Asociación Cultural de Genealogía e Historia de Aragón elkarteko webgunea, AragónGen, *www.aragongen.org,* Alberto Bayod Camarero foto-historialariak emandako informazioa.
[161] Las Peñas de Rigloseko Erregistro Zibila (Huesca).
[162] Zaragozako Udal Artxiboa. Patricia Alonso Salinas teknikariak emandako informazioa.
[163] 1934. urteko Zaragozako Hautesle-errolda, "Censos en Aragón" Proiektua, Censo Electoral de Zaragoza de 1934, Proyecto "Censos en Aragón"… Alberto Bayod Camarero foto-historialariak emandako informazioa.

[164] Zaragozako Udal Artxiboa. Patricia Alonso Salinas teknikariak eskainitako informazioa.
[165] PALÁ LAGUNA, Francisco, *La tarjeta Postal Ilustrada*, 2004, 60 - 63 or. Alberto Bayod Camarero foto-historialariak emandako informazioa.
[166] *www.todocoleccion.net* webgunea, 2016.
[167] *www.todocoleccion.net* webgunean kontsultatu diren enpresaren fakturak, 2015.
[168] Donostiako Udal Artxiboa. 1945. urteko biztanleen errolda, Avenida del Generalísimo 28.
[169] Iruñako Udal Artxiboa. Txema Oderiz Azkona teknikariak emandako informazioa.
[170] Donostiako Udal Artxiboa. 1945. urteko biztanleen errolda.
[171] Beatriz Arsuaga Elizalderekin elkarrizketa, Donostia, 2015.
[172] Donostiako Udal Artxiboa. 1950. urteko biztanleen errolda.
[173] Donostiako Erregistro Zibila.
[174] Donostiako Udal Artxiboa. 1955 eta 1960 urteetako biztanleen errolda.
[175] Donostiako Erregistro Zibila.
[176] Zaragozako Erregistro Zibila.
[177] Zaragozako Udal Artxiboa. Patricia Alonso Salinas teknikariak emandako informazioa.
[178] Beatriz Arsuaga Elizalderekin elkarrizketa, Donostia, 2015.
[179] Donostiako Udal Artxiboa. Amaia Auzmendi teknikariak emandako informazioa.
[180] Beatriz Arsuaga Elizalderekin elkarrizketa, Donostia, 2015.
[181] *www.todocoleccion.net* webgunea, 2016.
[182] Biblioteca Nacional de Españako Hemeroteka Digitala, Madril.
[183] Bilboko Udal Artxiboa. Almudena Toribio Rey teknikariak emandako informazioa.
[184] Antón Hurtadorekin elkarrizketa telefonikoa, 2015. Antón diseinatzailea izan zen Imprenta Industrial enpresan 1973. urtera arte. Nekane Larreak, Bizkaiko Arte Grafikoen Elkarteko kideak, errebisatu du dokumentazioa, 2016.
[185] Nekane Larrea, Bizkaiako Arte Grafikoen Elkartea, 2016.
[186] [187] Corporación Patricio Echeverría S.A. Artxiboa, Legazpi (Gipuzkoa).
[188] Fototeca del Instituto del Patrimonio Cultural de España (I.P.C.E.), Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Óscar Muñoz Sánchezek emandako informazioa.
[189] Corporación Patricio Echeverría S.A. Artxiboa, Legazpi (Gipuzkoa).
[190] SALMERÓN MURGIONDO, Gorka, "Pando, Fotógrafo en Legazpi", *Txinpartak* 30. alea, Burdinola, Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea, Legazpi (Gipuzkoa), 2015, 10 – 12. or.
[191] Corporación Patricio Echeverría S.A. Artxiboa, Legazpi (Gipuzkoa).
[192] [193] SALMERÓN MURGIONDO, "Pando, Fotógrafo en Legazpi", *Txinpartak* 30 alea… 10 – 12. or.
[194] Corporación Patricio Echeverría S.A. Artxiboa, Legazpi (Gipuzkoa).
[195] [196] Fototeca del Instituto del Patrimonio Cultural de España (IPCE), Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Madril. Óscar Muñoz Sánchezek emandako informazioa.
[197] Fototeca del Instituto del Patrimonio Cultural de Españako webgunea (IPCE), Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Madril.
[198] Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofíako webgunea, Madril.
[199] Fototeca del Instituto del Patrimonio Cultural de España (I.P.C.E.) webgunea, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Madril.
[200] Fototeca del Instituto del Patrimonio Cultural de España (I.P.C.E.), Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Madril. Óscar Muñoz Sánchezek emandako informazioa.
[201] Argazkien atzekaldeko zigiluetako azken bi zenbakiak ez dira ondo irakurtzen (1970ko hamarkadan zigilua aldatu egin zen: *T.A.F. S.L. Trabajos Aéreos y Fotogramétricos. Maestro Nicolau 21. Teléfs. 227 72 81 - 227 03 64. BARCELONA (6),* bulegoak kale berdineko beste zenbaki batean kokatuz. Imma Navarro Mollevík emandako informazioa, Arxiu Nacional de Catalunya, Sant Cugat de Vallès, Bartzelona, 2016).
[202] FERNÁNDEZ GARCÍA, Felipe, "Los principales fondos históricos de fotografía aérea sobre Madrid", *Ería: Revista Cuatrimestral de Cartografía,* nº 64-65, Universidad de Oviedo, Asturias, 2004, 330. or.
[203] ORTEGA FIGUEIRAL, Javier, "Anuncios en el aire", *La Vanguardia* Hemeroteka Digitala, Bartzelona, 2013/08/11.
[204] Marina Blesa Baeza, T.A.F. Helicópteros S.L.-ko zuzendari komertzialarekin telefono bidezko elkarrizketa, 2015.
[205] Arxiu Nacional de Catalunya, Sant Cugat de Vallès (Barcelona). Imma Navarro Mollevík emandako informazioa, 2016. Arxiu Nacional de Catalunyako webgunean ikus daitezke argazkiak, ANC1-564-N-5712, ANC1-564-N-5713.
[206] ALONSO FERNÁNDEZ, Juan, CORRALES BURJALÉS, Laura, "Del cielo al archivo: la fotografía aérea del Fondo T.A.F. Helicópteros", *ANC, Boletín del Arxiu Nacional de Catalunya,* nº 43, Arxiu Nacional de Catalunya, Sant Cugat de Vallès (Bartzelona), 2016ko otsaila, 22 – 28. or., ANC1-564.

[207] [208] [209] Arxiu Nacional de Catalunya, Sant Cugat de Vallès (Barcelona). Imma Navarro Molleví, 2003ko otsailean, 2007ko martxoan eguneratua, ANC1-564.

